

bost idazle

(elkarrizketan)

Bernardo Atxaga.
Koldo Izagirre
Anjel Lertxundi
Ramon Saizarbitoria
Joseba Sarrionandia

Hasier Etxeberria.

Eskeintza: Martin Ugaldere eta
Felix gure aitari.

Aitzin solasa.

Tenorea iristen denean, musika oro geratu egin behar izaten da eta erabateko isiltasuna entzun. Adi-adi. Batez ere entzuten den hori guztia zarata baldin bada, egiazko musika baino gehiago. Dena geratu egin behar izaten da supituan, berriro ganoraz entzuten hasteko.

Horixe izan nahi luke bederen liburu honek: isiltasuna. Zarataren erdian, aurrera segitu baino lehenagoko geldialdia. Ez besterik.

Bost idazlerekin eginiko elkarrizketak biltzen dira hemen. Orkestra zabalago bateko bakarlariak, guztiak ere. Badakigu eurak bostak gabe, XX garren mende bukaerako euskal literaturak ez zukeela musika bera izango. XXI garren mende hasierakoak ere ez. Euren bosten liburuak gabe ez ginatekeela honaino etorriak izanen.

Esan bezala, eta zorionez, badira idazle gehiago ere, jakina, baina irakurle ere banaizen aldetik, liburuan agertzen diren bost hauen izenen azpian jarri nahi izan dut azpimarra. Beste batek, honantzago edo haratago, leku ezberdin batean jarriko lukeen bezalaxe. Horregatik ez duzu kausituko, irakurle, ez kuotarik eta ez bestelako irizpide demokratikorik egindako hautuaren bizkarrik gordetzeko. Liburu honen gaia edo helburua ez baita giza eskubideena edo Salomonen zuzentasunarena.

Bost dira, bada, eta, ondo ala gaizki, galdetzaile honen apeta baizik ez du izan arau etiologia guztiz partikular honek. Egindako aukeraketa eta bere ondorioa den liburua, lerratuak dira sortze beretik, beraz.

Akademiarako balioko dizun irakaspenik ere nekez aurkituko duzu hemen. Ez baikara akademiako. Areago, ez gara akademia zale ere. Ez literatura kontuez dihardugunean, behinik behin. Era horretako aipurik, beraz, zeharka joandakoen artean aurkituko duzu, izatekotan. Literatura guretzat ezer baldin bada, akademiak hala nahita ere ezin ehiza dezakeen piztia baita, besteak beste. Bizipenetatik elikatzen den kea da literatura, hizkuntza duena artelanerako gai eta, aldi berean, tresna nagusi eta helburu.

Liburu honetan bost idazle ezberdinen iritziak aurkituko dituzu, alfabetoak agintzen duen bezala antolatuta: Atxaga, Izagirre, Lertxundi, Saizarbitoria eta Sarrionandia. Horrelaxe.

Guztiz ezberdinak direla dioten arren, denbora eta espazio bertuan harrapatuak dira bostak ala bostak. Ez direla diote, baina badira nolabait, txalupa bereko bidaiari. Literatura ulertzeko edo egiteko era bat eta bakarra erabiltzen ez badute ere, bostak geruza berberak aterpetzen dituela sumatuko duzu Horixe aurkituko duzu elkarrizketa hauetan. Nolabait.

Gehiago ere bai: kezkak eta antsiak bertsuak dituzten arren, erantzun arras ezberdinak ematen dituztela irudi luke, lehen begiratuan. Hortik aurrera zerorrek iritzi

beharko diozu zenbateraino dauden elkarrengandik hurre ala, aitzitik, langintza berberak emari guztiz ezberdinak nola ekar ditzakeen.

Zaharrena eta gazteenaren artean, hamabost urteko aldea dago. Bi baizik ez dira bizi hiri berean, Donostian. Hirugarren batek itsasertza du bizileku eta laugarrenak barne aldeko lautada baketsua. Azkenak, ostera, bostak harrapatzen dituen espazioa gainean darama, urgentzietarako motxilan sartuta, errari beti.

Bost idazle eta, zergatik ez esan, literaturaren beraren bost maitale aurkituko dituzu hemen. Literaturak bizi dituen horietakoak. Berariaz ala nahigabe, idazle. Idatzi gabeko bizitzarik bizi ezin dutenak.

Euretako bat izan ezean, aspalditik ditugu ezagutzen beste laurak. Lanbidearen eta zaletasunaren kariatz, hamaikatxo elkarrizketa eginak genituen lehenagotik ere. Berbaldi bukagaitzak ere bai, zenbaitetan.

Liburu honetan, ordea, alferrekorik ere ez dago batere. Ez du, behintzat, egon nahi halakorik. Bakoitzari egindako elkarrizketa luze, bakar eta nekagarri batean laburbildu nahi izan dira gure jakin-mina eta euren bosten esan-gogo. Metodo zurruna, akaso. Baina halaxe agindu du luzearen luzean egindako jarduna jasotzeko gaitasunik ez dudan honen ahalmen apurrak.

Baten salbuespenaz, idazleen etxean bertan egin dira elkarrizketok, 2001 urtearen azken hondarretan. Hiru ordu eta gehiagoko itaunketa akigarriak izan dira. Idazleen borondate eskergaren profitamenduan eginak.

Bosgarrenaren bizimodu apartekoak, ordea, ez digu utzi metodologiaren aldetiko berdintasunik. Ezinezkoa izan da hori, irakurle, eta nabarituko duzu ederki aldea. Alabaina, ondotik eta orpoz-orpo dabilkigun polizia bere pausoetan nahasteko bada ere, esan dezagun hegazti errariarekin Reykjaviken eta Tananariven egin ditugula enkontru azkar eta ezkutukoak. Edo Kuala Lumpurren eta Adiss Abeban, horrek berdin dio eta.

Bost idazle. Bost literaturgile eta irakurle bat aurrez aurre. Hitz eginez isiltasun apur bat ekarri nahian gurera. Ez besterik. Horixe baizik ez, aurrera jarraitu baino lehen, nork bere bidean.

H. Etxeberria

Bernardo Atxaga.

1

Etxetik hasten da dena: aita eta ama.
 Andoain ez da New York, baina ia-ia.
 Fedor dut izena.
Ramuntxo-ren eragina.

Nik egia esan, ez nekien mundua bazenik ere. Zer esanik ez euskal mundua, nahiz eta hortxe hurbiletik hurbilera eduki Tolosa eta Lizardi, esaterako. Nik zer pentsatu behar nuen halakorik. Haur garaian inolako harremanik ez genuen munduarekin.

Irakurzaletasuna aitarengandik jaso nuela uste dut, hark beti ematen baitzion irakurtzeari balioa, irakurtzea oso ona zela esanez. Idaztekoa, ostera, amarengandik jaso nuela esango nuke. Bere ikaskide batek gure herria deskribatzeko erabili zuen irudia kontatu zidan behin eta huraxe geratu zitzaidan gogoan itsatsirik: baserriak mendian daude sakabanatuta, ardiak balira bezala. Zein polita den hori! Nire 12-13 urtetan, izugarria iruditu zitzaidan deskribapen hura eta pasadizo horren inguruan jarri nahiko nuke idazteko nire joeraren sorburua.

Hasiera haietan oso estua zen euskararekin nuen harremana. Beste hizkuntzarik egon zitekeenik ere ez nuen pentsatzen. Iruditzen zait katilu baten barnean bizi ginela, goata artean gorderik bezala.

Gogoan dut gure herriko gizon bati buruz gure aitak, egia balitz bezala, kontatu ziguna: gerra garaian joan zela gudariekin Santander aldera eta han behiak zaintzen ari zela, gizon bat ikusi eta harixe esan ziola, “Eguraldi ederra egiten du belarretarako”. Beste gizonak jaramonik ere ez, ordea. Behin eta berriz esan omen zion gure herrikoak gauza bera eta besteak erantzuten ez. Azkenean, “Motel, motel, horrek ez zakik euskaraz” esan omen zioten. Orduan gure herrikoak, “ Ez dakiela euskaraz? Nola, euskara ez al da, bada, mundu guztian hitz egiten?”

Euskararekin nuen harremana guztiz zuzenekoia zen. Erabat euskaraz hezitakoa naiz ni, geroago eskolan erdaraz egingo banuen ere.

Gure ama garai batean Eibarren ibili zen maistra ikasten, eta han bakarrizketak antzezten zituen. Erran nahi baita, bera bakarrik irteten zela oholtzara eta antzerkien tarte batean bakarrizketak errezitatzen zituela. Horregatik eta beste kontu batzuegatik, amak beti eduki du euskara idatziaren zentzu bat eta guk, hiru anaiok, gutxi edo asko, euskaraz idazten genuen etxean. Ez da harriztekoa, beraz, Andoaingo Lasallearrengana ikastera joan eta erredakzio lehiaketa baterako idatzi behar eta nik euskaraz idaztea. 14-15 urte edukiko nituen eta, Asteasukoa naizen aldetik, pikardia apur batez ere jokatu nuen, bai bainekien

epaimahaian euskaltzaleak ere bazirela eta begi hobeeekin begiratuko zidatela. Baina baita euskaraz idazteko gai nintzela erakutsi nahi nuelako ere.

Oroitzen naiz zein zen gaia: Izeberga. Eman zituzten erdarazko sariak baina ni ere aipatu ninduten. Bereziartu izeneko abade bat hurbildu zitzaidan esanez, “Zuk euskaraz egin duzu eta oso ondo, gainera. Niretzat besteena baino hobea zen zurea. Oso garrantzitsua da euskaraz idaztea eta jarrai ezazu horrela”. Bereziartua hark 50 urterekin harrapatu banindu, ez zen ezer gertatuko, baina orduan egokitu zenez, adin hartan, niretzat oihartzuna edukiko zuten haren hitzek.

Gu eskutik utzita bizi ginen Asteasun, erdietan ez genuen eskolarik izaten, ez da sinisgarria nola ziren gauzak orduan. Bai, maisua etortzekoa zela baina ez zen etortzen. Gu txirringaz joaten ginen Zizurkilgo eskolara. Ordubeteko bidea genuen joateko eta beste hainbeste etortzeko. Maisua agertzen zen egunetan, eguerdi alderako agertzen zen. Oroitzen naiz Trebiño Arabakoa zela esaten bazenuen, Burgoskoa zela esan ordez, sekulako zartakoa ematen zizutela. Horrelako gauzak oroitzen ditut eskola hartatik, falangismoa, Viva España eta horrelakoak. Egia esan behar bada, oso bazterrekoak egiten zitzaizkidan guztiak.

Lehenengo mundu hori nik etxean eduki nuen. Bigarrena Andoainen, Batxillerra egitera joan eta udal liburutegira hasi eta lagun talde polita egin nueneko garai haietan.

Lehenengo idazlanak ere, garai hartakoak.

Gure etxeko kontua da hori. Han denok idatzi dugu. Nire anaia hirugarrenak ere segitzen du. Esango nuke, gainera, Asteasun bazela horrelako zaletasun berezi bat, jende asko eramaten zuena idaztera.

Baneukan koaderno bat eta han hasi nintzen Xabier Leteren kantuen letrak kopiatzen, maitasun poemak idazten, neska koskorrei gutunak idazten...

Liburu honetan agertzen diren beste idazle batzuek oso gaztetandik zinela egiazko idazle, aitortu digute.

Bai, egia da. Oso goiz hartu nuen idazteko gogo eta bide hori. Esate baterako, Bilbora joan nintzen Ekonomiako karrera ikastera baina nire kezka bakarra, literaturaz jarduteko jendea non topatuko nuen zen. Idazteaz eta irakurtzeaz hitz egiteko moduko jendea, alegia.

Gerora oso beharrezkoa egin zitzaidan literatura, Johnson(?) doktoreak eskatzen ziona bera aurkitu bainuen nik ere literaturan: une gaiztoetarako kontsolamendua eta alaietarako, poza.

Esan nahi dut, ni Andoainera joan nintzenean, esaterako, bakar-bakarrik eta batere lagunik gabe, susto handia hartu nuela. Nahiz eta Asteasu zortzi kilometro eskasera egon, batetik bestera sekulako alde zegoen. Andoainen alderdi politikoak zeuden, neskak eta mutilak elkarrekin paseatzen ziren, industria giroa zegoen... ia-ia erromatarren garaitik sartu nintzen ni zuzenean industri girora. Erorialdi hartan asko lagundu zidan literaturak.

Ikaskideek *Fedor* deitzen zidaten, beti bainenbilen Fedor Dostoyevski gora eta behera. Preu egiten niharduela ere oroitzen naiz nola esan zidan irakasle batek, “Irazu, zure azterketan berriro Giovanni Papini aipatzen baduzu, suspenditu egingo zaitut”.

Beti eduki dut garbi liburuak beharrezkoak direla eta idazle ofizioa gauza ederra dela.

Zer irakurtzen zenuen Andoaingo liburutegian?

Egunero-egunero hiru orduz joan nintzen hara hiru urtean zehar. Liburutegi hura oso garrantzitsua izan da nire langintzan. Denetarik irakurri nuen han, oso ona eta oso txarra.

Nolanahi ere, ez zenuen gazte literaturarik bereziki irakurtzen.

Batere ez. Orain haurrak hiru urterekin eramaten ditugu eskolara, oso garrantzitsua omen dela eta. Ez dut sinesten. Gu hamaika urterekin hasi ginen zerbait ikasten. Eta haur literaturari dagokionean, 14-15 urterekin hasiko nintzen. Gogoan dut amak erregalatutako liburu bat, Dickens-en *Los papeles del club Pickwick*. Zoragarria iruditu zitzaidan.

Orain ikusten dugun boom hau, gizarte aurreratuen luxua izango da, behar bada. Gogoratzen dut, Carlo Collodi-ren biografia irakurri nuenean, berak umetan klasiko guztiak irakurtzen zituela nola esaten zuen, Shakespeare barne.

Eta euskarazko liburuak?

Egia esan, ezer handirik ez. Etxean aurkitzen nituen liburu bakan batzuk, eta horrela.

Euskaldun bezala niretzat eragina eduki zuen lehen liburuetakoa, Pierre Loti-ren *Ramuntxo* izan zen. Ez zegoen euskaraz idatzita baina eragina eduki zuen nigan. Hondarribian irakurri nuen, lehengusu batzuen etxean.

Gainerakoan, euskara kantuarekin lotzen nuen, batez ere. Abestiak, abestiak eta abestiak nituen gogoan.

Argia ikusi zuten lehen idatziak, zeintzuk?

Etxeko hormetan gordetzen dut oroigarri gisa. Valladolideko El Norte de Castilla egunkarian argitaratu zuten nik 18 urte nituela. Francisco de Cossio narrazio saria irabazi nuen, *Los que anhelamos escribir izeneko*a. Hortxe ikusten da nik buruan ez neukala besterik, idaztea baino.

2

Arestiren lurrikara.
Euskara ez da abangoardia.
Estrangulatzailleak eta beisbolariak.
Klasikoen mundu zabala.
Euskal Herria Amerika da.
Idazle organikoa naiz.

Lehenago ere esan dizut sekulako garrantzia eduki zutela niretzat euskal kantuek. Xabier Lete, Mikel Laboa... guzti horien kantuek eragin itzela izan zuten nigan eta beste askorengan ere bai.

Hala ere, garai hartako eragin literario zuzenena Gabriel Arestirena izan nuen. Bilbon nengoela, hitzaldi batera joan eta Arestiri aurreneko aldiz entzun nionean, oso hunkituta sentitu nintzen. Orduan, orain bezala, idazle handi baten aurrean nengoela pentsatu nuen.

Orduko komunisten utilitarismoaren kariaz, inguruko guztiek esaten zioten erdaraz idatzi behar zela, Picassok ere hobe zukeela eskoletan irakastea, bere artelanak egiten jardutea baino. Aresti, berriz, T.S. Eliot aipatzen, Baudelaire aipatzen. Eta gainera euskaraz idazten du, pentsatu nuen. Oso harrিতuta geratu nintzen. Amerika aurkitu nuen Arestirekin, Kafkaren zentzuan esanda, jakina.

Ordura arte, euskara nire lehen hizkuntza zen arren, ez nuen lotzen idazteko ofizioarekin. Ez zen idzteko nire kalkuloetan sartzen. Horren froga da erdaraz idazten hasi izana.

Hala ere berehala aldatu nintzen euskarara. Alde batetik Arestiren ereduagatik eta bestetik, Bilboko Sarrikoko fakultatean, hasia zelako ordurako eztabaida politikoa eta euskal kultura eta hizkuntzaren aldarrikapena. Xabier Etxebarrieta, ETaren lehenengo hildakoa ere han ibilia zen.

Garai hartakoak dira, bestalde, *Ez dok amairu, Baga biga higa* eta horrelakoak. Sekulako inpresioa egin zidaten horiek guztiek eta, zeharka bada ere, Jorge Oteizak ere bai. Nire ustez hauek guztiak izan dira gure heziketaren oinarrian. Guretzat lotuta zihoazen literatura eta euskara, abangoardiarekin, progresismoarekin, bizitzaren politikarekin...

Hori guztia genuen ardatz eta horrexek eman zizkidan gerora etsipenik handienak edo uste txarrik handienak: lotura hori puskatu egiten zela ikusi genuen, ez zirela uztartzen euskara eta progresismoa. Aitzitik, euskara integrisimo politikoarekin lotzen zela egiazki. Niretzako benetako makurra da hori.

Izanen zen salbuespenik.

Bilboko Verdes liburudenda eta han ibiltzen ziren Anjel Zelaieta eta abar datozkit gogora. Jakin nuenez, hantxe biltzen ziren zenbait euskaltzale eta egun batean nik idatzitako antzerkitxo bat eraman nien, *Borobila eta puntua* izenekoa. Nire asmoa,

baten batek irakurri nahi bazuen, horretarako aukera ematea zen. Ez besterik. Verdes liburudendako langileei utzi nien, bada, eskuizkribua. Nori emango nien, bestela, irakurtzeko? Nik ez nekien zer egin behar izaten zen idatzitakoarekin.

Anjel Zelaietak irakurri egin zuen eta niretzako suertez, Arestiri pasatu zion. Honek ere irakurri zuenean, argitaratu egin behar zela esan zuen.

Aresti ez balitz izan eskuzabala, idazle pijoa edo aristokratiko horietakoa izan balitz, ez zen ezer gertatuko. Berak, ordea, beti Bertold Bretch zeukan hitzetik hortzera, gazteei lagundu egin behar zitzaizela, euskara bultzatu beharra zegoela, aukerak eskaini egin behar zirela... Eta halaxe etorri zen niretzat bultzada.

Bere garrantzia duelako ñabardura bat ere aipatu nahiko nuke bide batez. Bultzadak beti etorri zaizkit euskararen munduko periferietatik. Politikoki oso abertzaleak ez zirenen aldetik. Abertzale sutsuenen aldetik, kontrakoa etorri izan zait maiz, zipozkeria. Pentsatzen jarri eta harrigarria egiten zait hori. Baina halaxe da.

Euskal Literatura 72 deitutako liburuan argitaratu zuten.

Bai. Garaiko idazleen lanak biltzen zituen liburu hark. Handik oso gutxira artikulu bat argitaratu nuen *Anaitasuna* aldizkarian eta haren ondorioz gutun bat jaso nuen zuzenean. Ez dut esango izenik baina garai hartako euskaltzale eta abertzale sutsu batena zen. Euskararik ez nekiela eta ez idazteko gehiago eskatzen zidan.

Euskal Herrian beti izan ditugu bi talde, batzuk herria ito nahi lukete, eta besteek puskatu. Bai, batzuk estrangulatzailak eta besteak beisboleko batearekin jo nahi gaituztenak.

Segi Arestiren kontuekin.

Gutun bat idatzi zidan Arestik, idazle nintzela esanez. Pentsa dezakezunez, asko pozteko modukoa izan zen hori niretzat. Baina besterik ere esaten zidan, arren eta arren, euskara bere lekuetan irakurri behar nuela, klasikoetan. Bazekiela alukeria gerta zitekeela Leizarraga irakurri beharra, edo aspergarria Asteasuko Agirre irakurri beharra. Idazle izan nahi banuen, ordea, ez neukala beste biderik, ezagutza erreflexu hori behar nuela eduki.

Eta halaxe hasi nintzen, tirriki-tarraka gure klasikoak irakurtzen. Axular eta Agirre Asteasukoa, batez ere.

Zein irudipen jaso zenuen? Gure klasikoak irakurtzea guruzbidea dela entzun diogu bati baino gehiagori.

Ez, niretzat ez. Nik lurralde zabala aurkitu nuen horien lanetan. Lehenago aipatu dudan zentzu berean, Euskal Herria niretzat Amerika izan da. Oso maiz, jendea kontrako irudipenaz ibili ohi da, euskal mundua txikia dela esanez. Niretzat juxtu kontrakoa izan da, oso handia eta zabala. Oraindik ere handia iruditzen zait.

Idazle zahar horiek denak irakurri eta pentsatzen jarri beste euskarak bazeudela, ez dela gauza bera hitz egitea eta idaztea, poesiak bere tresnak dituela, mintzoarekin baduela zerikusia baina ez dela gauza bera... niretzat izugarria izan da. Gainera, Axular benetan izan zela handia uste dut. San Juan de la Cruz bezala, sekulako idazlea izan zela uste dut eta bere idazle arnasa ere izugarria erakutsi zuela.

Eta klasikoez gain?

Zorionez Ekonomia karrera egitea hautatu nuen, gutxi estudiantuz atera zitekeen horietakoa. Bigarren karrera bat edo karrera paraleloa egiteko profitatu nuen, euskal literaturarena. Ezer ez nuela ezagutzen iruditzen baitzitzaidan, euskal kulturaz ez nekiela deus.

Hirugarren kurtsoan nengoela, Jon Etxaide irakurri nuen eta berarekin deskubritu nuen Etxahun. Hala ere, Axular irakurri ostean, oso gogorra egiten zitzaidan Etxaideren idazkera. ez zuen eragin handirik izan nigan.

Orduan ezagutu nituen Lur argitaletxearen inguruan zebiltzanen lanak ere. Gora behera handiak eduki zituzten baina irakurtzen nituen. Nola ez, bada. Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*, Sarasolaren poema liburua, Urretabizkaia apur bat, Xabier Kintana ere bai. Kintanak eragina zuen orduan, propagandista bezala batez ere. Kemen handia zeukan.

Eta Lertxundi?

Bai, Lertxundirenak ere irakurtzen nituen. Berak hitzaldi bat eman zuen Deuston, Mitxelena ere han zela uste dut. Literaturaren arazoei buruz jardun zuen eta han egon nintzen neu ere.

Berak esan digunez, garai hartan euskaraz argitaratzen zenaren berri ba omen zenuen zuk.

Bai, nolabait esatearren, Asteasuko mundu berezko hartatik, kanpotik etorri nintzela esango nuke. Euskal mundurik bazegoenik ere jakin gabe. Eta 18 urteko itzulinguruan, erabat murgildu eta gerora izan naizen idazle organikoa bilakatu nintzen. Noski, organikoarena zentzu onenean esaten dut eta ez Bolshoi balleteko dantzarien eran, Errusian dantzari egin eta bat batean Chicagora pasatzen dira.

Ni hemen sortua naiz, barrutik sortu naiz, ez naiz etorri Parisetik edo Cordobatik, hemengo jendearen artekoa naiz, barruan nago. Nire emaitzak ere barneko batenak dira. Zentzu horretan diot idazle organikoa naizela.

3

Ustela eta Izagirre.
Rock'n roll versus Chanson française.
Saizarbitoriaren kontua.
Pott Banda.
Juaristiren mamuak.
Sarriren bidea.

Ustela aldizkariaren sorreran ere izan zinen Koldo Izagirrerekin batean. Izagirrek ez digu esan nahi izan nola ezagutu zenuten elkar, soilik kartzela kontu bat egon zela tartean. Besterik ez digu esan.

Gure garaiaren antz handiagoa daukagu geure gurasoena baino. Koldo eta nire bi anaiak kartzelak batu zituen. Batez ere nire anaia hirugarrenarekin egin zituen harremanak. Harexek esan zidan han barruan bazela euskal literaturan zebilen norbait... eta halaxe sortu zen gure arteko harremana.

Oso gazte lotsatia zen Koldo baina harrigarria gertatzen zen zein ondo menperatzen zuen hizkuntzaren tresna, zein abila zen poesiarako. Halaxe sortu genuen Ustela, gure inozentzi erabateko hartan.

Koldo eta biok eta baita Pasaiako pintore batek ere, Josetxo ez dakit zer, gero Frantziara ihesi joan eta bertan bizi dena aspaldian. Hondarribiko Susperregi argazkilaria ere ibili zen gurekin. Egia esan behar bada, kontzeptua pintorearena izan zen, idazleona baino gehiago.

Niri iluna iruditzen zitzaidan *Ustela*, garaia zen bezalakoa, oso tanatikoa.

Hiru ale atera eta kito.

Bai, baina horrek ere eduki dezake bere esplikazioa. Lehen aipatu dut idazle organikoarena, barrutik sortutakoarena, baina, Asteasutik, Andoaindik edo, nolabait, kanpotik etorritakoa banintz bezala. Euskararen kultura mundua ez zen beste batetik etorritakoa nintzela, alegia.

Garai hartako idazleoz hitz egitean, ez dut sekula aipatu musikaren eragina edo kontua, baina oso adierazgarria da eta oso ilustragarria. Esango nuke Jacques Brel, George Brassens eta horrelako existentzialisten musika entzuten zutenen belaunaldi bat bazela, gu baino zahartxoagoa zena. Ondoren gu etorri ginen, The Animals, The Beatles, The Rolling Stones eta horrelakoak entzunda. Geroagoko heziketa literarioa Euskal Eskola dei diezaiokegunean egingo bagenuen ere, horrelako musikak ezagututa eta horiek maite genituela etorri ginen gu. Blues-a eta rock'n rollaren munduak, mugimendu gehiago zeukan, ezberdina zen, eta ezin ginen besteen ildo beretan ibili.

Bilbo ere bazegoen tartean eta egia esan, ez dakit zergatik, baina Lur argitaletxeko jendearekin bizpahiru bileratara joan nintzen arren, ez nuen enpatiarik aurkitu.

Idazleak bakarrik egin ohi du bere bidea, baina ematen du, hasieran behintzat, beti behar duela taldearen babesa.

Bai betidanik izan da hori horrela eta ez gure artean bakarrik. Esate baterako, sekulako garrantzia eduki zuen literaturaren garapenean, kafetegiak zabaltzen hasteak. Zergatik? Kafearen aitzakian saloiak antolatu zirelako eta jendea bildu egiten zelako.

Zer egiten du taldeak? William Golding-ek (??) ere esaten du hori, taldeak aurkitzen du lehenbizi *rara avis* bat eta bere lan argitara gabeak ezagutzen ditu. Idazleak, ordea, bere folio zikinak irakurriko dizkion jendea topatzen du, balio handia ematen diona, gainera. Lagunak eta supporterrak dira.

Nire ustez hori oso ona da hasieran. Gainera, kontzeptua zehazteko eta nortasuna indartzeko primerakoa izaten da taldean ibiltzea. Adibide bat jarriko dizut: Jon Juaristik taldean esaten du mundu honetan abeslari bakarra dagoela, Amancio Prada; zuk orduan esaten duzu ez diozula ezer kendu nahi Amancio Pradari baina The Animals taldeko Eric Burdon-en ondoan, ez dagoela konparatzerik ere. Norbaitek esan behar du hori edo horrelako zerbait, zeure ustea indartuta irten dadin.

Egotistak eta lanpernak gauza bera dute: zenbat eta gehiago jo itsasoak, orduan eta indar gehiago.

Zu kafea hartzera, Bilboraino joan zinen.

Bai, bai. Egia esan behar bada, baserria oso garrantzitsua izango zen, Asteasu eta aitona-amonak ere bai, La Salle ikastetxea eta hori guztia ere bai, baina Ekonomia ikasteko garaian ezagutu nituenak, Aresti eta horrelako kontuak, niretzat erabakigarriak izan ziren.

Eta Bilboko euskal giro periferiko hura. Ez Tolosakoa, non denek ematen duten inolako arazorik gabe izan daitezkeela euskaldun. Bilbokoa euskaldungo nahasia da: gipuzkoarrak, Bizkaia Country sailekoak, Nacho de Felipe bezalako tipoak, euskaraz ikasi duten maoistak...

Ni askoz gusturago ibili nintzen *Pott*-en, *Ustelan* baino. Nire ustez talde baten premia izan genuen garai haietan, denok ere.

Batetik bestera egin zenuen saltoa.

Donostian *Ustela* egitetik nentorren. Saizarbitoria hurbildu zitzaigunean, gauzak pitin bat okertu egin ziren han. Ikuspegi ezberdinak zeuden, ideologia ezberdinak. Niri arrotza egiten zitzaidan Saizarbitoriak iraganarekin zeukan harreman mota hura. Ez dakit nola esan baina orain iruditzen zait garrantzia ematen diotela iraganeko ez dakit zeri eta ez dakit nori kritika egitea. Eta niri, egia esan, ez zitzaidan iruditzen hainbesterakoa. Belaunaldi zaharragoak direla eta, akaso berak gehiago sufrutuko zuen nik baino.

Saizarbitoriari mendekua hartzea gustatzen zaio. Idazle bezala horretan du indarra. Irakurri dudan liburuetan esaten du mendekua hartzen duela. Kontuak garbitu nahi izaten ditu bere aurreko belaunaldikoekin, baina niretzako hori ez zen inongo erreferentzia.

Hirugarren *Ustela*, Saizarbitoria sartu eta gero egin genuen hura, aurreko biak baino askoz politikoagoa izan zen eta niri bide hori ez zitzaidan interesatzen.

Bilbon gusturago ibili nintzen *Pott*-ekin. Afinitate handiagoak genituen eta hori garrantzi handikoa da. Zuk esaten zenuen, niri halako kantua gustatzen zait eta beste batek, niri ere bai. Halako filma gustatu zait esaten zuen norbaitek, eta zeuri ere huraxe

gustatu zitzaizula konturatzen zinen. Bilbon gertatu zena izan zen, afinitate horiek handiagoak izan zirela Donostiako taldean baino, oso ondo ulertzen genuela elkar, alegia.

Nork bere papera izango zuen Pott bandan.

Baliteke hasieran gogotsuena eta gehien mugitu zena neu izatea. Gerente lanaren antzekoa egiten nuen nik: honi eta hari deitu, fotokopiak egin, dirua aurkitu... Hortik aurrera ere nork bere papera zeukan.

Esate baterako, aipa dezagun Joxe Mari Iturralde. Lehen esan dizut hasera batean ni nola izan nintzen arrotza euskal munduarekiko, bada, ni arrotza banintzen, Iturralde suediarra zen gutxienez. Hari aipatzen zenion *Zeruko Argia*, edo Xalbador Garmendia, edo euskal kulturaren munduko beste zeinahi izen kontu, eta Suediako bati esatea bezalakoxea zen. Berak beste mundu bat zekarren, halako pintura, bestelako musika, nobela beltza...

Esan dezagun euskal mundu horrekin lotura gehien zeukana Jon Juaristi zela. Akaso orain paroxismoraino iritsi den honetako fantasmak eta mamuak hortik datozkio.

Ruper Ordorika eta Manu Ertzilla apur bat atzerago eta isilago mantendu ziren, oso gazteak zirelako, agian.

Hala ere, denetan gazteena Joseba Sarrionandia zen eta esango nuke bera izaten zela gure bileretan azken hitza ematen zuena. Eztabaida askotan isilik egoten zen baina azkenean esaten zuen, bai baina honek esan duen bezala nik uste dut hau horrela dela. Eta beste guztiok, bada, bai, horrela izango da.

Nire idazle bizitzan edo, hobeki esanda, lehen aipatu dudan gerente moduko bitzita horretan, egin dudan gauzarik onena, Sarri erakartzea izan zen. Nik astero irakurtzen nituen haren lanak *Zeruko Argian* eta beti edukitzen nuen pentsamendu bera: honek ez du idazten besteek bezala, hemen bada zerbait.

Lanak eduki genituen hura non harrapatu jakiteko eta Deustuko Unibertsitatean lokalizatu genuen. Ruperren bitartez esan genion zergatik ez zen hurbiltzen gurera. Etorri egin zen eta nik uste horrek joko handia eman ziola.

Jon Juaristi ere han izango zen.

Juaristi, nik uste, gizon bikoitza da. Alde batetik oso gizon maitagarria da, oso atsegina, aurrez aurre bihotza emango lukeen horietakoa.

Baina Unamunoren ondorengo gehienek bezala, mamuak ditu barnean eta astindu egiten ditu. Baina mamu horiek Unamuno gaur egunean den bezain anakronikoak dira. Juaristik ez ditu bere mamuak sekula menperatuko. Ezin zaie irabazi, anakronikoak dira eta.

Juaristi balio handiko gizona da baina bere mamuek ez diote aterabiderik ematen, bere espiral intelektuala beherakoa da eta ez gorakoa. Hogeita hamar urte zituenean orain baino pertsona interesagarriagoa zen, intelektual interesgarriagoa ere bai.

Askotan horixe gertatzen da, mamu bat daukazu barnean eta jan egiten zaitu. Zure mamua da, zeure zeurea eta ez beste inorena. Sortzaile batzuen kasuan, mamu horrekin egiten den borrokatik kanpora daitezke gauza ederrak. Halako musika, poema edo bestelako sorkuntza ikaragarriak. Eta jendeak esan dezake zein den ederra. Baina, ez dakit, beste batzuetan ez du ezertarako balio izaten.

Unamunoren obsesio haiek bezala, erlijioa, kristautasuna... guztiz anakronikoak ziren. Estepako ikuspegitik soilik eduki zuten zentzu apur bat. Ezin irudika daiteke, garai berean, kristautasunaren agonia Frantzia batean, esaterako. Chateaubriand-ek askoz lehenago idatzi zuen horretaz guztiaz eta ederki lurperatuta utzi zituen mamu horiek. Unamunok, ordea, jo eta su segitzen zuen Gaztela aldean, irabazi ezinezko mamu anakronikoei zukua atera nahian.

Don Miguel ez duzu oso gogoko.

Artikulu bat aurkitu nuen lehengoan, honela hasten zen: “No intento herir la sensibilidad de nadie pero creo que en lo que a la filosofía respecta, Unamuno es una especie de Conchita Bautista”. Oso ona da hori, Conchita Bautista bezain anakronikoa baita Unamuno.

Baita Juaristi ere. Bere mamuen artetik PNVaz hitz egiten duenean, Sabino Aranaz dihardu oraindik. Zer esaten ari da? Edozein da hemen bera baino modernoagoa, anakronismo batean bizi baita. Eta ez da hortik inoiz irtengo. Ezin du bere mamuen kontrako gerra hori inoiz irabazi. Bere mamuek irentsitako pertsona da eta gaur egunean, nik berari diodan sinpatia egiazkoa den bezala, ukazio bat ere eragiten dit aldi berean.

Ez dut ezer jakin nahi.

Sarrionandia legoke beste muturrean.

Nik uste, Sarrionandiarekin askoz ere enpatia gehiago izan dudala. Bere mamuek eta nire mamuek seriotasun handiagoa zeukatela. Gainera, aurrez-aurreko sentimendua ere oso ona izan da gu bion artean. Lagunarteko harreman berezkoa eduki genuen. Egun batean ohe berean lo egitea egokitu zitzaigun, halako hurbiltasun bat egon izan dela adierazi nahi dut horrekin. Familiartekotasun bat ia. Hemen biziko balitz, seguruenez lagun handiak izango ginatke. Orain ere horrela sentitzen dut hori, nahiz eta askotan gure iritziak aski ezberdinak gertatu izan diren.

Mamuez dihardugularik, Sarrionandiari gertatu zaiona da herri honetako Mamu Orokorrak harrapatu duela. Errepresioak, kartzelak... Erraz esaten da, baina ikaragarria da hainbeste urte kartzela barruan egotea.

Mamua halako materialtasunik ez daukan zerbait izaten da azkenean, egiaren itxura duen arren, sekula gauzatzen ikusten ez duguna izaten da. Zentzu horretan esanda, askatasuna ere mamua da, emakume gorputzez irudikatua, ukitzera sekula iristen ez garena.

Zuzentasun edo desegokitasun kontuetan sartu gabe, Josebarena ere Prometeoren antzeko harrizko bola handia da, mendian gora. Harrapatu egin zuten, kartzelan sartu, ihes egin, deserrian ibili ihesean...

Jende askok hitz egiten du Sarrionandiari buruz, zein eginkizun egokitu zaion pentsatzen jarri ere egin gabe. Josebari sekulako lana tokatu zaio, bera ere mamu bihurtu baita zenbaitentzat. Hor zehar dabilen fantasma bat da, noizean behin liburu bat argitaratzen duena, berarekiko harremanak ia ezinezkoak dira... Berarentzat egoera izugarri latza da eta ez daukagu jakiterik zein izango zatekeen bere bidea beste kondizio batzutan egon izan balitz. Ziur dakiguna zera da, poeta oso ona dela.

Poesia asko eta asko irakurritakoa naiz. Nire harrokerien artekoa da hori esatea. Agian ez dut sekula idatziko poesia onik baina ezagutu, ezagutzen dut ia dena. Eta poeta

askok ez du Sarrionandiaren mailarik iristen. Nire aurretik ez da pasatzen poesia onik, ni konturatu gabe. Ez eta poesia txar bat ere. Poesiaren kritikari ona nintzateke.

Hans Magnus Enzensberger-ek oso artikulu zipotza idatzi zuen Sarri kartzelan bisitatu eta gero. Erreportaiak egin behar zituela eta joan zen hara eta gero erretratu injustua eta gezurteroa egin zuen. Bada, Magnus Enzensbergerri esanen nioke: nahi duzuna baina Joseba Sarrionandia zu baino poeta hobea da. Bai, egia da, poeta handizat hartzen dut Joseba.

Poeta eta lagun, beraz.

Berak bere burua gordetzeko joera izugarria eduki du beti. Etxean egon arren, ez dagoela ematen du. Ez da nabaritzen, ez dela ezer dirudi, ezkutatu egiten du nortasuna. Baina zer gertatzen da bere barruan? Nolakoa da neskekin? Zer pentsatzen du halako eta bestelako gaiei buruz?

Nik esan izan diot aurreneko bidea metaliteraturarena dela baina, aldi berean, oso bide mugatua ere badela. Egin ditzakezu pare bat liburu, edo hiru, baina ez hamar, esan izan diot. Metaliteraturako hamar liburu egin ditzakeen bakarra Borges da: liburutegi nazionalean bizi da, erdi itsua dago, ez da mugitzen batere... baina zure kasuan ezinezkoa da. Atea ireki behar diozu errealitateari eta esperientziari. Kartzelako esperientzia kontatu behar diguzu, deserriko esperientzia ere bai... horiek denak esan izan dizkiot.

Bide horretan hasia da, *Lagun izoztua* bere nobelarekin argi geratzen denez. Ez dakit noraino segituko duen baina uste dut ahalmen izugarriez behar duela jokatu borroka hori, bere errealitatea eta bere esperientzia azaltzearena, alegia. Obra memorialistiko bat hartu beharko luke bere gain eta nire ustez egingo du obra gogoangarri bat. Seguru.

4

Konpromisoaren gora beherak.
Poeta komunisten porrota.
Idazlea eta komunitatea.
Izagirreraren irudia.

*Bihotzaren erdira iritsi zait lehentxoagoan idazle organikoaren kontu hori.
Bitxia bada, behinik behin, norberaren konpromisoa modu horretan agertzea.*

Nik uste dut konpromisoaren gaia, beste gai batzuekin gertatzen den bezala, azkarregi eztabaidatzeagatik edo behar ez dutenek eztabaidatzen dutelako, zapuztu egin dela. Negargarria da halako gai ederra hondatuta eta alferrik galduta ikustea.

Nork zapuztu zuen gai hori? Nork eramán zuen gaur egunean daukan oihartzun txar horretara? Nire ustez doktrinarioak izan ziren horren errudunak. Alderdi komunistako partaide zenak, edo alderdi abertzale sutsu batekoa zenak, pentsa zezakeen konpromisoa bere Idazkari Nagusiak esaten zuena idaztea zela. Eta hori, jakina, ez da konpromisoa.

Horregatik galdu zen belaunaldi oso baten literatura Espainian, esaterako. Ez dut izenik eman nahi baina Espainiako Alderdi Komunistaren inguruan ibilitako askoren poesia txirristan behera joan zen. Zure partiduak emandako gaiak idazten baduzu, zu ere beherantz joango zara zure partidua beherantz doanean. Nik esango nuke Blas de Otero bakarrik libratu zela gertaera triste horretatik.

Celaya, Alberti eta horrelakoez diharduzu.

Bai, horiez guztiez. Celayak, hala ere, bazeukan alaitasun puntu bat: “Estoy tan loco como ese batería”. Igoal horrek salba dezake apur bat baina uste dut belaunaldi horretan Otero zela barruko indar gehien zeukana. Bere gauza batzuk maila oso handikoak dira.

Gurean izan al da antzeko galerarik?

Bai, Euskal Herrian asko gertatu da horrelakorik. Konpromisoa morroiaren zentzuan ulertu izan du askok eta askok, haren zerbitzura jarri dute euren idazkera eta ondoren askok utzi egin dio idazteari edo ez dute egundo ezer gehiago idatzi.

Hori kalterakoa izan da, zapuztu egin baitu idazlearen funtzioaren gaia, idazlea eta komunitatearen arteko harremanaz mintzatu ahal izatea, alegia.

Konpromisoaren gai horrek ederki emango luke, bada.

Nik behintzat hala sentitzen dut, komunitatea eta idazlearen artean badela harreman bat. Nik ez dut beste inola ulertzen idazlearen zeregina. Arestiren edo gure abeslarien zentzuan ulertzen dut nik: ipuina idatzi behar da, garrantzitsua da hori bai, baina Otxandiora edo ez dakit nora ere joan egin behar da hitzaldia ematera, idazteari buruz edo ez dakit zeri buruz mintzatzera, hori ere garrantzitsua baita.

Komunitatea eta idazlearen artean harremana egon behar duela uste dut eta egon badagoela ere bai. Ona da harreman hori egotea. Baina inola ere ez morrontza bezala ulerturik, halako buruk esan duelako eta haren zerbitzura. Hori kontzeptu erabat utilitarista eta motza litzateke.

Jakina, zure komunitatea oso handia baldin bada, zure harremana izan liteke hizkuntzarekin soilik eta kito. Estatubatuarra baldin bazara, esaterako, beste hamaika milaren artekoa zara. Baina Nadine Gordimer baldin bazara, eta Hego Afrikan bizi bazara, askozaz ere sendagoa da harreman hori zure inguruko komunitatearekin. Eta hori ona da, baldin eta pertsona libreen arteko ezkontza moduan hartzen bada.

Ez dakit zergatik baina konpromisoaren gaia ateratzen denean, Koldo Izagirre etortzen zait beti gogora.

Bai, ez dut Izagirre gehiegi aipatu orain arte baina bera ere poeta ontzat daukat. Ezker Abertzalea deitzen zaion talde horren ideologiarekin oso atxikia ematen du baina hori baino, beste gauza bat ez ote den daukat susmoa. Seguru asko bera oso kritikoa izango da dagoen lekuan dagoela, baina bere burua ezingo du ikusi, hala ere, multzo horretakoa ez den beste irudi batekin.

Idazle pijo batek hornidurarako erabiliko luke traizioa: nire gurasoak traizionatu ditut, aberria saldu dut... Izagirre halako irudi batean erortzeko arriskuaren beldur dela esango nuke. Nik ez dut irudikatzen Koldo Izagirre *El Diario Vasco*-n idazten. Eta ez ideologia kontu soil bategatik, ez. Nik uste dut denok daukagula geure ispiluko irudi bat eta Koldok ez lukeela halakorik jasango. Nire irudia ere ez zaio gustatuko seguruenez, kanpoan eta atzera eta aurrera ibiltze hau. Beste batzuen ere ez zaio gustatuko.

Denok daukagu hemen geure buruaren ispiluko irudi hori. Nik, esaterako, uko egin diot zenbait sariri. Ez baititu txoritxo batek mokoan ekartzen eta zure atean uzten, ez. Uko egin diot zenbait gauzari ez dudalako nire burua ikusten halakoari edo bestelakoari bostekoa ematen. Ez dudalako nire burua ikusten inguru zehatz batzuetan festari.

Koldoren kasuan ere antzeko zerbait da. Bere irudiari oso atxikia dago, oso lotua. Euskal Herriko intendentzian egon da beti, lan asko egin du, lan asko modu oso zabalduan eta nik uste, horregatik seguru asko, jendeak ez diola aitortu daukan balioa.

Nik ez dut uste Koldoren mailako idazle asko dagoenik Euskal Herrian.

Nik ere ez.

Errespetua diot Koldori.

5

Erresonantzia kaxarena.
 Makilaia eta amodio ustelak.
 Euskadi Irratia Bordelen entzuten da.
 Britainiarren adibidea.
 Nazionalistak versus abertzaleak.

Mintza gaitezen orain kultura eta hizkuntzaren politikaz. Euskara eta nazionalismoa binomio hori, beti joan al da eskutik?

Zalantzarik gabe denbora askoan behar-beharrezkoa izan da hori horrela izatea, nahiz eta ideologia abertzalea eta euskara, eta euskal kultura, ez diren beti lotuta egon. Hori frogatzeko aski da pentsatzen jartzea zergatik idatzi zuen Etxeparek XVIgarren mendean, mugimendu erromantikoa eta, beraz, mugimendu nazionalista baino mende osoak lehenago.

Baina bai, nazionalismoa eta euskara eskutik ibili dira, zorionez. Esan nahi dut, une batean ez badago hizkuntzari izaera soziala emango dion ideologia bat, etxeke zulotik atera eta fenomeno edo errealitate horri balioa emango dion zerbait, ez duela iraupenik izango.

Oso maiz aipatzen dut “erresonantzia kaxaren” adibidea, baina egia da. Hara, musika ez da egiazko musika izaten musikariak harian nota bat jotzen duenean, ez; musika, erresonantzia kaxak nota hori kanporatzen edo sozializatzen duenean gertatzen da. Ez lehenago.

Euskarak ere, sozializatu eta jendearengana iritsiko bada, erresonantzia kaxa behar du. Euskararen biologiak politika funtsezkoa du, boterea behar du, boterean baitaude mila gauza, dirua eta abar.

Lehenago erromantizismoak egin zuen, nolabait, euskararen alde. Elizak ere bai soziologiak hartara bultzaturik: nekazariak ez dakite erdaraz, egin dezagun otoitz euskaraz eta egin ditzagun euskaraz otoitz liburuak.

Hori apurtzen hasten denean, nazionalismoak garatu egiten du erne ibilitako mugimendu hori, indartu eta aurrera bidaltzen du eta ematen dio halako zentzu izugarri bat. Horri esker gaude gaur zu eta ni euskaraz hitz egiten.

Montevideoko hilerrira joaten bazara, lehenengo euskal emigranteen hilobietara behatu eta euskarazko izen garbi garbiak aurkituko dituzu, baina ez bestelako idatzirik. Hogeita hamaseiko Gerraren ostean joandakoek, ordea, izenaz gaineko zerbait badute hilobian idatzirik, poemaren bat edo. Horiek ideologia zuten, aurreragokoek ez bezala. Hori ona izan da hizkuntzarentzat.

Alabaina, onartu beharko didazu gaur ez dagoela batere erraza ideologiarik edukitzea, bakarra izan ezean, jakina.

Hori gure kontra dauden maiseatzaileen eta gaizki esaleen gezurra geure baitan barneratu dugulako gertatzen da. Esan daiteke masokismo mota bat bizi dugula, jendeari asko gustatzen zaiola kale kantoietan negar egitea. Halako joerak arbuigarriak egiten zaizkit. Nire ustez ez dugu inoiz onartu behar kritika gaizto bat, sekula kritika on bat egingo ez ligukeen baten aldetik datorkigunean.

Jakina, Madril aldeko hedabideez ari naiz. Irakurtzen dituzu hango egunkariak eta dena da pozoia, beneno hutsa. Orduan, hor konpon! Egin dezatela nahi dutena baina ez genituzke inola ere geureganatu behar mezu horiek guztiak. Ez genuke umorea aldatu behar horiek esaten digutenagatik.

Ez dago erraza, hala ere. Eurak dira demokrazia eta modernitatearen paradigma.

Kultura aniztasuna aipatzen digute baina hemen ezagutu ditugun falangistek, komunistek, sozialistek eta bertako oligarkiaren ideologoen, ez digute ezer onik ekarri. Horiek guztiak kultura aniztasunaren kontrakoak izan dira beti. Xenofoboak, klasistak eta abar izan dira. Horiek euskaldunoi ez digute sekula ezer emango.

Gelditzen zen bide bakarra abertzaletasun politiko mota bat zela esango nuke. Eta horrela joan zitzaigun ia mende guztia.

Gaur egun zer? Nire ustez abertzaletasun modu hori apurtu egin da. Zorionez edo zoritxarrez, ohiko ideologia hutsaren laguntzarekin bakarrik gaur ez dago ezer.

Adibide bat.

Idazle batek Londresen ingelesez idazten du eta Bartzelonara dator bere liburua aurkeztera. Zergatik? British Council-ek hori guztia ordaindu diolako. Nazionalismoa edo ideologia egon daitezke horren atzean, ez dut ezetzik esango, baina beste mota batekoa da gertaera hori. Normalagoa da eta ez da nazionalismo britainiarraren adibide gisara hartzen.

Hemen ordea, dena agertzen da beti elkaturik. Eta horrekin amaitu beharra dago. Oraintxe bertan, gainera. Gauza askogatik etorri zaio amaitzeko momentua. Nazionalista askok, euskararekin makilajea baizik ez baitu egiten. Bilbo batean, esaterako, euskararekin ez dute benetan ezer jakin nahi. Makilajerako bai, jakina.

Nire ustez euskaltzale asko dago abertzale ez dena, eta alderantziz, nazionalista asko dago euskaltzale ez dena. Beti harritzen naiz azken hauek euskarari aitortzen dioten maitasun ikaragarriarekin. Gero tutik ez dute jakiten euskaraz. Ikasteko asmorik ere ez dute erakusten batere. Benetako maitasuna baino gehiago dirudi gau baterako ligea.

Eta aukera horien artean, non jartzen duzu zeure burua?

Horretarako Aldous Huxleyren oinarritzko ikuspegia hartu behar genuke, nazionalista eta *patriot* bereiziz. Huxleyrentzat, eta ingelesentzat oro har, nazionalistak berekoikeria gehiegi du, neurri gabe goratzen ditu bere gauzak, bereak izate hutsagatik. Munduaren erdia bera dela uste du eta kanpotar guztiak mehatxutzat hartzen ditu. Xenofobia iturri izan liteke hori.

Baina gero bereizten dute horrekin batera patriotismoa, eta guk hemen lasai-lasai esan behar genuke ez naiz nazionalista baina abertzalea naiz, zentzu horretan esanda, noski.

Naziek Londresen gainean bonbak jaurti zituztenean, batzuk alemanen alde zeuden, hala ere. Beste batzuk esaten zuten erasorik gertatzen bazen, patriotak izango zirela. Beste batzuek ez zirela patriotak izango baldin eta ez bazituzten horretara behartzen... Muturreko halako egoeretara iritsiz gero, kontzeptu horiek oso mugikorrak izaten dira. Ñabardurak ugaltu egiten dira.

Nik azkenaldi honetan gero eta gehiago ikusten dut eraso izugarria. Ni ez naiz izango abertzalea non eta nire izate hutsari, euskaldun izateagatik, alegia, ez badidate horrelako jipoirik ezartzen. Baina ikusten baldin badut nire laguna euskaldun izate hutsagatik kartzelara eramaten dutela, nire alabari ukatzen diotela eskola, bada orduan ... abertzalea nintzateke. *Patriot*, bai horixe.

Ñabardura garrantzizkoa aipatu duzu.

Definizioen aldaketa hori egingo balitz, onuragarria izango litzateke Euskal Herriarentzat, zeren orduan, nik uste, ideologia pixka bat zabaldu egingo litzateke.

Hortxe kokatzen naiz ni orain, zeren burujabetza garrantzizkoa izanda ere, ez zait iruditzen independentzia politikoki onuragarria izango litzatekeenik. Nahiago ditut formula ahulagoak, kontsentsu handiagoa eduki ditzaketen horietakoak.

Jarrera indartsuak nik beste alor batean nahi nituzke: kulturarenean. Hor bai, hor irmoki jokatzeko asmoa dut aurrerantzean. Batere emoziorik ez dit ematen, geure buruaren jabe izango garela entzuteak. Geure buruaren jabe, zertarako? Frantzia Euskadi Irratia entzuten dute. Zergatik? Inon baino musika amerikar gehiago jartzen dutelako. Frantziako emisorek jartzen ez dituzten amerikadak jartzen dituelako entzuten da Euskadi Irratia Bordelen.

Oso askea zarela pentsatuz, beste planeta askoren satelitea izan zaitezke. Bada, ni ez. Barkatu. Nik nahiago dut benetako nortasun bat, eta ez hainbeste, pasaportearen araberakoa.

Gerra ostean, Andima Ibiñagabeitiak ere esaten omen zuen Pariseko Euskal Etxean bildu zirenak ikusitakoan: “Nazionalista asko eta abertzale gutxi dago hemen”.

Eskertzen dizut pasadizoa kontatzea, ez baita inon idatzirik egongo, seguru asko. Oraintxe bertan neronek bideratu dut Andimak egindako Virgilioren poema baten itzulpena. Hain da ederra! Baina, non egon da orain arte ezkutatuta testu hori? Nola egon da hainbeste denbora argitaratu gabe?

Horixe da nazionalistak nahi izaten duena, sinbolo bat, Virgilio ere euskaratua dagoela jakitea eta Andima hau eta Andima bestea esateko aukera edukitzea eta bla, bla bla. Sekula santan ez zaio burutik pasatuko itzulitako lan hori irakurtzekoa eta eguneroko bizitzan erabiltzekoa denik. Hori ez zaio buruan sartu ere egiten nazionalistari.

Zertarako behar dugu Irrati bat? Nik uste eguneroko bizitzan euskara ona entzuteko, elkarrizketa onak entzuteko eta abar. Hortik aurrerakoak utopia politikoak dira. Nik egitasuna eskatzen diot kulturari eta ez soilik balio sinbolikoa.

6

Kulturaren politikaz bi hitz.
 Politikaren kulturaz, beste bi.
 Makilajearen teoria.
 Sinpatikoak eta antipatikoak.
 Eskubideetan irmo.

Beti agertu ohi zara kezkatu-rik euskal kulturaren alde egiteko dagoen guztiarekin.

Bai, egoera oso traketsean bizi gara. Ez nuke izpiritu gerlaririk zabaldu nahi baina unea iritsi dela uste dut, zapatakada bat ematekoa. Euskal kulturgintzan gabiltzanok, gogoeta oso kritikoa egin behar dugu. Zer ari da gertatzen hemen? Zertarako erabiltzen dute euskal kultura?

Garai batean euskal kultura baztertua eta ukatua egon zen. Alde guztietan zuloak ikusten ziren. Bazegoen Marifé de Triana baina ez zegoen euskal kantaririk. Hori ikusi egiten zen. Bazeuden erdal idazleak baina euskaldunik ez. Bazegoen erdal antzerkia eta euskarazkorik ez. Bazeuden erdal komunikabideak eta euskarazkoak ez... Zuloak ikusi egiten ziren, hain baitziren agerikoak.

Orain ez. Ez da ikusten zulorik inon. Ez dirudi zulorik dagoenik ere, baina hasten zara apur bat ibiltzen eta hanka sartzen zaizu zulo guztietan. Dena zuloz beteta dago. Makilaje hutsa da orain arte egindakoa. Erakundeek, botereak, Jaurlaritzak, Udaletxeek, Diputazioek, hainbeste eta hainbeste funtzionariok zer egin du orain arte? Itxura zaindu. Makilajea. Sakoneko ezer konpondu gabe, sortzaileak aintzat hartu gabe, eragileak lagundu gabe.

Makilajearen errejistroa egiten dute, ez besterik.

Saso-ri betean ikusten zaitugu.

Eta euskararekin? Zu eta ni, eta beste batzuk, euskararen baitakoak gara, euskararen barnekoak gara baina, nire esperientziaren arabera, gure multzotik kanpora daudenak noiz egokitzen dira euskararekin? Noiz egiten dute topo euskararekin? Behin ere ez.

Makilajearen bitartez gu geto batean gaude. Iruditzen zaigu jendeak baduela gure berri eta topo egiten duela euskararekin, euskal kulturarekin. Hori irudikeria, espejismo bat baizik ez da.

Euskal kulturak gaur behar ditu irakasleak, edo banatzaileak, edo predikatzaileak. Ez gaituzte ikusi ere egiten. Ezin duzu etxetik irten eta lau kilometroko

bidea egin hamazazpi ortografia akatsek eta zazpi gramatikazkok begietatik asaltatu gabe.

Duela gutxi deitu didate Bilbon hitzaldi bat emateko eskatuz. Oso euskaltzaleak omen dira deitu didaten horiek baina hitzaldia erdaraz emateko eskatu didate, jende gehiagok ulertzen duela eta. Nire erantzuna: Bilbon ez dut hitzaldirik erdaraz ematen eta kito. Denak harrituta ezer ulertu ezinik.

Euskararekin kantu zahar hartakoa egiten dute. Zergatik ez zara etorri eskolara? El lunes galvana, el martes no da la gana, el miércoles tormenta, el jueves gogorik ez, viernes larunbat bezpera eta sábado domingo bezpera. Aski dute. Gero hor ikusten duzu poeta falangista bat, Udaletxeak ordainduta eta nik ez dakit nondik eta zertara ekarria.

Ondo dago Pepe Hierro ekartzea, edo García Montero. Baina zergatik ez Xabier Lete? Kulturaren funtzionarioek bai egiten dutela simulakroa.

Proposamenik bai?

Euskara erabiltzen dugunok planteamendua aldatu egin behar dugu, bai ideologikoa eta bai praktikoa. Gutxiengoa garela hasi behar dugu pentsatzen, nola beltzak Chicagon. Eta gero konturatu lagunak ere baditugula, batzuk sinpatikoak eta beste batzuk antipatikoak.

Baina ez batzuei eta ez besteei ez diegu utzi behar gure lekuan jartzen. Inork ezingo du gure izenean ezer egin, erreibindikazio taula oso trinkoa egingo baitugu, ondo pentsatutakoa eta behar beste zabaldua.

Gutxiengoen eskubideak erreklamatuko ditugu irmo, nola indioek berenak. Eta aireportuetan ez gaituzte gehiago irainduko hainbeste akatsekin. Testu liburueta itzulpenak ez dira gehiago izango alkimiaren aurkakoak, urrea hauts bihurtzekoak, alegia. Geure eskubideak erreklamatuko ditugu leku guztietan eta etengabe.

Antipatikoei bost axola zaie gure komunitateari zer gertatzen zaion, euskara galtzen den ala ez. Gurekin phatosik batere ez dute horiek eta gainera, eurek dute botere gehien, egunkari eta hedabide zabalduenak eta abar. Horiei ez eta kasurik ere.

Eta sinpatikoak? Horiek bai direla arriskutsuak. Jerjesen pasadizoko gauza bera gertatzen da hemen. Ibai batek bost zaldi ito zituenez, ibaiari hirurehun kanal egin zizkion eta erreka handi zena, ur txirripa bihurtu zuen Jerjesek. Hemen ere horrelaxe gabilta.

Adibide bat.

Bat ez, nahi beste jarriko dizkizut. Maila guztietakoak.

Antolatzen duzu gauza eder bat, Zelaia Saiakera Saria, adibidez. Diru eta antolakuntza aldetik lan handia ematen duena, baina 25 urterako plana denez eta saiakera kopuru polit bat aurkeztu denez, 30 hain zuzen, aurkezpen eder eta koloretsu bat egiten duzu Iruñean. Hala ere, kale. Bai, kale.

Sinpatikoen artetik, Radio Euskadi ez da agertzen, zeren eta nola euskaraz den, hori donostiarrentzako kontua da. Donostiarrak ez dira etortzen, Nafarroan delako aurkezpena, eta horrela.

Antipatikoen artetik ez da inor agertzen, jakina. Izan al da hildakorik, ala?

Euskadi Irratia eta Euskal Telebistako jatorrak bakarrik agertzen dira. Zertara? Txistek egitera, horretaraxe. Batzutan asaldatu egiten naiz baina badakizu zer galdetu

zidaten Zelaia Sarien aurkezpenean? Planeta Sariaren pareko zerbait ote zen. Ez dakit telebistan ikusi zenuen nire erantzuna.

Batzuetan haserretu egiten naiz, baina nola ez naiz, bada, haserretuko? Hainbeste lan hartu, 25 urterako saiakera ateratzeko plan bat egin, bilerak antolatu, lana egin eta halako pitokeriak entzuteko. Batzuetan zikoitza sentitzen naiz. Erre ere egiten naiz, zer nahi duzu, bada.

Garan. Egunkarian eta Deian, hor bai. Horietan egiten diote leku albisteari. Hor ikusten da oraindik zein garrantzia daukan bultzada politikoak. Literaturaren alde ideologikoki zerbait egin behar dela uste dute eta txiripaz iristen da lekuren batera Zelaia sariena.

Zatiketa hori apurtu egin behar da. EITBk ere ezin du funtzionatu orain arte bezala. Radio Euskadi horretan sekulako kirtenkeriak entzuten dira euskarari buruz, “...*amatauta, sí, amatao, porque en una época en castellano apagar se decía amatao y tal..*”. *Ah sí, no me digas*. Baina nondik ateratzen dituzte horrelakoak? Ez al dago tartekorik ezer? Teruelgo fakultatetik ala zer arraio?

Ematen duzu Ugaldereen omenezko hitzaldi bat eta biharamunean Diario Vascok zure hitzak kakotx artean ateratzen ditu, baina erdaraz. Zuk euskaraz egin duzu, baina hori ez da albistean ikusten. Baina zer uste dute? Ni eskubideak dituen gutxiengo bateko partaidea naiz, ez daukat zertan onarturik nire hitzak modu horretan trakesturik beste hizkuntza batean argitaratzea. Protestatu eta epaiketara eraman behar ditugu halakoak, behin eta berriz, behin eta berriz. Etengabe.

Jakiten duzu Lehendakaria Txekian dela bisitan. Oso ondo. Justu hilabete batzuk lehenago, Prahako literatur aldizkari dotore batek ale monografikoa eskaini zion euskal literaturari. Hor ere tartean izatea egokitu zitzaigun: argazkiak lortu, artikulua bildu, poemak itzuli, kontaktuak eskaini... jende mordo batek egin zuen lana hori aurrera ateratzeko. Lehendakariak aldizkari horretatik ehun ale erosi behar zituen eta gero politikari eta enpresa-gizon txekiarren artean banatu esanez, “Hara hauxe da gure literatura. Ikusi. Ezagutu”. Baina ez, eskumakila bat oparitu zion Havel-i eta kito.

Aholkatzeko baten bat alboan eduki izan balu, seguru asko egingo zuen Lehendakariak. Baina zein jende dabil hor? Sinpatikoak? Antipatikoak? Horiek ezer ez dakite gutaz. Makilajerako soilik behar gaituzte, dekorazioarekin nahasteko.

Konponduta gaude.

Bada, bai. Azkar baino lehen egin behar da hemen zerbait. Euskal kultura guztia simulakroa ote den gabilza. Baliteke, bai. Baina Laboa batek Bilbon erdal kantari askok eta askok baino jende gehiago biltzen du. Ez al dute hori jakin nahi? Ez al dituzte ratioak ezagutu nahi? Hemen hizlari askok Espido Freire eta Freixenetjale guztiek baino hobeto funtzionatzen dute. Zer gertatuko litzateke Sarri batek hitzaldia emango balu Bilbon? Zenbat jende joango litzateke? Eta, hala ere, Bilboko euskaldun berriek ez dutela euskaraz ezer aurkitzen esaten dute. Eskerrak sinpatikoek agintzen duten. Hala ere nik ederki ikusten ditut horiek Toledoko kazerria batean. Ez lukete paper txarrik egingo.

Ene ustez bi arimako jendea da hori. Filisteoak. Maitatzen gaituztela esaten digute baina ez digute ezertan laguntzen. Geu gaude haien zerbitzurako.

Sinpatikoak horrela eta antipatikoak okerrago. Zerbait egin beharko dugu, berandu baino lehen.

7

Kohete bat naiz.
 Kapsula handi bat botako dut aurki.
 Hau amaitu da.
 Erretiratuaren ametsak.
 Extraespazioaren lehen aipamena.

Orain arte ez dugu zure lan literariorik aipatu.

Nire ustez zikloak erre eta aurrera egiten duen idazlea zara. NASAko espaziuntzi bat dirudizu, atzean kapsulak utziz zoazena. Orain arte, hiru.

Telepatia eduki dugula dirudi. Azken irudi hori, kapsulak botatzen joatearena, neuri ere pasatu zait gogotik. Baietz esango nuke, halaxe dela baina ez dakidala ez ote den horrela gertatzen geure aldartearengatik, geure bizitzarengatik, geure inguruagatik. Literaturaz kanpoko gauzengatik ere izaten dela hori, alegia.

Egia da, halaber, hiru mundu bezala izan ditudala, ziklo moduan kanporatu direnak, edo bat agertu denean bestea ezkutatu egin da. Halako zerbait.

Jaurti zenuen lehenengo kapsulan experimentalismoa eta abangoardia zeuden eta bere izena Ziutateaz zen.

Askotan jarri naiz pentsatzen gure hasiera haiek zergatik izan ote ziren abangoardistak. Seguru asko, errazagoa zelako halaxe izatea bestela baino. Bilbon errazagoa zen Tristan Tzara-ren antzerki lan bat ikustea, edo poeta surrealisten emanaldi bat entzutea, Arthur Miller-en *Biajante baten heriotza* ikustea baino.

Gauza arraro eta harrigarriak, arruntenak balira bezala iritsi zitzaizkigun eta guk halaxe irentsi. Subliminalki mezu bat jaso genuen, Tzara munduko idazlerik arruntena zela, surrealistena gauza arras normala zela. Horrek guztiak eragin handia edukiko zuen gudan.

Abangoardiekin lotuta joateko joera eduki nuen hasieran, poemetan, antzerkian... batez ere *Ziutateaz*-en ikusten da hori. Beranduago *Groenlandiako lezioan* ere agertzen da horren usainen bat. Baina bai, halako batean, mundu hori arrotza egiten zitzaidan, kapsula atzean utzi eta kito. Adinagatik? Egoeragatik? Ez dakit.

Askori entzuten diot nik beti liburu bera ari dela idazten. Ni ez. Ez eta pentsatu ere. Begira Picasso-ri, adibidez, zenbat aldi, ziklo eta modu eduki zituen bere artegintzak? Artista handienei begiratuz gero, normalena izaten da aldi ezberdinak agertzea haien lanetan.

Bigarren kapsulan aldi fantastikoagoa eta narraziogintza zeuden. Obabakoak deitzen da kapsula hori.

Obabakoak idazteko orduan, bidaia barrutik kanporakoa izan zen. Sortu nintzen tokian sortua nintzelako eta horrek eragin itzela eduki zuelako nigan.

Jendeak errazegi esaten du: Atxagak mundu errurala erabili du, baserri eta mendi girokoa. Dena ulertuko balu bezala. Hori entzundakoan nik esaten dut: Ah gizajoak! Jakingo bazenute benetan zer dagoen mundu errural horren atzean! (basamundu?)

Esan nahi dudana da jendeak askotan klitxe bidez ikusten dituela askoz ere konplikatuko diren gauzak. Pentsatzen dute klitxea dela benetako errealitatea eta nik klitxeari buruz idatzi dudala. Hori ez da horrela, inondik inora.

Hautzaroari begira jarri nintzenean, niretzako unibertso baten deskubrimendua egin nuen. Hori oso garrantzitsua izan da nire bizitzan. Ez nabil, noski, klitxeari buruz. Bai zera! Bederatzi-hamar urterekin, baserriz baserri joaten nintzen aitarekin argindarra kobratzera. Mundu hura ikusten nuen, abereak eta animaliak, komunik gabeko etxeak, argirik eta ur korronterik gabekoak askotan...

Diario Vascoko kazetari baten antzera egin dezakezu orduan gogoeta, mundua 36 orrialdetan zatitzen dela pentsatuz: orrialde oso bat edo erdia da mundu hau eta bestea da mundu errurala. Hori gogoeta ergel bat da. Gauzak ez dira horrela. Hau unibertso bat da, eta ez beste zerbaiten zatia.

Nik unibertsoa diodanean unibertso osoa esan nahi dut.

Argi pittin bat gehiago, mesedez.

Hemen neska, maitasuna edo enamoratu hitzak esaten ditudanean, gauza bat esaten dut eta beste mundu horretan, neska esatea, maitasuna esatea, enamoratu esatea beste gauza bat esatea zen. Nik hemen esaten dudanean hil, gauza bat da, eta han beste gauza bat. Nik hemen esaten dudanean Jainkoa, gauza bat da eta han beste bat. Nik hemen esaten dudanean, esate baterako, sorginak, niretzako gauza bat da, eta han beste bat. Zeren nik jende asko ikusi baitut serio-serio esaten niretzat ameskeria zena, errealitate soila deskribatzen zuen bitartean.

Obaba izan da unibertso hori. Napoleseko arkeologia museoko freskoetan, Pompeia eta Herculanoetan, orain dela 2000 urteko irudi horietan agertzen dira nik txikitan ezagutu ditudan haur jolasak. Gaur, ordea, jolas horiek desagertuta daude eta esaten duzu, mundua asko aldatu da!

Berger-ek (?) herri kulturaz egin zuen liburu ospetsu bat. Bertan esaten zuen hilda zegoela mundu zahar hori. Nola esan dezake hilda dagoela nik ezagutu baldin badut?

Jendeak Obaba fantasia dela dio. Baina fantasia hitzak gauza bat esan nahi du herriko medikuarentzat eta beste bat bere pazienteentzat. Gauzak funtzio baten pean daude, ezerean eta inoren araberririk gabe. Haurrarentzat fantasia gauza bat eta nekazariarentzat beste bat. Zorabio batean sar zaitezke horrela pentsatzen jartzen bazara. Fededun batentzat Jainkoa ez da mamu bat baina sinesgabe batentzat bai, mamua besterik ez da. Horrela hasten zara pentsatzen eta munduak beste neurri bat hartzen du, beste unibertso bat agertzen da. Oihanean bezala, apartatzen duzu kanabera zerrenda bat, eta zast, beste planeta bat daukazu aurrean.

Niretzat horrelako zerbait izan da Obaba. Ikusitakoaren ehuneko hamarra agertzen dela nire lanean? Bada, bai.

Hirugarren kapsulak inguru hurbilaren kutsu errealistagoa zeukan. Gizona bere bakardadean joan zen barnean.

Lehenago ere aipatu dugu komunitatearen partaide izatearen kontua. Horrek badu zerikusirik honetan. Hala ere beste bidaia hau kanpotik etorritakoa da, gertaerek agindutakoa. Lagunak dituzu kartzelan eta harremandu ezinik zabilta, hilketa bat ikusi baldin baduzu... horrek guztiak bere eragina du, noski.

Bai, beraz, esan liteke *Gizona bere bakardadean, Zeru horiek* eta abar, ziklo errealistago eta formalago batekoak direla.

Orain, ostera, neure buruari heldu diot eta beste liburu bat egiten ari naiz, honekin guztiarekin amaitzeko. Orain arteko guztia batu, azaldu eta berrerabiliko dut hurrengo liburuan. Horixe izango da hurrengo kapsula.

Hiru bideak liburu bakarrean?

Ez, azkeneko biak batez ere. Experimentalismotik ez du hainbeste izango, zeren abangoardian ibiltzeak egiten duena idazten erakustea baita, eta hori beti agertuko da erta batera edo bestera. Orain egiten ari naizena beste gauza bat da. Obaba egongo da, *Gizona bere bakardadean* egongo da, baina detaile txikiak ere egongo dira, Blas de Otero ere agertuko da, esaterako.

Kapsula handi xamarra izan beharko du, orain arteko guztia sartu nahi baitut bertan hutsetik hasteko berriro. Nire bizitzako atal hau guztiz itxi eta bizitzari beste buelta bat eman nahi diot.

Arraioa!

Hasieratik hasiko gara berriro. Poliki-poliki. Nik uste dut asko aldatuko dela nire zeregina eta nire bizitza. Noizbait aipatu izan dut erretiratze kontu hori, eta liburu hau halako zerbait izango da. Poz handia ematen dit erretiratu egingo naizela pentsatzeak.

Hiltzea baino, berriro jaiotzea dirudi, ordea.

Nire ustez alaitasun bat badago honetan. Galdu egin nahi dut nire orain arteko irudia. Ametsetan esnatzen naizenean, beti nago hitzaldiak ematen han edo hemen. Beti lehian nabil. Hori amaitu da. Idatzi nahi dut, baina beste inguru batera.

Nola da hori?

Oso hurbileko sentitzen dut poesia. Oso hurbil sentitzen ditut gogoeta eta saiakera. Fikzioa ere bai. Ez dakit zer eta ez dakit nola, baina ez behintzat orain arte bezala. Ikusiko nondikan...

Presioetatik libre, orduan.

Uste dut zer edo zertarako balio behar dutela azken hogeita hamar urte hauek. Zinez krisi asko pasatu dut, askotan ez zait gustatzen neure burua nola ikusten dudana, zer egin nuen hemen? Nola egin nuen hori han?

Hori guztia jasotzea da kemena. Jaso, aztertu eta paperarekin egiten den bezala, zehaztu, urritu eta gorde. Ia zer ateratzen den guzti horretatik. Etorkizun horrek

erakarmena badu niretzat eta ez oraingo errealitate honek: lan eta lan, gauza bat ezin bukatu eta hitzaldi bat han eta beste bat hemen.

Ez dakit zer gertatuko den baina pum!, kapsula handia bota eta alde egingo dut extraespaziora.

8

Nobelaren balioaz.
 Gizartearen tontotzeaz.
 Gazteak kontserbadore.
 Esku batek eman, besteak kendu.
 Extraespazioa berriro.

Orain arte entzun dizugunaren arabera, pentsa liteke zuk ere bat egiten duzula nobelaren balio ezarekin. Poesia, saiakera, memoriak... aipatzen dituzu, ez ordea nobelarik.

Literaturan eta eginkizun artistikoetan oro har, beti bada *Big Brother* moduko zaindari bat edo antzeko zerbait. Izan daiteke gizartea, merkatua edo nahi duzuna, baina sekulako presioa egiten dio kanpoko aldetik bakarrik dabilen sortzaileari.

Adibide bat jartze aldera, Ingalaterran, XIXgarren mendeko aldi batean, hamar nobelatik bederatzi, hiru tomoz osatutakoak izaten ziren. Jendeak horrelaxe izan behar zuela uste zuen, hiru tomokoa. Baina, halako batean, liburutegi publikoek abisu bat zabaldu zuten hiru tomotan egindako liburuak ez zirela komeni esanez, eragozpena baizik ez zela liburuzaintzat eta. Zenbait idazlek kasu egin zion ohar horri eta tomo bakarreko nobelak idazten hasi zen. Berehala etorri zen agindua lehenago abisu soila izan zenaren lekuan, liburutegi publikoetan hiru tomoko nobelarik ez zutela gehiago onartuko esanez. Hiru urteren buruan, amaitu egin zen hiru tomotan idazteko era hura.

Azkar beharrez adibide horixe jarri dizut, askotan literaturaz kanpoko gauzek zenbat eragiten duten erakusteko.

Bai baina horrek ez du argitzen gaur nobelak bizi ei duen krisia.

Dena dela egia da nobelak garai hobeak ezagutu dituela. Hemeretzigarrenean nobela dena zen. Ez zegoen telebistarik, ez zinerik. Nobela zen munduaren errepresentaziorik ederrena eta onena. Oroitu, bestela, Balzac-en kontu hartaz: ni naiz Frantziako notarioa. Gaur nork esan dezake halakorik? Nork esan dezake akta jasotzen ari denik?

Seguru asko gerren kausaz hondatuko zen hori guztia, zilipurdikatu egingo zen baikortasuna eta leku egingo zitzaien iraultza goseei, abangoardiei eta abar. Bitxia da nola Man Ray-ri aberatsek ordaintzen zizkioten bere filma dadaista haiek eta nola gero Parisen aretoak jendez gainezka egoten ziren erokeria haiek ikusteko.

Gure garaian ere bazeuden uste kanoniko batzuk. Mundu guztiak irakurri behar zuen Lezama Lima-ren *Paradiso* edo Joyce-ren *Ulises*. Orain, ostera, nobela krisian dagoela dio askok eta askok.

Egia da kanpotik presioa dagoela, erak eta moduak finkatu xamarturik egon daitezkeela, hainbeste ibiltako eremura ezer berririk ekartzea oso zaila dagoela. Zinea eta telebistaren kariatz, jendea era batera hezita dago nolabait eta, izatekotan, eraiketa tradizionalerako nobelak nahi ditu ikusi, *best seller* tankerakoak eta. Idazleak, aldiz, haratago nahi izaten du normalean. Gauza bera gertatzen da kantuekin, entzuten duzu

arrakasta duen horietako bat eta entzun dituzu bost mila berdin. Infantilizazio bat dago, bai. Beti ipuin berbera entzun nahi da.

Duela oso gutxi, mozkortu egiten nauten esaldi horietako bat irakurri nuen Euskal Herriko egunkari batean. *Harry Potter*-en arrakastaz ziharduen: “Azkenean haur literaturak bere duintasuna lortu du”. Hori irakurritakoan, gauzak nola dauden pentsatu behar duzu derrigorrez. Duintasunaz ari da, egiazki beste gauza bat esan nahi duenean: “Azkenean idazle batek lortu du Ingalaterrako Erreginak baino gehiago irabaztea”. Zorionak! Baina duintasuna, lehenagotik ez al zeukan, bada, duintasunik *Aliziak*?

Nola dauden gauzak, nola dagoen presioa. Gizartea analfabetizatze baterantz doala dirudi eta horrek polarizazioa ekarriko du. Gutxiengo batek nobelak irakurriko ditu eta bere bidetik joango da eta gehiengo batek, aldiz, telebista ikusiko du, betiko filmak ikusiko ditu, betiko tiroekin, betiko autoekin eta filma espainola bada, aktoreak agertuko dira bularretakoak eta kuleroak erakutsiz, hori derrigorrezkoa baitu film espainol batek.

Une honetan neuk ere nahiago dut poesia edo saiakera irakurri, nobela baino. Nobelari joera memorialistikoa eskatzen diot. Dena dela, aipatu ditugun kanpoko presio horien aurrean ez etsitzea da kontua eta nork bere bidea egitea. Nik ez dut etsiko.

Baina pairatu, pairatu beharko dituzu presio horiek, zeuk ere.

Nire ustez lehenengo legea norberaren munduari erantzutea da, nor bere tokian egotea. Harrokeria litzateke pentsatzea presio horiek ez dutela enegan eraginik izango. Oroitzen naiz nola behin pintoreen arteko eztabaida bat piztu zen eta haietako batek esan zuen bere koadroek asko balio zutela baina horrek ez zeukala eraginik bere lanarengan. Lucio Muñoz-ek erantzun zion orduan ez hasteko jatorkeriak esaten, diruak eta kanpoko presioak, azken finean, beti eragiten duela eta.

Zure amak esan diezazuke: seme, zergatik ez duzu Planeta irabazten? Auzoei asko gustatuko litzaieke hori eta niri ere bai.

Hor kanpoan, literaturatik at, gauza asko daude, dirua, zure amaren maitasuna, auzoena...

Gaztetasuna ez ote zaren galtzen ari.

Baliteke, baina nire ustez gaztea kontserbadoreagoa izaten da. Nik fede handia diot urte batzuk eginda bere nortasuna eusten dionari. Gaztetan zalaparta egin ohi dugu, hala egiten genuen behintzat, baina gazteak oso kontserbadoreak dira jeneralean.

Gonbrovicz-i ikasi diodan gauza ederrena horixe da, ez dagoela gauza erreakzionarioagorik gaztea baino. Egiazki hala da. Ez daukate errealitatearen galdeketa, ez daukate dirurik irabazi beharrik, umerik hazi beharrik... oso aske bizi direla, edo ginela, ematen du, neu ere sartzen bainaiz horretan. Baina gero zer?

Batek heavy bakarrik entzuten duela, besteak futbolaz baizik ez duela hitz egiten... oso aspergarriak egiten zaizkit. Iruditzen zait errebeldia eta nortasuna argiago agertzen direla adin batetik aurrera. Hogeitaz urterekin oso asoziala nintzen, ez nuen egiten gauza bat zuzen. Baina oraintxe, adin honetan nago neure baitan eta orain du garrantzia gizartearen zenbait eragini aurre egiteak, norberarenari eusteak.

Gaztetasunaren aurka?

Ez, ez da hori. Hara, Jon Juaristik ere esaten zuen Atxaga asoziala zela gaztetan, gero kontrakoa esan badu ere. Baina hori normala zen, galduta geunden, abertzalismoarekin lotuagoak ginen, joaten ginen asanbladetara, hitzaldietara eta horrelakoetara eta beti eskandalua sortzen genuen. Zergatik hori? Egoerak bultzatuta, zalantzarik gabe, eta galtzeko ezer gutxi geneukalako.

Orain sari handi baterako etortzen badira zure bila eta ezetz esaten baduzu isilean, inork ezer jakin gabe, horrek ez al du gehiago balio? Auzoan denak poztuko lirateke, amatxo ere bai baina zuk ezetz esaten duzu, ezetz esan beharra daukazula sentitzen duzulako. Eta kito.

Hori da benetako errebeldia. Horri eustea bai dela benetan zaila.

Zeuk atera duzu sarien gaia.

Atzekoz aurrera erantzungo dizut berriz ere. Aldaketa handia egiteko gogoz nago, nire irudi publikoa aldatu nahiko nuke, zentzu batean behintzat. Atxaga ezkutatu nahiko nuke. Hau Atxaga izan zen!

Hara, euskaraz idazten hasi, gero itzulia izan, han eta hemen agertzen hasi, eragin sozial apur bat edukitzen hasi, ospe apur bat lortu, sari hau eta bestea irabazi... zenbat gauza on eman dit horrek guztiak? Ikaragarri!

Eta ez alde materialari begiratuta bakarrik. Bai, etxe hau edo auto hau ere eman dit horrek guztiak, baina baita irakurle zoragarri bat Abaltzisketan, Italian edo Estatu Batuetan ere. Jende oso interesgarria hurbildu zait, maitagarria, gauza asko eman didana. Baina esan gabe doa, bizitzan beti gertatzen baita horrela, esku batek emandakoa beste batek kentzen duela.

Akituxe zabilta, beraz.

Neke bat daukat bai. Irabazleak beti eragiten du zerbait bere aurka. Irabazleak badu beti zerbait itsusia, halaxe da hori. Bere kontrako justizia kosmiko bat dago. Galtzaileak, ostera, badu beti halako edertasun bat. Jende askok balioa ematen dio galtzaile izateari.

Lautréamont-ek bere bizitza guztian hogeita hamabi liburu bakarrik saldu zituen. Orduan surrealisten esan zuten Lautréamont izan dela historiako idazle onenetako bat, derrigorrez irakurri behar zen horietako bat, eta jendea bere lanera erruz hurbildu zen. Galtzailea zelako soilik. Badago galtzailearekiko halako lilura eta maitasun bat, irabazleak piztu ezin duena.

Eta jakina, nik oso argi sentitu dut halako gizarteratze handi bat, nire izenaren halako zabaltze bat, baina aldi berean gauza negatiboak ere ekarri ditu, itsasoak erresaka edukitzen duen bezalaxe.

Gizon markatua zara.

Bai, eta zer egin nezake?

Alde batetik nire irabazle papera onar nezake eta muzin egin sor ditzakedan antipatiei. Etorri diren edo etor daitezkeen sari guztiei baietz esanez egiten da hori: Príncipe de Asturias, Vasco Universal, Sabino Arana... Baina bistan da hori ez dela nik hartu dudana aukera.

Beste alde batetik, tentsioarekin jarrai nezake eta pitinka-pitinka nire lekua galtzen joan. Zeren eta egia guztia esan behar bada, nik duela denboratxo bat joera politiko

jakineko bat hartu izan banu, leku askotan ikusiko ninduzuen gaur. Baina beste puntu honetan nago, ez atzera eta ez aurrera.

Eta orain dator txikitatik asko gustatu zaidan jolas bat: botoi gorriarena. Botoi gorriari sakatzen diozu eta zast!, extraespaziora egiten duzu salto. Jauzia oso arriskutsua izan daiteke, bertan behera suntsituta gera baitzaitezke baina ongi ateratzen bada...

Bai, nire asmoa botoi gorriari ematea da eta extraespaziora iristea. Horixe da nire oraingo asmoa, zehatz, oso zehatz adierazita.

9

Ez dago belaunadirik.
 Denbora da kontua, ez espazioa.
 Berriro extraespazioa.
 Irakurleekin harremanak.
 Idazlearen lanbidez.
 Txikiaren arazoak.
 Kritikaren zeregina.

Nola ikusten duzu zuek bostok, Izagirrel, Lertxundi, Saizarbitoria, Sarrionandia eta zuz, zeu, elkarrizketa liburu berean sartzea? Belaunaldi batekoak ote?

Ezetz esango nuke. Gu boston hautapena zure memoriak eta nahiak bakarrik egin dute. Adinez ere ezberdinak gara. Zerbait izatekotan gu pasabide bat izan gara edo, hobeto esan, guk eta gurekin batera beste kide askok, pasabide moduko bat egin dugu.

Nondik norako pasabidea?

Eskailera modukoa ere izan liteke. Ia ezerezetik, gauden lekura pasatu gara. Gu baino lehenagokoak, Aresti, Mirande, Ugalde eta beste batzuk, pioneroak izan ziren. Muturrak apurtuz idatzi eta argitaratu zutenak. Haiek irabazi zituzten lehenengo batailak eta guretzako errazagoa izan da gero.

Mitxelena ere ez dugu ekarri gogora eta aipatu egin behar litzateke, eta ez soilik hizkuntzalari moduan. Bere iruzkin literarioak, esaterako, oso onak ziren.

Bada, horiek guztiak iritsi ziren Louisianara, dena zingira eta sasia zen lekura, eta zeharkatu egin zuten sugez eta krokodiloz beteriko lurraldea oinarrizko kanpamendu batzuk jartzeko. Gu kanpamentu horietatik abiatuak gara, horiek jarritako harlauzetan oinarritu gara eta, akaso, guk egin duguna izan da horri guztiari errealitate moduko bat ematea eta zabaltzea.

Hara, orain liburuak txindurriak adina argitaratzen eta erosten dira. Nork idatziak diren ere ez duzu jakiten askotan. Irakurtzen ez duenak ezin esango du, euskarazko libururik ez dagoelako ez duela irakurtzen. Beste zerbaitengatik izango da hori.

Prometeo aipatzea askotxo izango da baina bai, guk ere bultza egin diogu harriari eta kalera eramán dugu. Jalgi hadi plazara!

Baina zuek bostok multzo berekoak zarete, ala ez?

Ez dut uste. Nire ikuspegitik begiratuta oso ezberdinak gara. Jatorriak, aldarreak... denak ditugu ezberdinak.

Literarioki ere bai?

Baita ere. Batzuegan oso agerikoa da influentzia frantsesa. Tradizio ezberdinak maite izan ditugu. Lertxundi Italian bizi izandakoa da eta italiarrak dauzka present, esaterako.

Azken finean, zein da hemen kontua? Nork bere ahotsa izatea. Lehen begiratuan ezagutu daitekeen ahotsa edukitzea. Baroja, esate baterako, ez da irakurtzen istorio hau edo bestea kontatzen duelako soilik. Irakurtzen bada, bere poetika propiala daukalako da. Ez dagoelako beste Barojarik inon, bakarra delako, alegia. Horrek bakarrik irau dezake denboran, egile baten ahotsak.

Hori du funtsezkoa idazleak, bere poetika lortzea. Horretan denok bat zatozte. Hala ere Sarrionandiak dio hori lan nekeza dela eta zuri ere kostatzen zitzaitzula idaztea. Hiru minututan irensten duela irakurleak, ordu askotako lana.

Egia da gauzak hiru minututan irensten direla baina irakurlearengan zerbait geratzen bada, balekoa da. Nik *Trikuarena* idatzi nuenean, esaterako, gizon bat etorri zitzaidan Donostian poema horretan euskararen egoera zein ondo jasotzen dudan esanez. Seko harrituta geratu nintzen, nik gogoeta metafisiko bat egin nuen lekuan, berak hizkuntza aldarrikapen bat ikusi baitzuen, beste batek beste gauza bat ikus dezakeen bezalaxe. Horrelaxe da hori, eta oso ona da gertatzea.

Hala ere, idazleak bere lanak denboran irautea du saririk handiena. Espazioari irabaztea errazagoa da. Zuk eduki dezakezu denda guztietako erakusleihu guztietan zure lana denboraldi batez. Espazioa mendera dezakezu, epe mugatu batean, behinik behin. Denbora da kontua, ordea. Baten batek zure lan hori hemendik hogeitaz gogoratzen badu, eta beste egoera baten aurrean gogoeta egiteko balio badio... Horixe da idazle batek gehien estimatzen duena, horixe da gehien harro dezakeena: bere lanak denborari irabaztea eta berak idatzitakoa gogoangarri gertatzea

Sariez aritu zarenean hizketan, irakurleen edo jendearen maitasuna faltako balitzazu bezala mintzatu zara. Aitortu zaizun onarpenak kalte egin izan balizu bezala.

Ez da hori hain juxtu baina bada, hala ere, horren antzeko zerbait. Lehen esan dudan bezala, esku batek kendu egiten dizu besteak emandakoa. Orain dela hamar urte ez nuen esango baina orain, marmarra handia da: ez dakit zenbat irakurle ditudala, ez dakit zenbat hizkuntzara itzuli dutela nire lana, ez dakit zenbat sari irabazi ditudala... guzti horrek zer edo zer txarra sortzen du, benetan.

Baina, egia, nahiko ondo onartzen dut, hala ere. Batez ere botoi gorria sakatu eta extraespaziora joan behar dudala erabaki dudanetik eta hori guztia iraganean geratuko dela pentsatzen dudanean.

Irakurlearekin nolako harreman gorde izan duzu?

Beti esan izan dut irakurleagoa ez zela berez etorriko gugana eta hori sortu egin behar zela. Predikatzailerak izan beharra zegoela desertuan. Apustu handia egin dugu horretan, nik neuk ere bai, hitzaldiak han-hemenka emanez beti, irakurketak eginez...

Gauzak diren bezala esateko, Bilboko jendearen ingurukoa sentitu izan naiz beti. Algortan hitzaldi bat ematea niretzat, festa batera joatea bezalakoa zen. Hau “gurea” da, esaten zutela sentitzen nuen, halako maitasun eta onarpen bat ikusten nuen, nireganako.

Donostian, aldiz, beti tentsioan. Hitzaldi bat ematera joan eta begirada zorrotzak handik eta hemendik... Hala ere, egia da, Gipuzkoako bide zidorretan, mendi zulo horietan, oso gustura ibiltzen naizela.

Idazleak liberaturik bizi behar du, beraz. Ez du beste ofiziorik behar.

Hori esatea askotxo izango da baina egia da Euskal Herriari mesede egin diola zenbait idazle, idazle huts izateak. Esate baterako duela hogeit hamar urte Mungiara joan banintzen eta han literaturaz hitz egin banuen, bada, horixe gehiago, zerbait entzun dute literaturaz. Ni ez banintz idazle izan eta horretara jarrita egon, hori ezinezkoa zatekeen.

Hala ere, ez dut uste idazle profesionala izateak obraren kalitateari derrigorrez lagundu behar dionik. Kantitateari bai, ordea.

Kafka eta Pessoaen adibideak ditugu hori ilustratzeko.

Bai, baina ez dira adibide garbiak. Segur naiz, Kafkak ere, Arestik eta Pessoaak bezala, lantokian idatzi egiten zuela. *Asecurazzioni Generalin* egiten zuen lan. Oso lasaia zen toki hura eta handik kanpora ere ez zeukan ezer, ez telebistarik, ez zinemarik, ez ezer. Denbora oso poliki mugitzen zen orduan eta asti handia zegoen gauza guztietarako, baita idazteko ere. Hori kontuan hartu beharra dago.

Nik uste, idazlea denbora guztian idazle izatea hobea dela mundu guztiarentzat, erakundeentzat, Euskal Herriaren kulturarentzat. Har dezagun gaurko adibide bat, Harkaitz Cano, esaterako. Han eta hemen ikusten dut, hitzaldiak, errezitaldiak, honako eta harako idazten... Mutil horrek abokatu gisa egingo balu lan, nork idatziko zituen berak egiten dituenak irratirako edo besteetarako? Alde horretatik bai, hobea da idazlea idazle izatea. Hortik aurrera, ordea, ez nuke esango.

Dirua ere bada tarteko.

Gaur egungo idazle gazteek aukera izugarriak dituzte gure aldean. Alboko lan asko dago, hitzaldiak, artikulak... Zela edo hala bizi litekeela ematen du idaztetik. Ez aberastuta, jakina, baina bizi behintzat bai. Hala ere, interesgarriena, liburuen egile eskubideetatik bizitzea litzateke. Eta horretarako oso ona da agente bat edukitzea. Ez dira deskuidatu behar alderdi arrunt horiek eta ez dut anbizio ekonomiko hutsagatik esaten, ez. Justiziaren zentzu bategatik diot hori.

Lehengor batean harri eta lur geratu nintzen gure musikari ospetsu baten kontratua irakurri nuenean. Ez dut esango izenik baina euskal kulturako zenbait patroik, negrero hutsak iruditzen zaizkit, ez dute haiek baino etika gehiagorik. Horrelakoak oso kaltegarriak dira euskal kulturarentzat.

Erakundeak ere, zenbat eta diru gehiago eduki, orduan eta okerrago erabiltzen dute. Madriletik geure kontra gaizki esaka aritzen den edozein ekartzeko gastatzen dute dirua askotan. Madriletik kazetaririk ziztrinena ekartzeko ETBra edo edonora, euskarari buruz gaizki hitz egitera eta beste pozoi pixka bat botatzera. Gero bertako idazle bati bost folio idazteagatik, Madrilekoari eman zaion laurdenaren laurdena ematen zaio. Ez dago eskubiderik. Hitz egin nezake datuak eta izenak emanez. Hau lotsagarria da. Hemen ematen du bertako artistak eta idazleak partzuergoak garela, baso komunalak ditugula eta egurra behar baldin bada egurra hartu eta kito.

Zorionez ez da nire kasua. Agentea daukat eta hark esaten badit Etxarri Aranazko euskara taldeak nire hitzaldi bat nahi duela ez dakit noiz eta ez dakit non, bada, baietz esateko agintzen diot, musutruk joanen naizela. Baina Eusko Jaurlaritzako Turismo Saileko norbait etortzen bazait ia bi errialean egingo ote diodan nobela bat, antzarak ferratzera bidaltzen dut.

Ikasi beharreko lezio bat dago hemen. Lehendabizi justuak, zuzenak, izan behar dugu, baita geure buruarekin ere, baita geure ofizioarekin ere. Eta halako batean esaten

badut nire ilustratzaileak egile eskubideak kobratu behar dituela, eta hori lortzen badut, hurrengo joango denak bide erdia egina edukiko du. Nola ibili dira beti gure ilustratzaileak? Karitatetik biziz.

Baten batek pentsa dezake gaia arrunta dela eta ez duela merezi predikatzen ibiltzeak. Bada, bai, bi minutu sikiera merezi ditu gai honek. Jendeari erakutsi egin behar zaio balio duten gauzek daukatela balioa eta ideia on batek asko balio duela. Funtzionario batek ezin dio inori Donostiako Musika Hamabostaldirako artikulua bat eskatu eta ogitarteko batez ordaindu, batez ere berak soldata borobila baldin badauka.

Aurrezki kutxa printzipal batek, neuri ere ordaindu zidan behin ogitarteko batekin.

Baietz, bada, halaxe daudela gauzak oraindik. Borondatez joan nahi baduzu, joango zara Miranda de Eboko ikastolaren alde egitera baina Rotschild etortzen bazaizu eta gainera zupaka hasten bazaizu... Egun batean agenteari esan behar diot elkarrizketak kobratzen hasi egingo garela, baita irabaziak Caritasi emango badizkiogu ere.

Ez dago eskubiderik. Madriletik Miguel Angel Aguilar edo antzekoren bat ekartzen dute, abioiez, hotelik hoberenera eta gainera ez dakit zenbat ordainduta. Hori ere bada marka! Igual hemengo batzuk berak baino jende gehiago bil dezakegu eta, batez ere, gauza zentzuzkoagoak esan. Baina halaxe daude gauzak.

Txikiaren arazoak dira horiek. Liburuaren gure merkatuak ere baditu bere ajeak. Alabaina, zenbaiten ustez, txiki izateak bere bentajak ditu, ez baititu ezagutzen merkatu editorial handien presioak.

Bai ezagutzen dut Saizarbitoriaren iritzi hori. Saizarbitoria oso ona da gauzei arnasa bilatzen eta arazoak arazoitzen. Oso ondo egiten du lan hori. *Chapeau*.

Hala ere, literaturaren merkatuaren kontu honetan, nik guztiz kontrakoa pentsatzen dut, teoria batzuekin ezin baikaitezke ez eta pareko espaloraino ere iritsi. Txikiaren alde mintzatzea ondo dago baina ez dezagun ahaztu lege nagusia: zenbat eta handiagoa izan merkatua, hainbat eta toki gehiago dago denentzat, baita bazterreko jardunetarako ere. Merkatua zenbat eta urriagoa, orduan eta aukera gutxiago denontzat.

Euskal Herrian tradizio iletratua egon da, katolikotasunetik ez dakit nora pasatu den jendea dago, halako akultura eta dezepzio izugarri batera. Hau ez da Atenas eta gu ez gara judutarrak.

Hemen standarrarentzat ere ozta-ozta dago lekua eta hortik aurrera bi, hiru edo lau mila pertsona ibiltzen gara standarrak kanpoko jardunak, emaitzak eta obrak eusten edo, behintzat, horretan ahalegintzen.

Gauza batzuk benetan larri daude. Ekonomian bada kontzeptu oso argigarria, unbralarena. Muga horretatik behera ez dago ezer. Ez da ezer existitzen. Ehuneko bitik behera ez dago ezer. Zero dago. Eta hemen eginkizun asko daude unbralaren ertzean.

Gauza askotarako jende ona badago baina, hala ere, txikiak beti ditu arazoak. Esate baterako, zuk literatura exijentea edo ertzekoa egin nahi baduzu, horren zabalpena egiteko, oso ondo etorriko zaizu liburu denda bat zeure alde edukitzea. Horko dendariak, liburu saltzaileak, esan dezake, bai badakit Espido Freire-ren azken lana saldu behar dudala, Freixeneten propaganda egiten ari da eta jende askok ikusten baitu hori, eta nik ere bizi behar dut, jakina, baina niri izugarri gustatzen zait poesia txinatarra, eta Budismoaren inguruko zerak eta hementxe daukat gai horri buruzko azken lan batzuk eta abar, eta abar.

Horrelako liburu saltzaileak Alemanian eta Frantzian aurki ditzakezu, hemen ez. Ehundaka liburu saltzaile eta dendari egon arren, halakorik ez dago alerik ere. Denek dute erakusleihoa Planeta Sariez beterik, bi txiskero eta telebista bat oparitu baitie banatzaileak.

Nola egin, orduan? Nik uste txikiaren bentaja bakarretakoa izan daitekeela talde-lanerako aukera eskaintzea. Madrilen, esaterako, hori ezinezkoa da. Hemen talde lan gurutzatuak egiten dira, noizean behin. Zure letra bat errezitatzen du beste hark, gero hirugarren batek kantu bat sortzen horrekin, beste batek iruditan jartzen... Hori bai, onura mota hori badauka txikiak, baina gainerakoan...

Handia izatea beti hobe.

Bai. Hara nire lagun batek erabiltzen duen metafora kontatuko dizut. Hainbeste kontu eta ospe euskaldunak Everest gailurrera lehendabiziko aldiz igo zirenean eta handik pare bat astera, joño, austriar batzuk oxigenorik batere gabe igotzea lortu zuten. Hainbeste zalapartarik gabe, gainera. Zergatik ez ziren Zabaleta eta Tximist euskal espedizio hartakoak oxigenorik gabe igo?

Nire lagunak erantzungo lukeen bezala, Euskal Herriko hogeita hamar espedizio igotzen direnean Everestera, orduan hogeita hamaikagarrenak esango du, orain igoko naiz oxigenorik gabe eta hurrengoak esango du, igoko naiz hanka bakarraren gainean... eta horrela. Baina hainbeste lan egin ondoren espedizio bakarra antolatu, juxtu-juxtu bildu dirua eta nola nahi duzu arriskutan sartzea?

Dena dela, merkatua handia edo txikia izan, ez dago erraza liburu baten ibilbidea aurretik asmatzen.

Liburu batek askotan arrazoi extraliterarioengatik funtzionatzen du ondo. Atzerrian hemen baino gehiago gertatzen da hori. Argeliako gizonezko batek, emakume izenarekin sinatu ditu bere liburuak, arazoak ditu bere herrian eta Parisen hartzen dute. Milaka elkarrizketa egiten diote eta milaka ale saltzen ditu egun batetik bestera. Idazle hori ez bazen argeliarra izan, seguru asko inork ez zuen liburu hori irakurriko, nahiz eta oso ona izan. Liburuak beti erosten ditugu beste zerbait ere badirelakoan edo haien oihartzun bat iritsi zaigulako handik edo hemendik.

Atzerrian asko ikusi dut nik hori. Askotan liburu onak dira, poetika ederra darabilte, baina beste zerbaitek ere laguntzen die. Suedian, Finlandian, Frantzian...

Kritikak ere beharko luke horretan zer esanik.

Bai, nik uste oraintxe ari dela gurean kritika, azkenez, azaltzen. Kritikari batzuk lanean hasiak dira, batez ere kanpora begira. Hala behar du horrek, kritikariak idazlearen aurretik joan behar du. Guk orain arte ez, baina herri gehienek halaxe egiten dute.

Esate baterako, zure liburu bat argitaratu behar badute Alemanian, interesgarria da hori baino lehenago hemengo kritikariren batek zure liburuaz edo zeure lanaz egindakoa han ezagutaraztea. Unibertsitate zirkuitoetan eta ahal den guztietan. Txostena, informea edo dena delakoa aurrez prestatu eta hara bidali behar da.

Horrek promozioa dirudi, kritika baino gehiago.

Ez nuke inor mindu nahi baina hortik aurrera, neuk partikularki ez dut kritikariengandik deus jaso. Zumeta pintoreak ere esaten du, hainbeste urtean ibilitakoa izan arren, sekula ez duela bere lanari buruz egindako kritika bat ulertu ere egin.

Bernardo, adi, hemen igortzen diat transkripzioko zatia. Jon Kortazar aipatzen duk eta hobe duk apur bat txukuntzea. Gainera, bukatzeko beste zerbait pentsatu beharko litzatekeek. Nire ustez, kritikari dagokiona idatzi eta gero, honakoa galdetuko niake edo bestela hik zerbait proposatu:

Sarrionandiak dio, gaurko euskal literaturak, Euskal Herria baino hobeto dabilela dirudiela.

Orain zer pasa zitzaidan egia esaten, orian nekatua nago eta ez orduan eta ditut hitzak oso zorrotzak ematen, ez, kritikarena ez dut ondo erantzun, baina, *Lasai*

Zer hor askotan inter nos batzuk sekulako jipoia eman benetan, merezi dutela, Kortazarri benetan merezi du, baina beste batzuk ez zuten merezi, oso zintzoak dituk, egiten dute kritika negatiboa joder eta pentsatuko du txarrak ba negatik ez dihoa, txarrak eta onak pentsatuko du igual honek negatikan esaten du hau. Horregatikan, hau pixka bat idatziko dut hobeto,))

Koldo Izagirre

1

Haur garaiak
Langileriaren lilura.
Hizkuntza galtzen.
Luis María ez da Koldo baino.
Aniztasuna eta oldar aroa.

Altzan jaio nintzen 1953an eta Luis María jarri zidaten izena. Luis María Izagirre Urreaga naiz, beraz. Orain Altza ez da herri bezala azaltzen, ezta auzo bezala ere. Barregarria da, ezta? Hala ere, nik neure burua pasaitartzat daukat, 6 urte nituela Pasaiara bizitzera joan ginelako; han bizi izan nituen neure lehen ilusioak, han egin nituen lagunak, hangoa naiz.

Gu Pasaiara baino, Pasaiako portura etorri ginen, Pasaiako moila industrialera. Aita elektrikaria zelako eta han behar zutelako eman zioten etxe bat, beti ere eguneko ordu guztietan egon zedin prest edozein matxura konpontzeko. Oso ona zen bere lanean.

Horrek bakardadea ekarri zion ume nintzen honi, han ez baitzegoen barku, merkantzia eta langileria besterik. Horrek barruraka eragingo zidan noski. Nik amets egiten nuen marinel-pirata haiek ikusita: aleman belarrikodunak, finlandiar edaleak, amerikano beltzak...

Ez dakit zehatz nondik datorkidan idazteko zaletasuna. Asko izango dira faktoreak, seguru asko. Gogoan dut portuko etxe kontsignatarioek agendak argitaratzen zituztela eta urtero oparitzen zizkidatela. Niretzat “diarioak” oso gauza arruntak izan dira. Boligrafo estu bat edukitzen zuten lotua. Agenda haien orriek ertz doratuak edukitzen zituzten, mezako liburuak ematen zuten eta amaieran itsas seinaleak eta banderak zeuzkaten. Oso gauza erakargarria niretzat, liburu-objektu bezala.

Anaia zaharrago bat daukat, eta haren Salgari bilduma guztia irakurri nuen. Bederatzi urteko aldea daukagu eta bazuen liburutegi polit bat. Idatzi ere egiten zuen, lehiaketa garrantzizko bat ere irabazi zuen gaztelaniaz, eta oso marrazkilaria ona zen.

Orain horrelako azterketa psikoanalitiko bat eginda, atera liteke agian emulazioz naizela ni idazle zeren eta bera ona zen bezain txarra nintzen ni ikasketetan.

Lagunik gabe eta portu batean... biografia asmatu bat eman lezake zureak.

Ez naiz asmatzen ari ordea. Bakardade doratu batean bizi izan nintzela uste dut, barkuz, marinelez eta langilez inguratua... Portua jostailutegi handi bat zen: gatza, pirita, kok ikatza, burdina minerala, fosfatoa, txatarra, paper pasta fardoetako gutunazal ingelesak zigilu eta guzti, txalupak...

Bagoietan sartzen nintzen, lokomotoran eramaten ninduten, estekariei laguntzen niela uste nuen, traktoreak arrankatzen uzten zidaten... Maskara hartu eta burdin piezei soldadura puntuak ematen ere uzten zidaten, elektrodoarekin. Horrek guztiak halako azpi erromantiko bat utzi dit, eta langileriarekiko atxikimendu handi bat.

Mundu hori ordea oso gerora islatu izan duzu zure lanetan, Non dago Basques' Harbour? azken poema liburuan, hain zuzen.

Bai, egia da... Aztarna bila hasita, beharbada idaztearen sorburua jostailu haietako batean egon liteke. Langileek bost eta erdietan egiten zuten alde, eta handik aurrera aita bakarrik gelditzen zen tailerrean, bobinatzen edo hurrengo egunerako lanak prestatzen edo hantxe denbora pasa oraindik ere barkuren bat deskargan zegoelako eta garabiak martxan. Orduan nik aprobetxatu egiten nuen neure txapuzak egiteko kableekin, zinta enpalmearekin edo motore bobinatu berriei barniza emateko.

Baina askotan bulegora igo eta idazteko makinan jarduten nuen idatziko banu bezala egiten, esaldiak osatzen, txorakeriak tekleatzen...

Jolasean bezala hasi zinen idazten, beraz.

Idazten hastea... Hori asko esatea da... Nire hizkuntzarekin topo egin nuela ere esan behar nuke, hizkuntza galduz bainindoa. Momentu batzutan, nire gurasoei erdaraz erantzuten nien eta nire anaiarekin ere erdaraz. Horrek zerikusi handia izango du, seguru asko, ni idazle izatearekin. Irakurlea ere banintzen lehendik, baina euskaraz ikasteko irakurri behar izan ditudan sermoiak ez nituzkeen erdaraz irentsiko.

Zure baitan galtzen zihoan gauza dela esan duzu, baina ba al zenekien idazten edo irakurtzen euskaraz?

Gutxi gora behera, hamabost urte izango nituela uste dut, euskaldun izan behar nuela erabaki nuenean, eta Koldo nintzela. Data polit bat jartze aldera, 1968a izango zen. Hor faktore asko daude, gogoratzen dut izugarritzko egarria nuela orduan nire hizkuntza berreskuratzeko, eta errekueratze lan horretan nire apunteak hartzen hasi nintzen. Gurasoak konbentzitu nituen, eta horretan, egia esan, ez nuen lan handirik izan *Anaitasuna* eta *Zeruko Argian* harpidedunak izateko. Aitaren autoari aldizkari horien pegatina batzuk jarri nizkiola gogoratzen naiz, geroago baten batek galdetu zidan "*Qué las has puesto, ¿para que corra más?*". Bazezilen ni kontrolatzen ninduen norbait, edo graziarik egiten ez ziona, edo hura ikustean...

Egarri handi bat, nik gabezia handiak nituen espresatzeko, eta orduan erabaki nuen ez nekien guztia ikasi egin behar nuela, eta horretan jarraitzen dut, hizkuntza bat ez baita sekula ikasten zorionez, eta nik uste dut horrek izango duela eragina nire estiloan, espresioaren zainketan...

Hala ere Euskal Lokuzioak liburukote mardula argitaratu zenuenean, hizkuntzalaria zinela sinestarazi zenigun. Lokuzioen bilketa hori ez zenuen seguru asko egingo erdalduna izan ez bazina gaztaroan.

Egia da. Baina ez pentsa inspirazioa zerutik etorri zitzaidanik. Kontuan hartu behar da garai hartan izugarritzko harroaldia zegoela euskararen inguruan, eztabaida gogorra zegoen Euskara Batua zela-eta, Aresti bizirik zegoen, haren eztabaidak Mitxelena eta besteekin... Garai hartan bertan kantagintza hasi zen indartzen, Natxo de Felipe eta Imanolen kantaldiek eta Laboaren, Lertxundiren eta Leteren disko haiek izugarritzko garrantzia izan zuten nire kontzientziaztean, mendirako irteerak eta elkarrekin kanta horiek kantatzeak... izugarritzko garrantzia.

Gero, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argian* egundoko eskuartzea zegoen, edozeinek idazten zuen, kartak argitaratzen ziren... Aniztasuna zegoen, orduan ez zegoen finkatua euskal intelektualitatea. Mundu guztiak egiten zuen bere ekarria, halako estudiante batek hau idazten zuen, besteak hura... Niretzako oso inportanteak izan ziren Joxerra Etxebarria, Xabier Kintana, Luis Haranburu Altuna, Anjel Zelaieta... firma horiek oso inportanteak izan dira nire formazioan. Uste dut orduan zegoen laineza positibo horrek ere eragin zuela ni neure gauzatxoak idazten hastea.

2

Espainiako literatura laket.
Bernardo Atxagarekin elkartu.
Testuak maite ditut, hizkuntza baino gehiago.
Ez daukat posturik Euskadi berri honetan.
Baina, banaiz beste batzuen arteko.
Idazlea, egin egiten da.

Letra handiko literaturaren ezaguerarik ba al zenuen garai hartan nolabait?

Ez, ezta inondik ere. Geroztik jantzi naiz apur bat, eta hala ere hutsune handiak dauzkat, diletantea naiz, ez daukat formazio klasiko sendorik, Catulo duela gutxi irakurri dut, Danteren “*Komedia jainkotiarra*” bi aldiz hasi eta abandonatu dut, ez pentsa anti-intelektualismoa egiten ari naizenik. Benetan, gabezia handiak dauzkat. Ez dut ingelesa dominatzen, eta grekoa eta latina ere ez. Esan nahi dut, horretan ez dudala eragin zuzenik, pixkanaka joan naiz deskubritzen munduko idazleak, eta oso modu inkoherentean, planifikaziorik gabe.

Pentsatzekoa da, beraz, garai horretan errazago irakurriko zenuela espainolez euskaraz baino, eta idatzi ere bai, seguru asko.

Ez nago seguru bigarren horretaz. Espainiako literaturaz berehala jabetu nintzen, Larra beti asko gustatu izan zitzaidan, artikulugile hura. Max Aub eta horrelako autoreak bilatzen genituen, Ramón J. Sender, errepublikanoak...

Latinoamerika zen guretzat gaztelaniako literatura. Urte haietako booma gure formazio urteetan izan zen, eta horrek ere eragina izan zuen, poesiaren kalterako seguru asko, Nerudaren gehiegizko kutsu horrekin, poema nerabeak egiteko joeran...

Hala ere zuk ordukoa al duzu erabaki hori, idaztearen erabaki hori?

Nik esango nuke erabakiak baino gehiago, zirkunstantziek bota nautela horretara. Nik Atxaga ezagutu nuenean, 74an izango zen, garbi zuen idazle izan behar zuela. Nik ez.

Zuek zenbat urte zenituzten? Gutxi gora behera.

Nik hogeita bat, berak hogeita hiru.

Eta Bernardo Atxaga ezagutu zenuenean?

Garbi zegoen berak zer izan nahi zuen, oso garbi zeukan, eginagoa zegoen, idazle egina ia-ia ordurako, eta bere bokazioa garbi zeukan. Gero, berak bere zirkunstantziak bilatu ere egin zituela uste dut.

Hala ere, nire kasua ez da hori. Nire kasuan... Zer edo zer badago, bai. Euskara ikasteagatik hasi nintzen Filologia Romanica egiten, huraxe zen zegoen hurbilena. Bi aldiz saiatu naiz amaitzen, baina bi aldietan utzi dut, benetan beste gauza batzuk interesatzen zaizkit. Egia da. Latina suspenditzen nuen, batxillerra zientzietatik egina nintzen eta zailtasun handiak neuzkan. Bigarren mailan latina suspenditu nuen irailean

ere, bakarra geratzen zitzaidan amankomuneko bi urteak likidatzeko, libre izateko eta noranahi jotzeko. Orduan joan nintzen Patxi Altunarengana eta esan nion: “Nik ez dut hemen jarraitu nahi, aproba iezadazu, ze nik letrak ikasi behar ditut, Valladolidera joan nahi dut letra modernoak ikastera”. Eta bere erantzuna, “Zaude bertan, gure ikastoletan ere irakasleak behar ditugu”, paternalista eta hipokrita aldi berean.

Jarraitu nuen hirugarrenean, baina oso zabar, batere ilusiorik gabe. Eta utzi egin nuen, ikastolek irakasle bat galdu zuten. Ordurako bai, literatura interesatzen zitzaidan beste ezereen gainetik. Gero helduago eta beste helburu profesionalago batzuekin ere saiatu naiz karrera amaitzen, duela hiru urte hain zuzen ere, baina ez dut amaitu. Benetan, ez zait interesatzen filologia, ezta euskal filologia ere. Testuak maite ditut, ez hitzak soilik.

Zer egin zenuen orduan?

Egia esan, lan alternatiboetan hasi nintzen. Hain erdaldundua nengoenez poliki ikasi nuen euskaraz, eta orduko eskasia hartan asko zekien morroi bihurtu nintzen. Oso arraroa gainera, jende askok galdetzen zidan: “Nola jakin dezakezu hainbeste seminariotik pasa gabe?” Ez zuten sinesten. “Nola dakizkizu euskal aditza, eta gauza horiek... seminariotik pasatako jendeak bakarrik dakizkien gauzak dira horiek”. Prehistoriako kontuak ematen dute, baina horrela da. Orduan hasi nintzen helduen alfabetizazioan klaseak ematen...

Lan ezegonkor edo ez arautu batean nengoenez, erdi liberaturik ibiltzen nintzen *Euskadi*, *Ustela Saila* eta holako horietan. Orduan asko ginen, bai baitzegoen magma ikaragarri bat, baina autonomia etorri zenean mundu guztia kokatu egin zen, oso perspektiba ona zeukan jendeak, aldiz ni oso ilusoa nintzen.

Bestalde baneukan ezintasun handi bat, eta zorionez esaten ahal dut: nik ez neukan titulurik, ezin nuen administraziorako lehiatu. Estaturaz ere ezin dut ertzaina izan, beraz ez nituen gutxienekoak ematen autonomian kokatzeko inon. Ezkerrera eta eskumara begiratuta esaten duzu ‘ez daukat lekurik inon!’. Orduan ‘zer dakit nik egiten txukun xamar?’. Ba hartara, aurrera bolie.

Bai, baina zure motibazio nagusia hizkuntzarekiko gabezia hori izan zela sinesten badugu, zergatik idazle eta zergatik ez hizkuntzalari. Alegia, ulertzen da esaten ari zarena baina agian ez du justifikatzen behar bezainbeste harrez gero egin duzun guztia. Zure obran zehar ikusten da horrelako nahi literario goi arnasako bat, nolabait esateko.

Bai. Baina seguru asko ni euskaldundu izan ez banintz ez nintzen idazle izango. Nik uste dut hizkuntzak eraman nauela horretara. Nire ume eta gaztaroko ezin euskaraz espresatze hark ekarri dit kezka hau. Niri espresioa interesatzen zait, adieraztearen mundua. Interesatzen zaizkik hitzak, jakina, baina ez naiz filologo eta ez zait interesatzen batere filologia. Nik hitzaren aplikazioa bilatzen dut, testua.

Beraz, lehen idazlanak zeintzuk izan ziren eta nolakoak?

Beno, lehen idazlanak Gascue y Cruz Casa Consignataria de Buques agenda haietan egindako apunteak, Emanuel Munier-i, Sartre-ri, Kafka-ri eta halakoei kopiatutako pentsamendu laburrak, eta gauza horiek noski erdaraz izango ziren, dudarik

ez. Gero pixkanaka beste gauza batzuk, neure bertsoxoak eta abar, horrelaxe lehenbiziko gauzak...

Gogoan daukazu eta gordetzen dituzu, ala aztarnak ezabatzen dituztenetakoak zara?

Ez naiz halako gordezalea ere, baina ez ditut aztarnak ezabatzen. Ez daukat talenturik gezurrak asmatzeko. Eta gardentasunaren alde esango dizut nik garrantzi handia ematen niola idazten nuenari, uste nuelako norbait nintzela, banintzela Patri Urkizu edo Ibon Sarasola edo Ramon Saizarbitoria baten antzeko... euskal gaztedi berrikoa nintzela uste nuen nik.

Neure karpeta baliosarekin nindoan behin Donostiako abenidan eta hortxe ikusi nuen Ibon Sarasola, argazkietan bezain bibotedun, *Poemagintza* zuen orduan berak publikatua eta esan nion zu halakoa zera eta begira nik poema liburu bat daukat hemen. Hartu zuen. Geroztik ez dit ezer esan sekula, alegia, esan nahi dut oso elegante eta dotore portatu izan dela Ibon Sarasola beti nirekin. Diskrezio handiko pertsona dela ziurta dezaket, nirekin behintzat hala portatu da. Handik hilabete batzuetara *Euskal Literaturaren Historia* publikatu zuen, eta orduan konturatu nintzen nik munstro bati eman niola nire ziztrinkeria hura. Lotsatu egin nintzen, eta ez gutxi. Ibonen liburua hartu nuen, historia hura alegia, eta neure artean ni non kokatzen naiz hemen? Nik uste dut asko heldu nintzela orduan kolpetik. Handik gutxira Erbiti musika etxean sartu nintzen eta Ibon zegoen, baina suertea izan nuen, bera disko batzuk ikusten ari zen, orduan buelta erdia eman eta korrika alde egin nuen. Horra neure aztarna polit bat.

Tira, garbi dago gaztetxo normal bat zinela, publikatu nahi zuen hasiberri bat. Gogoan duzu lehengo zure izena beltz eta zuriz ikusi zenuenekoa?

Uste dut Donostiako Liburutegi Municipalak egiten zuen lehiaketa bat zela medio ikusi nuela neure izena inprimaturik. Ni presentatzen nintzen poesian eta prosan. Deitu zidan Herri Irratitik Iñaki Zubizarreta, bietan irabazi nuela esanez eta hori oso inportantea zela euskal literaturarentzat, ze nahasian ziren gaztelania eta euskara, ez zeuden sail desberdinetan, lehen aldia omen zen euskaldun batek... Zer besterik entzun nahi nuen nik! Gero Felix Marañak deitu zidan, bera ere irabazlea zen. Uste dut azkenean prosan bakarrik irabazi nuela, nik ez nuen argazkirik nahi eta Marañak insistituta, oso inportantea zela eta atera behar genuela fotoa... Nire lehen fotoa prentsan Felix Marañari zor diot, *La Voz de España*-n edo *Unidad*-en, ez nago seguru, neure amak dauka errekortatua. Eta orduan famatu xamarra egin nintzen herrian.

Zer esan zizuten zure lehenengo lan hura publikatzean?

Ezer ez, ez zen publikatu eta. Orain dela gutxi arte eduki dut gordeta. Uste dut hautsi egin nuela edo... Eta argitaratu izan balitz ere, nor enteratuko zen?

Baina ez da publikatu beraz?

Ez, ez. Gorde egin behar nuen, nork daki biharko egunean inedito guztiak ez ote dizkiotan saldu ahal izango Estatu Batuetako unibertsitaterekin bati...

Edo honen antzeko elkarrizketa batean agertzeko agian...

Kenduko diot amari argazkia behintzat, emango dizut.

Beraz hori lehenengo ohorea izan zela esan dezagun, baina orduan noiz ikusi zenuen lehenengoz argitaratua zure lanen bat?

Lehiaketa hartako poemak *Karmel* aldizkarira bidali nituen, publikatuak daude beraz. Poema esistentzial batzuk ziren, tremendistak. Ez naiz izenburuaz oroitzen baina izango zen horrelako gauza ikaragarriren bat edo.

Biografia bat ari zara osatzen beraz, nortasun bat saltzen.

Baliteke, baina ondorio hauxe aterako nuke nik testu txar haietatik: idazlea egin egiten da.

3

*Ustela eta Atxaga.
Beste bide bat.
Lagun ginen baina erdibituak.
Intelektualitate traidorea.
Ikuspegi politiko ezberdinen aiztoa.*

Idazle bezala, ordea, noizbait plazaratu zinen.

Bai, Atxagak eta biok *Panpina Ustela* atera genuenean izan zen hori. Horixe izan zen nire lehenengo plazaratze nazionala.

Nola ezagutu zenuten elkar Atxagak eta biok?

Kartzela dela medio...

Baina biok kartzelan zinetela edo beste norbait kartzelan zela eta?

Beno, kartzela zela medio. Harritzekoa al da?

Panpina ustela-ren helburuak nola adostu zenituzten gogoan dituzu?

Bai, bai. Esan dizut lehen ere, Atxaga askoz ere helduagoa zen, egina zegoen eta aski garbi zeukan hainbat gauza. Esango nuke oso era obsesiboan bizi zuela literaturaren kontu hori, seguru aski hori izan nahi zuelako, idazlea, eta ez orduan zena, ekonomista banku batean.

Garai hartan asko hitz egiten genuen honetaz eta hartaz, garbi xamar genuen aldaketa bat behar zela. Denbora gutxian nik ere distantziamendu handi bat hartu nuen idatzia neukanari buruz. Urrundu egin nintzen ordura arte neraman linea ahul hartatik. Formatzen ari nintzen, deskubrimenduen aroan nengoen.

Nolako onarpena sumatu zenuten Panpina Ustelaren inguruan? Edo beste modu batera esanda, jabetu al zineten zuek baino gazteago zirenentzat zer nolako gauza berritzailea izan zen hura?

Beno, bai. Nik uste dut orain erreza dela esaten, baina, hala ere, orduan bagenuen zerbait ona egiten ari ginelako kontzientzia. Ez dut esan nahi testuak euskal literaturaren goi mailan sartuko zirenik eta horrelakorik, baizik eta produktu on bat, materialki ere bai, argazkilari batekin, paper ona, errepografia Anaitasunan, Daniel Palaciosen ondo zaindutako inprimaketa batekin, hori dena bazegoen.

Apurto egin behar zela —eta geroztikako gure lanek erakutsi dute apurtzen ahalegindu ginela— Arestiren jarraitzaileekin, errealismo sozial edo sozial errealismoarekin, eta baita esistentzialismoarekin ere. Poesian bi linea horiek zeuden orduan indarrean, eta uste dut bere xumean beste proposamen poetiko bat zegoela, eta Atxagaren lanetan zer esanik ez.

Gogoan dituzu zein idazle jende hurbildu zitzaizuen?

Ramon Saizarbitoria eta Ibon Sarasola, baina batez ere Ramon. Bera izan zen etorri zitzaiguna, eskuartean hartu zuela *Panpina Ustela* eta bat egiten zuela horrekin eta guztiz ados zegoela. Bere luma eta bere etxea eskaini zizkigun.

Baina hiru ale baino ez zenuten atera.

Panpina Ustelak izan zuen jarraipen bat *Mermelada Ustela*, *Zorion Ustela*. Harremanak ez genituen eten, baina tirabira batzuk ere egon ziren, lagun arteko kontuak egia esan. Atxagak Bilbora alde egin zuen, bazituen harremanak han, eta hiri handiko iruditeria zerabilen buruan, *Etiopia*-ren puska bat hantxe idatzi zuen. Arnasa ere nahi zuen, eta Bilbok eskaintzen zion hori.

Nolako tirabirak?

Normalak.

Adinarenak eta garaiarenak?

Bai, gustu literarioak tarteko, eta aldizkarien funtzioa...

Pott eta Oh! Euzkadi alderatuta ikusten diren diferentziak, hain zuzen...

Bai, eta nahiz eta mikaztasuna ekarri, banatze hura onuragarria izan zela esan genezake, Atxagak beste nukleo bat osatu baitzuen Bilbon... Orduan bi ale atera genituen, Ramonek eta biok, guk ere hainbat jende berri bildu genuen, Joxan Eloseg, Gotzon Egia, Ramon Etxezarreta, Josean Muñoz... Belaunaldi berri bat.

Ustela bi horiek argitaratzeak zer ekarri zizuten?

Ramonen eta bion elkarlanaren hasiera, beste jende askorekin talde lana eginez eta eztabaidan. Nik oso egun ederrak pasatu nituen. Ramon ni baino helduagoa da, beste belaunaldi batekoa, baina oso ondo konpenetratu ginen eta elkarrekin hasi ginen *Zeruko Argian*.

Zure karpeta besapean paseatzetik idatzitakoa taldean eztabaidatzera pasatu zinen beraz.

Ramon Saizarbitoriak txertatu zidan talde lanerako grina eta eztabaidaren garrantzia. Horretaz gainera, nik orduan oso momentu onak pasa izan nituen eta literaturak daukan alderdi ludikoa bizi izan nuen, bai, literaturgintzak ludikotasunetik eduki dezakeela ikasi nuen Ramonekin. Biki helduago bat baneuka bezala bere etxera joan, pipa errez artikuluak lau eskutan egin... Geroztik, egia esan, ez dut konpenetratio hori eduki inorekin. *Zeruko Argian* jarraitu genuen, asko aportatzen zuen Ramonek han, 'Baietz astea gaizki bukatu' etabar...

Hain zuzen *Zeruko Argia* txiki gelditu zitzaigun hainbeste gauza esateko, eta horren ondorio da *Oh! Euzkadi*. Lur editorialak hartu zituen bere gain gastuak, Iñaki Mujika, *Ezkerra*-ren erabaki ia pertsonala izan zen hura, askatasun osoa eman zigun nahi genuena nahi genuen moduan argitaratzeko, eta orduan beraiek argitaratzen zuten *Euskadi Sioux*-eko batzuek ez zuten gustuko izan. Baina bere hartan iraun zuen, begiko gintuen *Ezkerrak*.

Zer ziren, bada, esateko haiek?

Orduan Frankismoa amaitu berria zen, zetorren prozesu autonomikoari buruz esaten ziren astakeriak ezin genituen jasan, eta kulturari buruz berdin, ez da sinistekoa zegoen inuxentekeria politikoa. Orain harrিতa nago zein heldutasuna azaltzen genuen orduan, benetan, entzuten eta irakurtzen genituen gauzek ez zuten ez buru eta ez buztanik.

Ba al duzu gogoan nabarmenen bat?

Orduan edozeinek esaten zuen Euskal Telebista izango zela gure kulturaren piramidearen erpina eta hortik irradiatuko zela euskal kultura mundura. Izugarria zen. Ingenuitate handia zegoen.

Oraindik ez zeuden garbi Euskadiko Ezkerra eta Herri Batasuna. Bitarte hartan konpenetrazio handia izan genuen, eta nik uste dut orduan hartu nuela idazleak izan behar duela prentsa bitarteko borrokari ere. Noizbait esan dut literatura gerraren jarraipen bat dela beste medio batzuekin, askok behintzat horrela jokatzaren dute, eta gerra ematen dute beti. Jardun lirikoaren bitartez ere, posizio batzuk defenditzen dituzte nabarmen.

Beraz, esan liteke garai hartan lagunak zinetenok, nolabait, politikaren ikuspegi ezberdinek bereizturiko taldea zinetela?

Oro har, Euskal Herrian politikak eragin zuzena izan du kuadriletan, lagunetan, bikoteetan... guri ere gauza bera gertatu zitzaigun. Nekea ere bai, prozesu politiko gogor bat, eta hainbat ale... Aldizkariak normalean efimeroak izaten dira, non eta instalatzen ez diren edo instituzio baten babesaren hartzen ez duten.

Beharbada gu nahiko erromantiko eta katxondoak ginen, eta ez genuen horrelako helbururik. Beharbada gutakoren batek pentsatu izan balu “ni egingo naiz mantxeta honen jabe, joango naiz instituzioetara, dirua kenduko diet eta neu izango naiz zuzendari” ba lortuko zuen, baina orduan ez genuen horrelakorik pentsatu ere egiten. Prozesuak amaitzen direnean amaitzen direla uste genuen eta gero atera genezakeela beste zerbaitekin, noizbait.

Beste era batera egingo dizut galdera. Ulertzen dut O! Euzkadi eta lagun talde horren garaian bi bando bezala egin zirela. Zuk aurkitu al zenuen bidaiderik ala bakarrik jarraitu zenuen zeure bidea?

Ez, nik ere izan nituen neure lagunak. Ez dut esan nahi neure ingurura bildutakoak izan zirenik, baizik eta ezker abertzalean gertatzen ari zen zatiketa gertatu zela gure taldetxoan ere, proportzio desberdinetan baina. Badakizu intelektualitatea nolakoa den.

Nolakoa zen ba, intelektualitatea orduan?

Bada, intelektualitatea jaka amerikanoaren galtzarbean El País zeramana zen, “zaborratik” bereizi nahi zuena, ETA politikomilitarraren inguruan sorturiko artikulugile eta txantxullero fauna hura gutzia, dena erlatibizatzen zuena salbu eta beraien ibilbidea.

Huraxe zen intelektualitatea, bai. Mario Onaindiak astero zituen ideia berri bi, “sindromeak” deskubritzen hasi ziren... Polimilien saldukeria modernitatez jantzi zen, eta traizioaren laudoriozko artikulua irakurtzen ahal ziren orduan. Izugarritzko uholdea izan zen.

Nola islatu zen hori Oh! Euzkadin?

Oh! Euzkadi-ren barruan baziren diskusioak, biolentziari buruz etabar, nik uste dut detonantea izan zela Ramon Etxezarreta agertu zela pankarta batekin, Guibert edo ez dakit zein, azpeitiar bat, bahituta zegoela eta, askatzeko eskatuz. Hori izan zen aitzakia planteatzeko zer egin behar dugu hemen, posible da milien eta polimilien gainera idaztea? Planteatu zen ale bat bortizkeriari buruz egitea, baina artikulua bakarra azaldu zen. Inork ez zeukan gogorik hartan hasteko idatzian.

Gogoan duzu norena zen artikulua?

Neurea, Trotsky-ren “*Zuen moralala eta gure moralala*” lanean oinarritua.

Baina bi multzo garbi egin zineten, ala oraindik ere, halanolako afektuzko zubiak gordetzen zenituzten?

Beti eduki dugu hori. Eztabaidak eztabaida, edo eztabaida publikoak eta gordinak izan badira ere, nik uste dut elkarrenganako kariñoa, xeratasun bat, denok gorde izan dugula.

Ez diot ezetzik, egiazatzeko baizik ez dizut galdetu.

Orduan egin ziren bandoak mantentzen dira, eta horrek esan nahi du ez zela petralkeria.

Badago talde horiek definitzerik, grosso modo bada ere? Zein berezitasun zituzten, edo hobe esan, esan duzu bi aukera politikoren arabera antolatutakoak zirela, hori zen nabarmenki muga ezartzen zuena?

Baietz uste dut, ze gainerakoan denak ginen berdin, euskaltzaleak, ezkertiarak, PNVrekiko urrunak, literaturzaleak, etabar.

4

Laborategiko literatura ez dut gogoko.
Surrealisten lilura.
Espainiako “Azaren literatura” gora eta behera.
Literatura emergenteen lilura eta galegoak.
Salaketa literaturaren forma egokiari buruz.

Literaturari dagokionean, garai hartan, Nouveau Roman eta abar ziren nagusi European. Ez dakit, hala ere, guztientzat izango ote ziren erreferentzia.

Hor bakoitzak bere gustuak dauzka. Niri behintzat laborategietako literatura ez zait interesatzen, eta Robbe-Grillet eta hauek esan zuten iritsia zela, *La mort du roman*, Nobelaren heriotza, alegia. Nik uste dut benetan akabatu zutenak beraiek izan zirela, adibidez ikusten badituzu gaur egun Philip Sollers-ek egiten dituen kaka zaharrak, bada, agerikoa da hil zutena berpiztu behar izan duela, berak proposatutako bide hura agortua zelako.

Ez zara frantses-zale orduan.

Ba egia esan nire ustez hogeigarren mendean izan den iraultza handiena, letretan, surrealisten izan da.

Zein egileri buruz ari zara? Alfred Jarry batez, esaterako, ala bigunagoak?

Apollinaire, Breton, Saupault, Desno, Eluard, Reverdy... horiek denak asko maite ditut, eta uste dut benetan, barne indarren askatzea, subkontzientearen, ametsen eta horien guztien azalratzea oinarrizkoa izan dela literaturaren garapenean.

Badakizu guztiz harriturik naukazula? Lehenengo albistea dut hau horretaz, ez nuen sekula usteko. Gehiago hartu izan zaitugu sinbolistatzat eta beste esparru batzuetako influentziak jaso dituen idazletzat...

Ba horiekin egin naiz idazle ni. Surrealistekin.

Harrigarria egiten zait.

Baina nire lehen poema liburuak horixe besterik ez dira, surrealismo xalo bat! Eta begira ze poeta itzuli ditudan nik: Maiakovski eta Salvat-Papasseit, bata futurista eta bestea surrealista!

Sartre baten hurbilagoko uste zintudan.

Sartre inportantea da gure idazle kontzientzian. Miresten dut bere inteligentzia, baina ez nau bere literaturak betetzen. Eta alderdi zibikotik, Sartre, azken finean, dibino bat da.

Dibinoa, baina Renault-era joan zen grebalariengana, eta Nobel Sariari uko egin zion...

Bai, baina beti izango da niretzat *Gauche divine*-koa, eta ezin dut hori irentsi, ailegatzen ez naizelako edo sentsibilitaterik ez dudalako... ez dakit.

Gauza bera gertatzen zait hainbat katalanekin ere, batez ere Bartzelonako nukleokoekin... Horien literatura baino ederragoa egiten zait beraiek mesprezatzen zuten Espainiako "Azaren literatura", Gaztelako literatura idor hori. Haiek ez duten mintasun bat sumatzen dut lehen garaietako Sánchez Ferlosio hura irakurriz, edo Ignacio Aldecoa, esaterako.

Badago bat baino gehiago hori kritikatu edo eztabaidatuko dizunik.

Ni neure burutik ari naiz, ederkeriak eta laborategiko ariketak baino askoz gehiago interesatu zaizkit literatura emergenteak, gure kasuarekin alderatu daitezkeen literaturak. Esate baterako, literatura gailegoak, oso ezezaguna den arren, gauza ederrak ditu. Nik ere nahi nuke, izan dituzten zenbait idazle guk izan bagenitu.

Castelao eta...

Castelao, Rosalía, Curros Enríquez, Manoel Antonio, Blanco Amor, Méndez Ferrín... Maila handiko idazleak.

Cunqueiro ez duzu maite?.

Cunqueiro ez zait hainbeste interesatzen, beti ziklo arturikoan bueltaka, talentu handiko eskapismoa da hori.

Nola maite lezake "Azaren literatura" surrealista miresten dituen batek?

Nik katalanekin alderatu dizut gaztelauena, hain zuzen, haiek hori mesprezatzen dutelako. Autentikoagoa iruditzen zait, ordea, zer edo zer aportatzen duena eta baduena espiritu mindu bat.

Formalismo hutsa baino maiteago dut forman huts eginiko mezua. Eta nire gustuaren berri behar bezala emateko, edo irakurlea erabat nahasteko, esanak esan, abisatzen dizut niri Aldecoaren ipuin errealista horiek motzak iruditzen zaizkidala, ez ditudala deus ere maite. Literatura erraza iruditzen zait, konformista, azken finean. Denuntzia ezin izan liteke konformista forman. Tira, betiko kontuak.

5

Euskarazko literatura ia guztia irakurri dut.
 Miranderen gora beherak.
 Ipuina eta poema: zein da zailago?
 Aresti eta Saizarbitoria.
 Kafkaren hautua.
 Eredurik ez dago.
 Geltokiko literaturaren aurka.
 Hizkuntzaren ajeak.

Orain arte atzerriko literaturen influentziaz mintzatu zara, baina zure lanetan agerikoa da euskal idazle zaharragoen lanak ere ederki ezagutzen dituzula.

Nik horiek denak oso gazterik ezagutu nituen, nik euskal literatura dezente irakurri dut, ia autore guztiak irakurri ditut. Hitz egiten ari naizenean, ez naiz manualetatik jasotako informazioa maneatzen ari, baizik eta niri zuzenki eragindakoaz edota nire iritzia ematen irakurritakoaren gainean.

Dudarik ez dago, Mirande batek horrelako zera bat eragin zidala, “*Haur besoetako*”k, baina zerabilen euskararen aldetik bakarrik izan zen hori. Niretzako istorio hura hain urruna zen, ez zuen interes handirik, hala ere bazegoen giroaren deskribapenaren inguruko balio handia eta, batez ere, hizkuntzaren aldetikoa.

Bitxia egiten zait Miranderen narratibagintza zuk hori baino gehiago ez maitatzea.

Mirande poeta bezala iruditzen zait interesagarria baina, aitzitik, prosalari txarra iruditzen zait, nahiz eta ez naizen gai sentitzen zergatia zehazteko

Poema on bat egitea niretzat askoz zailagoa da ipuin on bat egitea baino. Baina aldi berean, errazagoa da poema txar bat egitea ipuin txar bat baino. Horregatik miresten dut Mirande poetaren hainbat momentu. Prosalari bezala, aldiz, ez zait ona iruditzen eta askotan pentsatu dut ez ote den poesia errazagoa delako ziria sartzea. Errazagoa ote den distira pixka batekin eskastasunak gordetzea. Nik uste dut prosaren hori, oso zaila dela, lan jarraitua da eta ezin da formulekin estali, testuak korpus zabala hartzen du eta benetan larderia handia behar du batek.

Haur besoetakoak eragin zidana oso logikoa zen, eta niri bezala beste askori, ze lapurtera klasikoan irakurri genuen lehen istorio zibil ez-kostunbrista baitzen. Euskara unibertuala ukitzen ariko bagina bezala zen.

Mirande da miresten eta aldi berean ukatzen duzun bakarra?

Dudarik ez da, nire eragin handiena euskal literaturan Arestiren lanarena izan dela, eta batez ere bere figura publikoa, bere zibiltasuna... Beste alde batetik, Ramon

Saizarbitoriak asko erakutsi zidan, jarrera konbatibo eta errealitateari buruzko ernetasun horretan. Kontuan hartu behar da bera soziologoa dela formazioz eta lanbidez, beti zebilen azter dezagun hau eta bestea... Baina beste momentu batzuetan izugarritzko arrebatoak zeuzkan. Nik ere izango dut generen bat hor gaizki kokatua. Izanak izan, berari asko zor diot, ezin ordain litekeen horietako zorra dut berarengana.

Gehitxo esatea ez ote den ere...

Nik izugarritzko suertea izan dut, eta logikoa da zordun sentitzea. Atxagarekin eta Saizarbitoriarekin sinatu nuen gaztetxo nintzela. Egundoko kapitala eman zidaten, eta saiatzen naiz merituak egiten, a posteriori bada ere: neure bidean nabil, ez Bernardo eta ez Ramon imitatzen ez ditudala. Zorra ordaintzeko modua da.

Hala ere, haserre bat eszenifikatu zenuten, ez duela denbora asko Saizarbitoriak eta zeuk.

Zuk uste duzu eszenifikatua zela?

Zenbaitek pena apur bat hartu genuen, behintzat.

Beharbada bihotzeko programa horietako batean saldu beharko genituzke esklusibak. Ez dago horrelakorik, nik beregandik ikasi dut erantzun egin behar dela, idazlea gizartearen zati dela, hitza oso inportantea dela.

Begira dezagun atzerago, jo dezagun klasikoengana.

Gure klasikoak ere irakurri ditut, eta pairatu dut gure literatura ofiziala. Asko dago errebisatzeko, asko dago oraindik deskubritzeko... Irakurketa berri bat egin beharko genuke, iritzi oker asko dago.

Alde batetik literatura unibertsala dago eta bestetik, gure literatura umil eta murriz hau. Nola bizi izan duzu paralelotasun hori?

Paralelotasunik ez dago, hori da lehenengo gauza. Gu urrun egon gara eredu unibertsaletatik.

Barkatuko didazu horrelako adibidea hartzea, baina oso ongi ulertzen dut Kafkak zuen hizkuntzaren kezka hori eta zergatik egin zuen alemanaren hautua: Yiddisa erlijio hizkuntza zen eta guztiz kontaminatua, ez zuen balio esan nahi zuena esateko. Oso ongi ulertzen dut hautu hori, zeren momentu batzutan euskara bera literaturarako baliaezgarri utzi baitigute ia-ia hiztegi gileek, araugileek, gure klasiko guztiek, apaizek alegia... Badirudi Estatuak eta Elizak egindako hitzarmen bat izan dela hizkuntza bat itotzeko.

Estatua eta Eliza elkar hartuta? Hori ez da horrela izan beti. Iparraldean behinik behin, ez dirudi horrela denik

Estatuak debekatzen du, eta Frantziaren kasuan hori oso nabarmena da, estatuak pertsekutzen du hizkuntza, baina Elizari uzten dio erlijioaren alorra. Euskararen, eta bretoieraren, esparru publiko ofizial txiki bakarria erlijioa izango da. Beraz, alde batetik ukatu egin zaio bizi normal bat, eta beste aldetik ematen zaion janaria kutsatuta dago. Badirudi elkar ulertze bat dagoela hor kultura itotzeko, eta Frankismoan ere berdina da. Ez naiz batere harritzen Unamunok euskara lurperatzeko gomendatzea!

Eta nola ateratzen da hortik euskal idazlea?

Hizkuntza apurtuta irten behar du. Horregatik ulertzen ditut ondo Maiatz-eko lagunak, beraien euskararen “kaosa”, frantses influentzia... nik uste dut Iparraldeko euskarak iraultza bat behar duela, eta horretan ari direla. Eta Euskara Batuak berak ere, iraultza bat behar duela oraindik, alor asko eta askotan ez da posible.

Fraide edo apaiz integrista ikaragarri batek, Hiriart-Urrutik, politiko baten abizenarekin egindako burla, “perttolikeria” alegia, pasatzea gure hiztegieta gezuraren sinonimo bezala, ikaratzekoa da.

Zuk zerbait “aitaren batean” egin zenezake. Eta horren ordezkoko lokuziorik? Zergatik onartu behar dut jator bezala Elizaren inposaketa? Hori indarrean jarri da, eta hori hizkuntza hondatu eta kontaminatzea da. Deskontaminazioa, berriz, kutsatu berri bat hartuz egingo dugu: mailegu zikin asko ekarriz, nahitara euskara “txarra” eginez... Nik uste dut hori beharrezko txarranpina dela. Arraioa, Goenkale-n egunero ari dira “kristaua” hitza erabiltzen jatoreria nazkagarri batean!

Ba ote?

Bai, euskara jatorrean “kristau” hitzak hartu du “pertsona” hitzaren lekua! Kaka alu bat egiten diot nik euskara jator horri!

Hortaz, eredurik ez daukagu.

Ez. Nik idatzi nahi dudanerako ez daukat eredurik eta nik uste dut idazleok ez dugula erduekin jokatu behar.

Hizkuntza aldetiko erreferentziarik ere ez?

Momentu batzutan bai, baina oso modu partzialean, bakoitzak bere zera dauka. Nire iritzian, idazle batengatik esan litekeen gauzarik ederrena estilo bat daukala esatea da. Idazle, izan ere, formagatik gara. Estiloa beharko dugu, beraz.

Hasi zinenetik hona, ez du hobera egin horrek?

Nik uste dut izugarri aurreratu dela, gertatzen dena da orain planoak lerratu egin direla. Komunikabideetako euskara bat garatu da, lehen ez zegoena, estandarizatu egin da. Gaizki edo ondo gorpuztu da. Baina badago euskara estandar bat, seguruena gipuzkoartua, eta espainol samarra dudarik gabe, baina hori badago, lehen ez zegoena, formula mordo batekin.

Beste alde batetik badaukagu korpus ikaragarri bat dokumentu ofizialena. Euskara hauek inbaditu egin dute literaturaren eremua, eta literaturak baliabide errazetara jo du, alegia, zentzu zabalean, masa literaturaren estiloa nagusitu da.

Zeuk atera duzu masa hitza. Esan ote liteke irakurle masarik badugula?

Orain badugu irakurlego minimo bat eta badago irakurlego multzo bat irakaskuntzaren bitartez datorrena. Baina horrek zirkulu bat sortu du, masarentzat idazten da propio. Beraz, momentu honetan, literaturaren etsaia liburua da, mahai berean baitaude literatur bokazioarekin eta autoexigentzia minimo batekin idatzitako zerbait eta zaborra. Irakurlegoa zabaldu behar delakoan edo aitzakia horretan, eta gero eta gehiago produzitzen eta itzultzen da horretatik, Harry Potter eta bestelako.

Badago geltokietako literatura bat, eta batzuk esango dute zorionez dela. Ba horren kontra borrokatu behar dugu guk. Beraz, literatura exigente bat egin nahi duenak eredurik ez dauka, eta aldiro asmatu behar ditu bere espresioak. Nire ustez euskarak oraindik asko dauka bihurtzeko eta apurtzeko, non eta formulatan funtzionatu nahi ez dugun.

Literaturaz gain, “zerbitzuzko” lan asko egindakoa zara: itzulpenak, antologiak, hitzaldiak, gidoiak... Euskara beraren egoera ikusteko talaia paregabea zurea.

Hizkera literario guztiek dituzten problema berak ditu euskarak, zorionez. Hala ere erne ibili beharra dago kontu berri batekin: euskararen beraren kontaminazioarekin. Lehen gaztelaniaren influentziarekin bizi ginela esaten genuen, momentu honetan euskarak berak kutsatzen nau. Euskaraz sortutako hainbat amankomunitasun eta leku topiko horiek, klitxeak eta, bihurtzen zaizkit arazo.

Adibide bat.

Asko dauzkagu, ez dauzkat zerrendatuak.

“Egoera” esate baterako, niri oso gogorra egiten zait “espaloia egoera txarrean dago” idaztea, ez zait hizkera ona iruditzen, eta hala ere hori da hizkera kultua, “espaloia txarto dago” ez da kultua. Ni nago kultua ez den hori dela literarioagoa. Horrelako asko dauzkagu, gure komunikabideek sortzen dute hori. Orain edozein momentutan esaten edo idazten dugu “azpimarratzekoa da” edo “azpimarragarria da”. Hori euskarak behar dituen baliabide ugari horietako bat da, baina niri behintzat oso gogorra egiten zait neure hizkera literarioerako erabiltzea. Berdin “hitz potoloak” edo “ustea ustel irten zitzaion” edo... Ernetasun batean bizi behar dut euskara errazaren aurka. Lehengoan esatari batek autoko irratian abisatu zidan “Madonnaren abestirik entzutetsuena” ipini behar zuela. Zer ote da hori? Film bat, izan liteke “ikustetsua”?

Kutsadura horien beldur idazten dut. Orain kazetari hizkera bat daukagu, lehen ez genuena. Eta hizkera komunikatibo huts horretan idatzitako literatura asko daukagu. Eta paper ofizialetan sortutako mordoilo hori, lehen ez genuena, berbaje ofiziala.

“Edozein kasutan”, “suposatzen dut” eta halakoak ere bai.

“Edozein kasutan”, “edozein modutan”... mundu guztiak esaten du, baita Kontseilukoek ere, eta zu ere kutsatu egin zaituzte. Hori gaztelaniaren eragin bat da, eta “nolanahi dela ere”, “edonola ere”, “zernahi gisaz”... horiek denak ordezkatu ditu. Hori oso detektablea da, baina euskarak berak sortzen dituen formulak, errazkeriak, horiek arriskutsuagoak dira, eroso sentitzen garelako.

Lehengo batean testu bat berrirakurtzen ari nintzen, eta ia leihotik bota nuen burua, “estu eta larri” idatzia neukala ikusi nuen. Ulertzen duzu, guk, idazleok, formula egokien aurka joan behar dugu, beste hizkera bat proposatu behar dugu, jasoagoa edo zakarragoa, baina sekula ez eroso faltsu hori. “Estu eta larri” formula bat da, topiko bat, ezertarako balio ez duen berbakeria hutsa.

Gozatu handiak hartuko dituzu orduan “desbideratu” eta horrelakoak irakurrita, ezta? Lehengoan “eguraldi desatsegina” irakurri nuen nobela batean. Esan dizut lehen ez naizela filologoa, eta badakit piezak bere osoan hartu behar direla, nobela ezin litekeela

hitz batengatik kondenatu. Baina idazlearen tresna hizkuntza da, eta erotismoa egiteko, esaterako, idazkerak berak pikante pixka bat behar luke, hizkeraren beraren erotika baliatu behar luke idazleak. Ez dut konprenitzen baliabide linguistikoei muzin egiten dien kontalaria.

Nik ez dut formularik ematen, neurea ez da kanon bat. Alabaina nik neure buruari exijitzen diot fintasun bat: adiera anitzak, ironia, umorea... Irakurlea umetuko ez duen testua egiten saiatzen naiz.

Ikusi zaitut hitzak apurtzen, hitzak asmatzen ere, Sabino Arana ematen duzu batzutan

Umore gehiagorekin, inondik ere.

Bai, hori esan nahi nizun. Aipatu duzu euskararen ezintasuna, behintzat neurri batekoa. Horri aurre egiteko zuk hitzak hizkuntzaren barnetik sortzen dituzu zenbaitetan.

Bai, euskarak ematen dizkidan baliabideak dira, ezintasun hori gaindituko dugu hor barrenean dauden baliabideak erabilia batere konplexurik gabe.

Jarri adibideak.

Nik hori polito erabili nuen Agirre zaharraren kartzelaldi berriak nobelan, egia da: “zuen askatasuna ez da akastasuna besterik”, “zure haginduetara naukazu”, Ez dut uste izugarritzko aurkikuntzak direnik, merituren bat hartzekotan onartuko nuke saiatu nintzela irri gazi-goza eragiten, joko hutsalak ez egiten.

Horretan maisu handi bat daukagu denok, eta Antton Olariaga marrazkilaria da. Beste asko baino lehenagoko euskaltzain ohorezkoa behar luke. Idazle handia da, gure Elkarteko ohorezko bazkide proposatzen dut.

Beste jeneroetan onartzen duzu euskara estandarra edo apalagoa erabili beharra? Kazetaritzan eta abarretan?

Azken urteotan asko garatu da kazetaritza, eta azpigeneroak sortu ditu. Nik literaturan sartzen dut kronika, esaterako, baita artikulismoa ere. Xabier Mendigurenek eta biok egin genuen literaturaren historian kronista batzuk sartu genituen.

Baina hor onartzen duzu nolabait hizkuntzarekiko holako kezka permanente bat edukitzea, edo hobeto esanik komunikazioaren arauarruntetan eta makurtuagoak.

Bai, gertatzen dena da hori ere ez dela horrela. Kronistek ere askotan beren balioa erakusten dute euskara ofizialaren azpitik ari direnean. Batxi Bilbaoren kronikek, esate baterako, Iñigo Aranbarrak eta biok deskubritu genuen idazle zorigaiztoko harenek, horixe erakusten dute. Bere garaiko Kirikiñoren euskararen azpitik ari da, eta horregatik da interesantea. Kontatzen duena kosmopolita da, beste mundu ikuskera zabalago bat, eta aldi berean garaiko euskara ofizialaren azpitik, herrikoi, izugarritzko indarra daukana. Ez da ari euskara ofizial batetik, bere euskara ez da plana, beste euskara bat da, sabinismotik urrundua, basagoa, ez da landua. Hain zuzen, oso literarioa da.

Lehen ere esan duzu apur bat baina, euskal idazlea, bai, baina erdal hizkuntzak espainola eta frantsesa alboan..

Portugeses eta gailegoak ere alboan ditut.

Inoiz tentaziorik bai beste horietan aritzeko?

Zertarako?

Publizitaterako, munduan irakurria izateko...

Zuk uste duzu Lizardik gaztelaniaz idatzi izan balu irakurriko zuela gaur inork? Alabaina, idazle unibertuala dugu. Nik saiatu behar dut ahalegina egiten gerora ere interesgarriak izango diren gauzak idazten. Eta hori mundu bat da: bere garaian Lizardi erdaraz irakurriko zuketena baino askoz ere gehiago dira euskaraz egundaino irakurri dutenak.

Eta itzulpenaren garrantzia? Hor, gaur egun gero eta gehiago itzultzen dira euskal lanak beste hizkuntzetara, zer garrantzia ematen diozu horri?

Handia, baldin eta zabalduko balira. Gehiegi begiratzen dugu hegoaldera, eta ez gara konturatzen merkatua mundua dela, ez bakarrik estatu espainola. Hor ahalegin instituzional handi bat falta da Euskal Herriaren aniztasuna erakusteko, bai musikan, bai literaturan, dantzetan ere, munduan barrena.

Orain arte egin diren pausoetan, nahiz eta zabaldu gabe, zein itzuli iruditu zaizu interesgarria? Baditugu zenbait autore, hor zertxoena aipatzeko hor dago Atxaga, ikusi duzu horrek nolabait nonbaiten interesa piztu duenik, gure literaturekiko? Inork eskatzen ez badu, zertarako itzuli? Hori ere badago azpian.

Ez itzultzearena konplexu bat ere izan zitekeen. Baina orain esaten ahal dugu: guk hau egiten dugu, gure hizkuntzan egiten dugu, eta ez dago inolako oskol babesgarririk ez beste ezer, hortxe duzue zeuen hizkuntzan isuria, eta egiten dugun mediokritatea hau da, zuek egiten duzuenaren parekoa. Interes handirik sortuko ez badugu ere, nahi duenak hor dauka. Inork ez duela nahi? Hala ere, hau gara, ez dugu gezurrik esaten. Itzulpenak horixe dauka.

Hori batez ere instituzioetatik ikusten duzu

Bultzada mota hauek hala egin behar dira, ezta? Fragak, Galiziako Xuntak hasieratik, eta zenbat urte, automatikoki saritzen ditu galegotik itzultzen diren obra guztiak. Galegotik obra bat itzultzeagatik edo itzultzen denean, Xuntak pagatzen du itzultzailearen lana. Jaurlaritza aurtan hasi da horretan, ez automatikoki baizik eta lehiaketa baten bitartez. Brasilgo gobernuak, halako kontinente batek, zer premia dauka bere obra euskaraz jartzeko? Hala ere, obra bat itzultzen denean, brasildar batena itzultzen danean euskarara, Brasilgo gobernuak pagatzen du, eta hala jarria dago mundu osoan. Promozio hori egin behar dutela instituzio publikoek... “Ven a Euskadi, y cuéntalo” Baina ez ezazula behartu mundu guztia hona etortzera, zoaz zeu ere munduan barrena kontari! Hemen gaztelaniaz egindako zineari eman zaion tratamenduaren herena eman izan balitzaio musikari, esate baterako, gure musikagileak aiseago ibiliko lirake Alemanian, Italian, Txekian, Frantzian...

Hastapenetan gaude. Alde batetik bai, itzultzaileak baditugu, edo eduki ditzakegu, baina gero beste problema zailagoa dator, distribuzioa dator, beste herrietako merkatuak datoz, badaude horretarako jarriak edo oraindik bidea luzea da?

Euskal zinema zerekin eraman izan da? Ba delegazio komertzialekin, Eusko Jaurlaritzak beti alokatu izan du pantaila bat erakusteko Buenos Airesen, Nueva Yorken, ez dakit non, Idahon. Literatura gauza iraunkorragoa da, eta merkeagoa. Eta orain Internet dago, egundoko aukera daukagu munduratzeko.

6

Historiaren pisua.
 Bihotza dut ezkerrean.
 Eskolako putakume haiek.
 Biolentziak iraultzailea behar du.
 XXgarreneko poesia.

Zure literaturgintzan historia hurbilarekiko halako lotura bat nabari da, bai behintzat zure bi nobelatan: Nik ere Germinal egin gura nuen aldarri, eta Agirre zaharraren kartzelaldi berriak.

Zer nahi duzu, bada? Nik hamabost urte nituen 1968an. Txabi Etxebarrieta hilik, Sarasketari heriotz zigorra, bi urte geroago Burgosko epaiketa... horiek guztiek eragin zuzena izan zuten nire formakuntzan. Eta Che Guevarak, Boliviako gerrillak, Vietnamek... neure nerabezaro guztia baldintzatu zuten. Hor kokatu ninduen munduak eta ideal haietan sinesten dut gaur ere.

Aipatu ditugun bi nobela horietako protagonistak, Angiolilo eta Metxa, munduan zapalduenak dira baina, hala ere, nolabaiteko ekintzaile etikoak ere badira. Euren ustea azken muturrera eramaten dituzten horietakoak.

Koherenteak dira, baina ez estereotipoak. Ez dira heroi positiboak, sozial errealismoaren heroiak alegia. Indibidualtasun handia dute biek, eta horretan oinarritzen da beren amorrua. Korrontearen kontrakoak, nolabait.

Urte batzuetatik hona bestelako heroia dago modan, ohia, izandakoa, derrotatua edo zinismo hutsean bizi dena... Ez zait pertsonaia interesgarria iruditzen. Ezagutzen ditut halako batzuk, eta ez dira batere pertsona interesgarriak. Eta historian berdin.

Nik ez dut ulertzen oso ondo nola egon litekeen *au dessus de la mêlée*, eta idatzia daukat, bat nator Jon Juaristirekin, egia esan Eli Gallastegiren jarrera ez dut ulertzen, alegia, gerra hau ez da euskaldunona, eta beraz ni Irlandara noa...

Ba nik uste dut gerra guztiek inplikatzeko gaituztela, nola edo hala. Ben Ladenen jarreraren badago, esate baterako, elementu antinperialista bat, ez du zergatik izan behar ezkerrekoa, islamiko atzerakoia izan daiteke, baina badauka osagarri antinperialista bat, Malvinetako gerra hartan gertatu zen bezala, ezta?

Bai baino nolabait ere hori badakigu, Ben Laden nolakoa den edo, jakin uste dugu

Irudi bat daukagu. Izena ere “Bin” ipini diogu euskaraz. Orain arte “Ben Bella”, “Ben Gurion”, “Ben Jelloum” esaten eta idazten genuen. Bitxia da Ben Laden-en inguruko albisteek jakinarazia “Ben” hori “Bin” izan litekeela. Uste duguna baino kolonizatuagoak gaude.

Argi eta garbi, ezkerreko egile bat dugu Izagirre?

Ez dakit, ni ezkerrekoa naiz, pentsatzen dut nire lanek edukiko dutela horretatik, ez naiz ezkututzen.

Agian hortik dator historiaren presentzia hori zure obretan.

Nik historia eta errealitatea behar ditut. Fikzio hutserako ez dut balio, ezer errealik gabeko fikzio bat asmatzeko ez naiz gai. Errealitatetik abiatu behar dut, eta beharbada badaukat "akats" hori. Baina loturak gainditzen saiatzen naiz, errealismoaren kontra nago, esan dizut lehen ere surrealismoa dela niretzako izan den iraultza literariorik interesanteena XX. mendean, beraz ezin ninteke egon errealismoaren alde, ezta sozialista esan zaion horren alde ere.

Errealismoaz ari zarelarik, errealismo burgesa ote nagusi gure letretan.

Bai, hala da. Burgesiaren baloreak ukatu edo ez, nire iritzian badaukagu literatura bat, korpus handi bat, burgesia deslustratuaren balio estetikoak erabiltzen dituen: exotismoa, arintasuna, hizkeraren ulergarritasuna, kontraeraren linealtasuna... Eta gaiaren aldetik, ba behin eta berriz ageri da zapalduetikiko gurasokeria...

Biolentziaren eta errepresioaren presentzia ere handia da zure idatzietan. Agian zeuk ere pairatu dituzulako, nolabait.

Nik ezin dut holakorik esan. Iratxe Sorozabalek pairatutako torturak irakurri berri ditut oraintxe, horren berri daukanak ezin du esan ezer pairatu duenik. Baina idazle batek idatzi dezake literatura beltza eta hainbat krimen deskribatu, berak jakin gabe zehazki zer sentitzen den norbaiten zintzurra labanaz pasatzen denean. Oso ondo deskriba dezake hori, edo behintzat erreal bezala pasarazi. Hori da idazle handien talentua, hain zuzen: "balitz bezala" idaztea.

Pairatua bazina bezala, beraz

Biolentzia.... Nik kartzelaldi handi bat, bederatzi urtekoa, pairatu nuen Lasallen, Donostiako Loiolako Lasalle ikastetxean. Sartu nintzen lehenbiziko egunetik tortura ikusi nuen, eta bederatzi urtez tortura baino ez nuen hartu.

Geroztik ikusi izan ditut torturatzailer horiek, eta behin bati galdetu nion esplikazioren bat, eta "beste garai batzuk ziren" erantzunda, hor konpon. Baina garai haietan, bederatzi urte genituenok torturaren kontra geunden! "Beste garai batzuk ziren", baina orduan ere guk ez genuen torturarik nahi, beste garai batzuk izan arren, eta gu solidarizatzen ginen torturatuarekin: makilkazoak, muturrekoak, zigor sadikoak, bortxaketak...

Gure heroirik handienetako bat izan zen, eta beti izango da, Lasaga izeneko ikasle bat, bere osaba fraileari masaileko bat eman ziolako guztion aurrean. Expulsatu zuten... Hark eduki zuen kemen fisiko eta morala torturatzailerari zaplada bat emateko. Urte haiek izugarriak izan ziren, egizu kontu gure irakasleen ezizenak: *El Oso*, *El Pantera*, *El Aguila*... Lasallen ez genuen ikasi gezurra esaten eta beldurra pasatzen besterik.

Biolentzia fisiko hura, gero, biolentzia instituzionala bihurtzen da eta ikaragarria da, ze gaur egunean ni defendatu behar nauena ikusten dut umeak zanpatzen zituen legionario haietako bat dela...

Lehen zen hermano Javier eta orain da Xabier, eta berdin erdaldun jarraitzen du, eta izendatua dago ni defendatzeko. Oso barneratua daukat biolentzia, bai.

Nik bederatzi urte nituen eta torturaren kontra nengoen, eta ni torturatzen ninduen instituzio hartako kide bat dago izendatua handik hogeita hamar urtera ni defenditzeko. Hori niretzat sekula gaituzeko ez dudan trauma da, ezin dut sinetsi gizarte honen bakean. Nola irudika nezake biolentzia instituzionalizatuago bat?

Ez da ordea biolentzia bakarra, bada beste biolentziarik gure eguneroko ibilera eragiten duenik. Ez nintzen biolentzia instituzionalaz ari...

Beste biolentziak noski badaukala eragina... Gutxi edo gehiago, resistente izan den belaunaldi baten barrenean nago ni ere, eta biolentzia praktikatu du belaunaldi horrek.

Zure azken nobelako protagonistak harreman zuzena dauka indarkeriarekin.

Nik dakidala behintzat pertsonaia horrek ez du ekintza biolento handirik egiten, eta gainera esplizitoki esaten du biharko egunean motin batean edo, hauetako kartzelero zera bat, gure esku baldin badago, inork ukitu baino lehen nire gainetik pasa beharko duzue, mundu guztiak merezi baitu epaiketa justu bat.

Beraz, pertsonaia ez dago mendekuaren alde, ni ere ez nago mendekuaren alde, eta benetan uste dut biolentziaren ondorioak, egun, ez direla on aurrera egiteko prozesu politikoan. Momentu honetan ez dutela masaren kontzientzia handitzen, baizik eta jaitsi egiten dutela, eta benetan badirudi medioak helburu bihurtu direla.

Deklarazio hori hemen egiteko ez daukat arazorik. Biolentzia guztiak ez dira iraultzaileak, eta bada momentu bat indarkeria ez dena politikoki errentagarria ezkerrentzako, ez duelako gizartearen hoberako aldatzen laguntzen. *Borroka da bidea* dio esloganak, baina bidean aurrera ezinik gabiltza, hain zuzen borroka mota horrek immobilismoa ekarri duelako.

Zure lan askotan, nola poesiakoetan hala narratiban, gabeziak emaniko mina nabari da: herriaren mina, hizkuntzaren mina...

Ni kontzeptu abstraktueterako oso txarra naiz. Gehien eskandalizatu nauen pintadetako bat ez dakit ezker edo eskuin abertzalearen pintaketa bat izan zen Galdakaon, zera zen: "No tengo hambre de pan, sino de patria". Benetan ogi gose daudenen alde nago, eta aberria ogia da lehenik.

Aberria, herritasunaren kontzeptu popular batean ulertzen dut, niri aberria eta gauza horiek beldur handia ematen didate... Idatzia dut nonbait aberri guztiak txikiak behar luketela. Gramsciano samarra naiz.

Non dago Basques' Harbour poema liburuan, gabezia ageri da, bada.

Galdera hori, "Non dago Basques' Harbour" erretorikoa da, ezta? Galdera horrek berak adierazten digu inportantea bidaiatzea dela, hain zuzen, eta ez portu batera iristea. Inportantea bidaia da, eta gero eta gehiago, eta gero eta gorago, eta gero eta libreago, eta gero eta zapalketa gutxiagorekin, eta gero eta harreman jatorragoekin, eta nik uste dut hori maila guztietara interpretatuta ere, hartzen dut nire gain helburua bidaia

dela, helburua ez dela gauza arruntetan islatuko. Euskal Estatua ez zait batere interesatzen.

7

Euskara eta nazionalistak.
 Generoen arteko dantza.
 Nobelaren magia.
 Ez gara belaunaldi. Ala bai?

Euskara eta euskal nazionalismoa, bidelagun lagun izan dira, zertan lagundu diote elkarri, edo zertan egin traba?

Ni ez naiz historialaria, baina iruditzen zait nazionalismoak ia ito egin zuela euskara. Egia da bazterrak harrotu zituela, edo ur uher hori mugitu zuela, edo nola edo hala izan zuela eragin bat, baino hori oso arriskutsua izan zen. Izugarritzko distantzia zegoen idazten zuten eratik irakurle posiblearenganaino. Ez zuten sinesten idazten zuten moduan, eta ez zuten sinesten herrian. Orduan, egia esan, mesede egin zuen agitazio aldetik, eta gero praktikan izugarritzko kaltea. Nazionalismoa sartzen denean hizkuntzaren terrenoan beti kalterako da, beti datoz purgak eta gero gaztelaniak pairatu duen gauza bera mende erdi batean Espainian...

Nazionalistek ez badute euskararen alde egiten, nork egingo du, bada?

Gure drama txiki burges koxkor honen zati bat ere hori da. Alderdi abertzaleak mugitzen ez badira inor ez da mugituko euskararen alde, eta alderdi abertzaleak mugitzen direnean euskararen alde, euskara politizatu egiten da. Inperialista linguistikoen betiko leloa da. Hori askotan esan izan zaigu, baina gertatzen dena da, zorionez edo zoritxarrez, abertzaleak ez diren alderdiak mobilizatzen direnean errepresiorako dela. Buruzagi batzuen borondate oneko diskurtsoak gauza bat da, baina eguneroko praktika eta zer aliantzak egiten dituzten azpitik Nafarroako sozialistek karka handienekin beste kontua da. Orduan, hala jarraitu behar dugu, eta hor drama txiki bat da neurri handi batean, nik ere nahiago nuke PSUC bezalako gauza bat edukiko bagenu eta denok katalanistak izatea, eta euskaldunak izatea derrigor abertzale izan behar gabe. Baina ez dut holakorik ikusten orain. Etorriko da, hala ere, eta etortzen denean izugarri poztuko naiz.

Orain arte idazteko eta idazle izateko zertan izan duzu trabarik handiena, soldatan, hizkuntzan, publikatzeko zer zure buruarekin, krisiak izan dituzu?

Tokatu zaidan garaiagatik eta nire belaunaldiagatik, nahiko erraz eduki dut publikatzearena. Nik orain nahi nukeena baino gehiago publikatu dut, nire efigiea lantzen hasiko banintz ba eliminatu egingo nituzke hainbat lan, ia denak, eliminatu egingo nituzke, horiek beste norbaitek idatzi izan balitu bezala, ni halako urtetan hasten naiz esan ahal izango banu bezala.

Konpetentzia gutxi edukitzeak eragingo zuen hori.

Bai, orduan dena zen inportantea, idazten zen guztia, argitaratzen zen guztia genuen inportantea. Gero urteak pasa dira eta testu horiek erori egiten dira, ezta? Baina

bere momentuan inportanteak dira, edo hala dirudi. Beste tratamendu bat hartzen zen, izugarrizko garrantzia ematen zitzaion, oso gutxi argitaratzen zelako...

Eta orain, testu txarrak idazten omen zituen hura idaztetik bizi da...

Eta ez daukat inora joan beharrik fitxatzera, zapatiletan egiten dut lan, etxean gozo, nik nahi dudan moduan, eta abar... Beraz, ez daukat kezarik, euskaraz idaztetik bizi liteke, ez euskal literaturatik, ni behintzat ez, baina euskaraz idaztetik bai.

Audiobisualetarako testuak egitetik, halako erakusketetarako ez dakit zer eskatzen didatelako, gero itzulpen bat edo beste, noizean behin, lehenago gehiago egiten nuen, orain gero eta gutxiago. Seinale ona, merkatuak aurrera egin duelako seinale, badago industria bat.

Idazle bezala ikusi zaitugu baita oholztza gainera igota ere, ikusi zaitugu epaiketetan deklaratzeko, ikusi zaitugu hitzaldiak ematen, eta hontaz, hartaz zure adostasuna edo kontrakotasuna agertzen. Uste duzu gure gizarteak eman dizun idazle papera puztuegi egon dela, beste gizarte batzuetako idazleekin konparatuz, ala berdintsua izan da?

Nik pertsonalki uste dut gainbaloratua nagoela eta elkarrizketa honi baietz esateak ere hori areagotu besterik ez du egiten. Hor banidade kontu bat ere egongo da. Ze egia esan, ezetz esan behar nizun... Nik beste anonimatotasun bat nahiago nukeen, baina hala tokatu zait.

Beste alde batetik, lehen ez genuen gauza bat daukagu orain, eta komunikabideak dira, guk gure komunikabideak ditugu, euskarazko komunikabideak, lehen ez genuen hori. Seguru asko edukiko ez bagenitu, obra berdina edukita ere, askoz anonimoagoak izango ginatke guztiok. Orain berriz, idazten ari zarela ere ia notizia da, sartzen da albiste bezala, idazten ari da, edo Interneten jarri du halako zeraren bigarren kapitulua....

Idazleok puztuegiak ote gauden? Kirolariekin konparatuta ez. Eta beste gizarteetan eta? Bueno, nik uste dut euskal idazleok apaltasun handia daukagula. Izan liteke horrelako konplexuren batengatik, baina Frantziakoak eta Espainiakoak ikusita, kontxo!, komunikabideetan, tertulietan, beren sinatzeetan, beren liburuen aurkezpenak nola egiten dituzten... Apalagoak garela uste dut. Gure hizkuntzak ez du eduki eta ez du edukiko inperiorik puska batean, eta hori abantaila da normal samarra izateko.

Zure idazteko moduaren beste zeretako bat, nahasketarena dela esango nuke. Generoak ez dituzu argiro erabiltzen. Poesia narratiboa egiten duzu zenbaitetan, eta narrazio poetikoa. Zure kazetari kronikak ez dira izaten kronika huts, beti badute ukitu literarioa... Gogoko duzu nahasmendu hori.

Bai, ze generoena klasifikazio akademiko bat besterik ez da...

Hori gertatzen da, esate baterako, Pako Aristiren poesiarekin. Horiek jarriko bagenitu jarraian esango genuke, sketch batzuk dira, istorioak... Baina poesiaren forman ikusten ditugu eta, bueno, horrek ere zerikusia dauka, hitzak espazioan hartzen duen lekuak badu bere garrantzia... Egundoko magia dute Aristiren poemek.

Ez nuke esango gauza berbera denik, baina

Adibide bat da eta hala ere poesia da, horretan ere Atxagak gauza ederrak egin ditu...

Azken finean eskura dauden baliabideak erabiltzea da. Eskura ditudan baliabideak erabiliko ditut testu honetan. Niri ez zait hainbeste inporta prezeptiba baten barrenean nagoen ala ez.

Bi kronika liburu idatzi ditut, “Merry Christmas Panama” eta bestea urte batzuk lehenago, “Ez duk erraza konpai” Kubari buruzkoa. Kubari buruzkoa nahiko fantastikoa da, nolabait esatearren. Badu fantasiatik, badu fikziotik, eta baditu erreportaia zati batzuk ere. Gero nahasten dira pertsonaia asmatuak eta benetako biztanleak... Kronika hori hibridoa da, eta jende batek ez du estimatuko, hau zer da nobela bat edo adarra jotzen ari da edo zer?

Esana duzu errealismoaren kontra zaudela...

Bai, baina begira zer gertatu zitzaidan. Bigarren kronika liburu bat enkargatu zidatenean, eta seguru asko enkargua izateak ere edukiko zuen zerikusia nire erabaki honetan, neure buruari esan nion, bueno, lehen egin dut egin nahi nuena, eta idazle moduan, Izagirre idazleak egindako liburu bat. Ba orain jarriko naiz kazetari, eta hala egin nuen “Merry Christmas Panama”.

Liburu hori benetan da kronika generoaren barrenean ezerean aditibo literariorik gabe, literario zentzurik akademikoenean, garbi egindako zera bat eta uste dut kazetaritza dela. Neure buruari frogatu ahal izan nion badakidala hori egiten eta pozik gelditu nintzen. Gero Xabier Mendiguren lagunak esan zidan “ez zitzaidan batere gustatu, idazlearen inplikazio handiagoa espero nuen”. Beste zerbait espero zuen, idazlea espero zuen, eta horrek egundoko poza eman zidan. Alde batetik, neure buruari froga gisa ezarritakoa gaitzitu nuelako, kazetari lan hutsa eginez, idazleari stop emanda, Egunkariaren enkarguak behar zuela uste nuen moduan. Bestetik, generoen arteko baliabide ugartasun hori interesanteagoa zaiola irakurleari adierazten zidalako Xabierrek.

Asko erabili ohi duzun beste erreminta bat ironia da.

Umorea arma ona da, eta herri xehearen umorea ironian oinarritzen dela uste dut. Asko falta zaigu, hala ere, umore gutxi dugu gure literatura kultuan. Batzuetan trszendentalegi ere jartzen garela esango nuke.

Besterik bilatzen diozu, esan nahi dut musikarik, edo halakorik bilatzen diozu testuari idazten ari zarela

Ez, baina literaturaz kanpoko diziplinetan hori izango dut hurbilena, kantagintza, Teodorakis, Jose Afonso, Fabrizio de André, Sergio Godinho, Leo Ferré, jakina... Horixe izan nahi nuke nik ere, kantugilea. Disko onak utzi zizkidan Saizarbitoriak, asko maite zuen Reggiani.

Behartua nago nobelaren krisiaz galdetzer.

Hori eztabaida guztiz akademikoa da, nobela hila dagoela ari dira esaten ez dakit noiztik, eta gero azaltzen dira hor Hampaté Ba edo Ahmadu Kuruma egundoko lan ederrak eskuan, teknizismoez futitzen direla, lehen komentatzen nizun literatura emergente hori. Izugarritzko nobelak idazten ari dira Afrikan, errekupeazio borondate

batean, bai, baina baita inongo modari zor ez dioten fantastikotasunarekin, dena ez da influentzia literario edo libresco hutsa, beraien ahozko tradizioetik ere badakite hartzen...

Balekoa da, orduan, nobela genero bezala.

Beti hiltzen da, eta beti berritzen da. To, zer pentsatuko zuen XVII. mendeko idazleak On Kixote Mantxako irakurrita? Nik uste dut “Hau irakurri ondoren, zer idatzi nezake nik?” esango zuela. Orduan pentsatuko zuten, dudarik gabe, nobela hila zela, ez zegoela ezer berririk idazterik, generoak gailurra jo zuela. Nobela hila dela esaten duten horietako asko sofistak iruditzen zaizkit, berdin defendatuko luketenak, esate baterako, sinfonia hila dela.

Zer behar du nobelak ona izateko, zeintzuk dituzu zuk gogoko irakurtzeko orduan? Zein motatakoak?

Ah, denetik, lehen esan dizut nik, diletantea naizela, nahiko indiskriminatua naiz eta ez naiz eskola bakarraren zale, salbu eta teknika nabarmenegi duten horiek...

Esperimentalismoa, ez duzu oso gogoko

Esperimentalismoa behar da. Bai, bai, bai. Hori gabe ez dugu aurrera egingo, ze apurtu egin behar dira egiturak eta kontatzeko moduak eta molde jakinak. Baina ez dira gauza bera esperimentalismoa eta manierismoa, ariketa literarioa, gimnasia.

Nobela batzuekin iruditzen zait teoria bat frogatzeko idatziak daudela. Lehenik Tel Quel taldea daukagu, teoria bat montatzen dugu, eta gero teoria horren arabera idazten hasten gara... Hori literatura itotzea da, formulak aplikatzen direlako. Surrealismoa bera formula bilakatu zen bezalaxe.

Nolabait esatearren, ukatu egiten duzu nobelari berari buruzko jarduna aurrerabide bezala?

Ez, ni teoria gainditzearen alde nago. Esaten da Zolaren pertsonaiak, eta oro har nobela naturalistaren pertsonaiak aldez aurretik determinatuak daudela, teoria naturalistaren zamagatik. Hori esaten dute teoriko askok, literaturaren historialari askok, eta hala ikasi nuen nik ere. Gero hartzen duzu Zolaren nobela... eta ez da horrelakorik gertatzen! Zola benetan irakurtzen baldin baduzu, eta ez bere teoria bakarrik, ikusiko duzu izugarritzko balio sinbolikoa duten gauzak ageri direla... Har dezagun *Giza Aberea*, *La Bête Humaine*: makina gizaki bezala, baina sexurik gabeko maitasuna makinaren eta pertsonaiaren artean, koloreen presentzia, gorriaren obsesioa, eta erlojuekiko arreta... izugarritzko aberastasuna dago hor, naturalismoaren teoria aplikatuta ulertu ezin litekeena.

Idazle handiekin hala gertatzen da, mugimendu bat lideratzen dute, baina gainditu egiten dute beren teoria, idazle sena kontrola ezina daukatelako. Teoriak, askotan, aurreko korrante batenganako ukazio bezalakoak dira, formulazio berriak dakartzate. Baina gero bere fikzioa sortzen hasten direnean generoak nahasten dituzte, ez dute beraien araudia aplikatzen, gainditu egiten dute, eta beste elementu batzuk, fantastikoak, sartzen dituzte.

Hala ere zer magia du irakurlearentzat narratibak? Liburu bat argitaratzen duenean irakurleok badakigu aurrez, hor esaten dena gezurra dela, faltsua dela. Norbaiten asmakeria hutsa dela, eta hala ere egiak bilatu nahi ditugu. Zer da hori?

Paradoxa bat. Nobela ikerketa egiteko tresna da, baina eransten baldin badiogu fantastikotasuna beste zerbait daukagu, informea ez den beste zerbait. Geltokietako nobelak horixe dira, pertsonaien bitartez egindako informeak edo istorio bitxi samarrak, baina idazlea benetako sortzailea denean plus bat eransten dio, gure patxadatik kanpora botatzen gaituen zerbait.

Hori da nobelaren egia, informeak ezin eman lezakeen horixe. Errealitate motz hau modu artistikoan ukatzean sortzen den edertasuna asmakeria hutsa izan liteke, baina ez da inoiz hutsala izango. Baina egia da edertasun hori faltsua izango dela teknika besterik ez baldin badu oinarri.

Bestelako artegintzen eraginik izan al duzu zure lanean?

Dakidala ez, batzuek esaten didate baietz, dialogoetan nabaritzen zaidala zinearen eragina, baliteke.

Aditu izanak agian

Egia esan ariketa handiak egin izan nituen garai batean Antton Ezeizarekin zinea egiten ibili nintzenean. Konzisioaren alde eta dialogoetan beti informazio erantsi bat ekartzearen aldekoa nintzen. Litekeena da, bai, zinemaren eragina izatea. Baina ni beti izan naiz elipsiaren zale, nabarmena iruditzen zaidana ez agertzearen aldekoa.

Zertan ikusten duzu zuk zure kartela, hola umiltasun alperrik gabe Koldo, nolabait zure lanek zer ekarri dute ez zegoenik?

Guztiok ekarri dugu ez zegoen zer edo zer, gure literatura egiten ari garen zerbait delako. Euskal literatura bai, badaukagu, baino korpus bat egiten ari gara oraindik denok...

Badakizu bost idazle agertzen zaretela liburu honetan. Zeintzuk zaretan ere badakizu. Esan al liteke belaunaldi batekoak zaretela?

Ez dut uste. Ez dakit nola ikusten den kanpotik. Hala ere nondik begiratzen den jakin beharko da.

Baliteke belaunaldi bat izatea, hainbat modu daude historia egiteko, kronologia baten barrenean sartzeko, batzuk hala sartuko gaituzte denok eta beste batzuek ez. Gure artean ez dugu harreman handirik eta ez dut uste proiektu literario antzekotan gabiltzanik.

Nik berehala bereizten dut obra bat, horrela, ikusi batean, norena den, eta uste dut publikoak ere berehala bereizten dituela estiloak, eta gaiak eta tratamenduak.

Segitzen dituzu besteen lanak, eta...

Aipatu dituzun horienak eta beste askorenak ere irakurtzen ditut nik, Joan Mari Irigoienek nobelari heltzeko beldurrak nago oraintxe, "Lur bat haratago". Izugarritzko performantzia iruditzen zait eta, irakurtzeko beldurra eman dit, hori aitortu beharra daukat.

Erraz irakurtzen da, eta gozo. Irakurtzea aipatu duzunez, zer esan izan dizute irakurleek?

Oro har nitaz nagusitu izan den iritzia, edo niri iritsi zaidana behintzat, zaila naizelakoa da. Lehen aipatu dudan elipsiagatik beharbada.

Hori esan dizu jendeak? Eta maitale berezirik hurbildu zaizu, zure lanak direlata?

Denok dauzkagu halako miresle batzuk, askotan pentsatzen duzu benetako irakurleak ote diren edo zer diren, tifosi horietakoak... Euskaltzalearen figura da hori, benetan pozten direnak liburu berri bat kaleratu duzulako, egundoko poza hartzen dute aurrera goazela ikusten dutelako, nahiz eta zure literatura maite ez izan, edo sobera ezagutu ez. Gure kulturaren figura inportantea da hori, diru asko ematen duena, beti goraltzen gaituena... Ez da oso kritikoa izango, baina hari zor diogu garenaren puska eder bat.

Nik inguru eder bat daukat Susa argitaldariko lagunetan, Iñigo Aranbarri, Gorka Arrese, Mikel Elortza, Josu Landa, Jose Luis Otamendi... Askok zor diet, proiektuz bateak daude eta langile porrokatuak dira, oso gauza bitxia literaturzaleetan. Animatzen naute, lana ematen didate, kritikatu behar denean ez daukate bilorik ahoan... Mundu bat zabaldu didate, gazteagoekiko harremanak bideratu dizkidate, XX. Mendeko Poesia Kaiarak bezalako zorakeria zoragarria onartu zidaten.

Editore lana egiten diharduzu hor.

Mende amaiera aitzakia hartuta pentsatu nuen halako errepasso bat egitea azken hogeita bost urteotan oso baztertua egon den genero bati. Tira, eta poesia maite dudalako ere bai, poeta kaskar batek bakarrik maita dezakeen bezain maitasun handiz. Omenaldi bat egin nahi nien idazle baztertu horiei.

Zer iritzi daukazu, oro har, esan liteke lerro nagusi batzuk dauzkagula...?

Nik esango nuke poesia saiatu dela zehatzen eta ongien erantzuten euskaldunok mende honetan eduki ditugun kezkei eta arazoei. Esana ere daukat gure literaturaren iraultzak, mende honetan, poesiak ekarri dituela. iraultza horiek, Joxe Azurmendik dioen moduan, gure literaturak behin baino gehiagotan zerotik hasi behar izan duelako gertatu dira agian, baina poesiak ekarri ditu. Hori hala da, eta honenbestez erran gabe doa gure poesia anitza dela.

Zuk zeuk, hartu duzu sorpresarik, ala dena alde zurretik uste zenuen modukoa izan da?

Testuetara jotzen duzunean beti daukazu sorpresak. Irakurle bezala aldatuz goaz, duela hogeitaz urte maite ez genuenak hunkitu egin gaitzake orain, eta alderantziz. Gero, bestalde, gerta liteke ikuspegi partziala edukitzea egile baten obraz. Niri halako zerbait gertatu zait, esaterako, Orixeren poesiarekin: badago Orixe mistiko eta indibidualista bat, ezezaguna, Euskaldunak-eko Orixe baino askoz interesgarriagoa, eta hari horri helduta ateratzen ahal dugu Orixek urratzen duela exilioko poesia, Sarrionandiaren nontasun arazoei Orixe dutela aitzindari... Bitxia da, baina halako sorpresak hartzen dira estereotipoak gainditzen ditugunean.

8

Liburuak ez dira lehengoak.
 Kritikaren kritika.
 Funtzionario dorpeak.
 Zahartzen ari naiz.
 Izagirreren ustegabeko diplomazia.

Zu hasi zinenetik hona, nola aldatu dira merkatua eta irakurlea?

Orain irakurlea ez dugu ezagutzen, merkatutxo bat daukagu. Lehen gutxi edo gehiago ezagutzen genuen, orain ez. Emakumezkoa dela baino askoz gehiago ez dakigu.

Argitaletxeen munduan ere handiak izan dira aldaketak.

Lantzamentuak behar dira, gero distribuzioan ere arazoak daude, borroka egin behar du editorialak bere liburu eskaparatean egon dadin, gero liburu saltzailearen figura desagertu egin da, liburuak saltegi handietan erosten dira, eta han ez dago kontsultarik edo aukerarik...

Komunikabideetatik elikatuta joaten da eroslea. Edo publizitatetik, edo superfizie handian bertan egindako eskaintzatik: "Irakurrienak" edo "Durangon salduenak", gezur hutsa da dena, berdin gertatzen da musikan, euskal musikan alegia...

Zerk egiten du beraz arrakastatsu liburu bat?

Arrakastatsu? Alegia, asko saldua izateak.

Hori ote arrakasta?

Nik horri lotzen diot arrakasta, salmentari. Eta asko saltzeko, non eta Euskal Herritik kanpo sariren bat ematen ez dizuten, ba idatzi beharko duzu, hasteko, nobela antzeko zerbait, ahal dela linguistikoki eta estilistikoki erraza, exotismo tanta batzuekin bada hobe, euskaldun jatorron kontzientzia ona ezertarako ukituko ez duena, ezer problematizatzen ez duena... Osagarri horiek, sentimentalismo apur batekin, egiten dute liburu bat arrakastatsua, alegia, bi milatik gora saldua izatea urte betean. Nik formula eman dizut, baina badakizu formulek ez dutela balio.

Eta horren kritika, zer? Gure kritika exzelso hori non dago edo zertan da? Behar du idazleak hori?

Bai, bai, etengabe behar dugu kritika, ahal bada kritika inparzial bat. Baina komunikabideetako kritika, irakurle arrunta orienta dezakeen hori, gero eta promozionalagoa da. Gogoan daukat iaz agertu zen kritika ezin laudatzaileago bat, inork ezagutzen ez zuen batek sinatua.

Zertaz ari zara?

Idazle ezagun baten nobelaren kritika hiper-laudatzailea sinatzen zuen ordura artean inoiz kritikarik edo artikulurik egin ez zuen batek, eta geroztik, nik dakidala behintzat, ez du beste ezer sinatu.

Beraz, ondorioa

Ez dezagun pertsonalizatu, atera ditzagun ondorio orokorrak: kritika gero eta nabarmenago dago promozioaren barrenean...

Baina eskertuko zenuke kritika zintzo bat eta tajuzko bat

Bai, baina badakit horrek izugarritzko lana dakarrela, erdi liberatu egin beharko luke batek, eta gainera etsai asko eduki behar lituzke, lagunak galduko lituzke eta abar. Miresten ditut Jon Benito bezalako gazteak, egundoko lana hartzen dute bere gain, txarto ordaindua alde guztietatik. Ze aldea, Markos Zapiain baten komentario pertsonal eta aberasgarrietatik, unibertsitateko zenbait arribistak egiten dutenera, dena etiketaz eta miseriakeriaz betea!

Hala ere idazleen elkarte, editoreen elkarte, itzultzaileen elkarte, elkarte askotxo ez ote?

Ni batean nago, ni idazle elkartean nago, ez nago itzultzaileetan ez gidoilarietan ez editoreenean.

Gremialismoa, beharrezkoa oraindik?

Itzultzaileen Elkarte guztiz onuragarri izan zaie itzultzaileei. Jarri dituzte tarifa batzuk eta garatu dute beren mafia beraien artean sariak eta beka banatzeko, hori lortu dute. Idazle Elkarteak, zoritxarrez, ez dauka gizartean eduki behar lukeen eragina, baino bueno, bien arteko diferentzia lan profesionalean oinarritzen da. Profesional batzuen elkarte da Itzultzaile Elkarte, lobby bat beraz, eta presioa egiten du, eta bere txapuzak egiten ditu, eta beraien artean konpontzen dira.

Idazle Elkarte berriz ez da elkarte profesionala, bestelako elkarte bat da, kultur elkarte antzeko bat, edo nahi baduzu ez garelako profesionalak denok, ez daukagula interes profesional batzuk defenditzeko... Bestelako presentzia bat behar luke, baina noski, behar da denbora, eta borondatea, eta abar. Hala ere Idazle Elkartearen lanagatik sortu zen gure telebistako lehen letretako programa hogeitaz urteren buruan, Sautrela esan nahi dut... Baina Idazle Elkarte beti izango da elkarte ahul bat, bazkide kopurua daukagunaren halako bi edukiko bagenu ere idazle profesionalak atzamarrok adina ez garelako. Gure Elkarteak telebistako programa hori bideratu ahal izatea izugarria da, eta horrek esan nahi du bete dezakeela lan polit bat, interes partikularren gainetik.

Durangoko azoka?

Durangoko azokan oso gauza xelebrea gertatu zitzaigun. Joan ginen “Mermelada Ustela”rekin edo “Zorion Ustela”rekin, eta hantxe jarri ginen merkatuan hori saltzen, eta orduan bota egin gintuzten handik, esan ziguten merkatuaren kanpoan jartzeko, oraindik ez zen laurogeiko hamarkada ere.

Orduan bazegoen halako zurruntasun bat gauzak zehatz egiteko, alegia, zuek ez duzue hemen standik pagatu, beraz ezin duzue barruan ezer saldu. Bazegoen ikuspegi komertzialista bat, seguru asko orduan beharrezkoa zen hori, ez desmadratzeko, hura ez zedin izan indigenen plaza, alegia, ez zedila izan Mexikoko Durangoko merkatua, indigenak fuera eta han txuriak eta zerga ordaintzen zutenak... Orain berriz, tenplu sakratuan zerga pagatzen ez duen jende mordoa dago saldu eta saldu... indigenon lepotik.

Erdal produkzioa, alegia...

Hori eta bera! Durangokoa sortu zen beste espiritu batekin, garai batean sortu zen euskal kulturaren sostengatzeko eta pizteko eta abar, erdarazko produkzio euskarofiloa ere bertan hartzen zen behar zelako, dena behar zen orduan. Baina gaur egun ez da horrela, gaur egun erdarazko edozein liburu saltzen da Durangon, duela urte pare bat ez dakit nongo monjen errezeta liburuia izan zen salduena, adibide ederra da... Euskaldunok zokoratuak gaude Durangon, megadenda bat bihurtu delako. Ez daukat ezer erdaldunen kontra, baina euskaldunon lepotik ateratzen dute mozkina Durangon, ze mobilizazioa guk eragiten dugu, ez beraiek. Lehen han erdaldunen gauzak ziren euskal gaiak, eta Euskal Herriari buruzko gaiak, eta hizkuntzari buruzko gaiak, eta eragina zuen euskaltzaletasunean, hori galdu egin da. Euskal Liburu eta Disken azoka bat sortu beharko litzatekeela uste dut.

Sariak, bekak eta lehiaketak, hiru gauza ezberdin baina lehengusuak denak ere

Horretaz aspaldi ez dela idatzi dut idatzi behar nuena, publikoki esan dut zer kanbalatxe egin diren eta zer lotsa gutxi daukaten batzuek.

Euskadi Sariez ari zara, noski, Miren Azkarateren motoristaz...

Bai, eta motoristak erantzun zidan irainka eta aginduka, halakoxe estiloa dauka administrazioak hemen. Beste inork ez zuen erantzun, denak isildu dira, sariak inposatzen dituzten itzultzaileak, unibertsitateko irakasle kolegak saritzen dituzten unibertsitateko irakasleak, epaimahaikideak suplantatzen dituzten apaiz ohiak, suplantazioak onartzen dituztenak... Fartsa handi bat besterik ez da hori guztia, probintzianoa eta kutrea.

Interpreta liteke minduta zaudela zu saritu ez zaituztelako...

Bai, interpretazio hori ere egin liteke, badakit. Baina nahiago dut nitaz gaizki pentsatzea, biharko egunean entzun beharra baino euskal idazleen kontuak amigismo lotsagarri batean konpontzen direla. Nik txantxulleroen omertá hori salatu dut, eta horrek beti dakar arrisku hori. Neure gain hartzen dut, esan dezatela minduta nagoela. Ez dute esango ordea inori ezer zor diodanik.

Literatura eta oro har irakurketa nola edo nondik bultzatzen ahal da?

Komunikabideetatik eta eskolatik.

Egungo literatur ekoizpena ikusita, zer sentitzen duzu poza, pena...?

Denetik, lehen ere esan dizut, niretzako liburuaren etsai handiena liburuia bera dela, eta produkzio masiboak hori dakar. Gero bestalde idazleak fabrikatzen dira, lehen ez zen holakorik.

Zer esan nahi duzu?

Sari bat irabazten duzu esate baterako, eta eskaintza bat datorkizu. Gaztea baldin bazara, askoz ere hobeto, emakumezkoa eta polita bazara zer esanik ez, ze orduan igual izan zintezke telebistako aurkezle, edo koloka ditzakezu Diario Vascon, Garan eta Egunkarian, aldi berean, zure kolaborazioak. Eta denbora librean, ba tertuliaren batean parte hartu irratiz.

Oso kasu zehatza, ez da?

Berririo diot, ez dezagun pertsonalizatu, jo dezagun ondorio nagusira: asko aldatu da euskal idazlearen soziologia.

Ez ote uste baino gehiago ari zarela zahartzen, eta gaurko gazteak beste usain batekin datozela?

Noski ari naizela zahartzen, eta ez dut seduktoarena jotzen ibili nahi. Gertatzen dena da lehen autonomoagoak ginela, gure eskastasun hartan, gure pobrezian, geuk sortzen genituen gure medioak, gure editorialak, gure aldizkariak... Hori askoz ere antolatuagoa dago orain, eta gaur egun badago generazio bat, ezer egin ez duena kobratu gabe. Nik ez dakit horrek zer ondorio ekarriko duen, seguru asko positiboa, idazle profesionalak izango dira, baina datu berria da eta euskalgintzak eduki behar luke hori kontuan. Irakaskuntza ari da gertatzen, “ikastola euskalduna, nazionala eta aurrerazalea” izan behar zuenak porrot egin du, irakaslea burokrata bilakatu delako, eta hori administratibotik bertatik eragindako kaltea da. Irakaskuntza ez da besteak bezalako lanbidea, eta idaztea ere ez.

Militantzia beharrezkoa da orduan,

Euskaraz idaztea bera izango da aski militantzia biharko gazteentzat, agian, erdal komunikabideetan diru gehiago eskainiko zaie eta. Militantziak atera zuen aurrera Egunkaria, ezta? Non dago administrazioak egin behar zuena? Ederra sartu behar ziguten, burokratek!

Idazle gazteekin jarraituz, kalterako bakarrik aipatu dituzu.

Baliteke, baina ernetasun batean bizi behar dugula uste dut, konturatu zara ze aniztasuna dagoen euskal musikan, eta zeinen berdina den kantari gehienek mezua? Beraz, aniztasuna da, benetan, kantagintzan daukaguna? Ba ote? Inpernuko hauspoa zena, ez ote da orain zeruko putza? Ikusi batean aniztasuna dago, baina pentsamendu aniztasuna beste kontu bat da. Lehen errazagoa zen atzematea, badator belaunaldi berri bat, begira, honen eta honen aurka daude, hau ez zaie interesatzen, kontestatu egiten dute hau eta gainera darabilten euskara nazkagarria da... Orain ez dago horrelakorik, dena oso arautua dago. Normaltasunean aurrera egiten dugun neurrian gero eta domestikazio tresna gehiago edukiko ditugu, iraultza subentzionatuko dugu. Horretan ari ez ote garen, horixe da nire kezka.

Hornikeria izango da

Baino berririo diot, komunikabideak dauzkagu, lehen ez genituen, eta beren on-gaitz guztiekin dauzkagu.

Holaxen izango da idazlearen papera, etorkizunean, guru mundu xermenan (?). Beste inork idazten ez dituenak idaztea, dudarik gabe, ze idatzi gero eta gehiago idazten da, baina dena da monokorde samarra, idazleak disonantzia ekarri beharko du.

Bukatzeke, Koldo, balantze moduko bat egingo duzu, zeure buruaz?

Bueno nik askotan komentatzen dut etxean, ba “zorioneko izan dadila munduko pelikula txarrena egin nuen eguna”.

Zergatik

Horrek bultza ninduelako idaztearena era guztiz profesional eta independente moduan hartzera. Etxean egiten dut lan, seguru asko alkoholismotik salbatu nintzen zinema mundua utzita, serioago hartu nuen ondoen egiten dakidan lana...

Bestaldetik ez daukat zer kexaturik, entrebistak, hitzaldiak, argazkiak, zer edo zer inportante egingo banu bezala, edozein momentutan azaltzen gara komunikabideetan... eta ordaindu egiten didate! Esker ona besterik ez daukat nik alde guztietatik nire komunitatearengana, eta ez da hau diplomazia kontua egia esan.

Anjel Lertxundi

1

Godot apaiztegian zegoen.
Celaya eta Aresti.
Gauza berriak eta euskaraz, gainera.

Orion sortua naiz baina bederatzi urte nituela, Zarautza etorri ginen familia guztia. Gure ama gaixorik ezagutu genuen bizitza guztian. Beti ohean egoten zen hura eta geuk ekartzen genizkion liburuak udal liburutegitik eta antzeko lekuetatik, nobela haiek irakurriz denbora laburrago egin zekion.

Berak esaten zigun zer irakurri behar genuen eta zer ez. Baina libururen bat debekatzen zigunean, haraxe joaten zitzaizkigun begiak. Horrela irakurri nuen nik gaztelaniaz *Hope & glory*.

Ez da askotan aipatzen baina gure haurtzaro garaian berebiziko oldarra eduki zuen Espainian literatura katolikoa deitzen zenak. Italian ere bai. Asko irakurtzen ziren nobela katolikoak gure haur garaian, Zane Grey eta horrelakoak (?)

Irakur zaletasuna betidanik eduki izan dudala uste dut, ume umetatik. Eta idazten ere goiz hasi nintzen, Donostiako apaiztegian nengoela, 16-17 urterekin. Jakina, nik orduan gaztelaniaz idazten nuen. Nola, bestela?

Hala ere han bazen euskara talde bat eta zenbait asignatura euskarara itzultzen hasi ginen. Euskararekin nahikoa baldarra nintzenez, sekretario lanak egiten nituen nik: mekanografia eta garai hartako klitxe zikin haiek, multikopistarako. Halaxe ikasi nuen euskara apur bat.

Garai hartako nire erreferentea Juan Mari Lekuona zen. Orduantxe ezagutu nuen eta niretzat bonbazo bat izan zen. Joxe Azurmendi eta bere *Hitz berdeak* ere orduan ezagutu nituen. Bitxia da oso: nire hastapen literarioa, euskarazkoa behintzat, poesiaren ingurukoa izan zen. Nik, ordea, poesiarik ez nuen egiten. Euskaraz ez dut poesiarik sekula idatzi, horregatik da harrigarria poesiaren inguruan hasi izana. Ez dakit zergatik izan den hori horrela. Neure buruari galdetu beharko diot, halako batean.

Garai hartan niretzat garrantzia eduki zuen beste kontu bat ere gertatu zen. Irakasle batek Samuel Beckett-en *Godoten esperoan* ekarri zuen frantsesez. Guk itzuli eta antzeztu egin genuen. Ikaragarria izan zen. Nik bakarrizketa bat ere egiten nuen oholtza gainean. Dena debekatua zegoenez, horrelako gauzak beti kanpotik, atzerritik, etortzen ziren eta oso giro polita egiten zen apaiztegian ginenon artean.

Jakina, nik ordurako zerbait idazten nuen. Ipuin batzuk baditut garai hartakoak eta bat saritu ere egin zidaten, gainera, Espainiako *Jóvenes* aldizkarian.

Garai hartako idazleentzat ohikoa zen dena multzo berean joatea: literaturgintza, herrigintza, euskara...

Bai, jakina. *Zeruko Argiaren* saltzaile bihurtzen zinen edo *Auspoarentzat* harpidedun bilatzaile... horrelako gauzak bazeuden, bai. Baina beste gauza bat ere oso bitxia da, ni orduan Donostian nengoen eta gure inguruan gertatzen ziren jokabide

kultural interesgarrienak, euskarazkoak izan ziren. Agian euskaraz izateak balio erantzit bat zuelako edo.

Nik Gabriel Celaya ederki ezagutzen nuen baina ez ninduen Arestik adina kitzikatzen. Antzerkigintzan ere, Madriletik zetozen antzezlanak kostunbristak eta eramanezkoak ziren. Euskaraz, ordea, Iñaki Beobidek eta konpainiak, lan politikak egiten zituzten. Oteiza ere hor zebilen eta Julen Lekuona, Lourdes Iriondo eta abar kantuan hasi ziren. Berehala etorri zen *Ez dok amairu*.

Beraz, 16-17 urterekin hartzen duzun idazle izateko hautua ez da kontu politiko bat soilik. Zerbait gehiago dago idazle izateko desio horretan, batez ere, nahi duzuna zeure ni poetikoa garatzea baldin bada. Euskararen inguru horretan guztian, bazegoen pisu kultural bat eta gauzak egiteko gogoia ere bai. Nik gauza berriak egin nahi nituen eta, gainera, euskaraz.

Egia esan adin hura neukanean hartu nituen nire bizitzako erabakirik serioenak. Oso gogoetatsuak ginen orduan. Horregatik gustatu zitzaidan hainbeste Beckett-en *Godoten esperoan* hura. Ni filosofia ikasten ari nintzen eta plazer literarioarengatik baino gehiago gustatu zitzaidan Jaungoikoaren existentziaren kezka eta bestelako galdera existentzialak agertzen zituelako.

Ordura arte Aquinoko Santo Tomasekin ibiliak ginen eta, jakina, hura guztia ikusitakoan, hau beste gauza bat da, pentsatu genuen. Baina, esan bezala, gehiago izan zen arrazoi filosofikoengatik, literarioengatik baino.

Adina ere halakoxea.

Bai, 16-17 urterekin ikusten duzu Juan Mari Lekuona meza ematen, goitik behera zuriz jantzita eta, jakina, zeu ez zarela horretarako pentsatzen duzu.

Adin hartan ni konturatuta nengoen, izan apaiz, politikari, edo antzeko zerbait, zuk zeure bizitza halako zerbaiti eskainia baldin badiozu erabat, konpromiso hori beti egongo dela zure lan artistikoaren gainetik. Beti etorriko zaizu amen egiteko momentu bat. Erlijio, filosofia edo militantzia baten izenean, zeure gogoz kontrako kontuak irentsi beharko dituzu. Supraegitura ideologikoak beti behartzen du ixiltzera.

Hori guztia ikusteak krisi handia eragin zidan eta bai, nik adin hartan banekien, Lekuona bezala, goitik behera zuriz jantzita ibiltze hura ez zela niretzat egindakoa.

Ordukoa ote idazle izateko erabakia ere?

Ez, lehenagokoa, ezaguera dudanetik. Betidanik idatzi nahi izan dut.

Bai, baina zerk eraginda? Ez erantzun toriatzaileek bezala, horretarako jaiotze egin behar dela...

Literaturan atsegin, beraz.

Bai, eta atsekabe ere bai, batez ere pauso okerrak eman izan ditudanean.

Xabier Leteren formula batekin azalduko dizut, literatura jarri izan dudanean zerbitzuko lanen menara, nobela mota bat falta dela eta zulo hori estaltzeko nobela bat egin dudanean, esate baterako, beti porrota etortzen da. Edo haur literaturari lotuegi egon naizenetan, halako edo bestelako argitaldarik horren beharra zeukalako. Nire ustez zerbitzuko lanekin lotuegi ibili naiz askotan eta horrek krisiak eragin izan dizkit. Zer arraiotan galdetu behar izan diot neure buruari.

Kalte handia etorri zait hortik baina nolabaiteko mesedea ere bai, horraino iritsi beharra baitago menpekotza horiek guztiek sortzen duten soka eten eta norberak uste duen literatura egiten jartzeko.

Ez gaitezen, oraingoz, hainbeste aurreratu. Lehen argitaralpenak ez ditugu oraindik aipatu.

Bai, ausardia apur bat behar da hau aitortzeko baina nire lehenengo lana, 80 folio ingurukoa da, miultikopiztaz egina eta (XXXXXXX) titulua daramana. Lotsa apur bat ematen du, egia. Literaturaz ari naiz eta bertan aipatzen dira Becett edo Blas de Otero, esate baterako.

Literatur sorkuntzako lehenengoa, ostera, *Hunik arrats artean* izan zen, Lur argitaldaria ateratako ipuin liburua. Eta nola diren gauzak, liburu horren solapan esaten da euskal ipuingintza modernoaren aitzindaria naizela eta ez dakit zer eta badakit zer. Ni oso harro nengoen aipamen horrekin baina gero Martin Ugaldere *Hiltzaileak* deskubritu eta lotsak irensten zaitu. Gure historiaren ezagutza laburra edukitzen dugu askotan.

Ez zenuen aurreko idazleen ezagutzarik, ala?

Bai baina nik ezagutu nuen lehenengo klasikoa Joanes Etxeberri izan zen. Axularren gauzaren bat ere ezagutzen nuen baina, horrela, metodo apur batekin irakurri nuen lehenengoa Joanes Etxeberrikoa izan zen.

Hortik aurrera gauza gehiago, baita Txomin Agirre ere, baina gehienbat hizkuntzaren ezagueraz jabetzeko egin nuen lan sistematiko hori guztia. Plazer gutxi aurkitu nuen nik irakurketa haietan.

Egiatzko gozatua Aresti berarekin etorriko zen, edo Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelarekin edo Jon Miranderen *Haur besoetakoarekin*.

Gure klasikoak ez dituela batere gogoko izan esan du batek baino gehiagok. Pairatu hitza ere aipatu da.

Kanpoko literaturetako erreferentziak ere izango zenituen.

Jakina, Espainiako poesigintza, “Generación del 27” eta horiek guztiak. Mikel Lasa ere orduantxe hasi zen esperimentuak egiten eta bere bitartez ezagutu nuen Rimbaud...

Lasaren bitartez egin zenuen Rimbaud-en ezagutza hori, behin baino gehiagotan entzun dizugu.

Zure azken liburua Claudio Rodriguez-i eskainia dago, In Memoriam bada ere. Badituzu lagunak beste hizkuntzetan aritzen direnen artean ere. Ez duzu literatura gure eremuan mugatzeko ohiturarik. Zein harreman duzu gaur kanpoko idazleekin? Nortzuk dira horiek?

Heziketa literarioaren iturriak non?

Gehiegi aipatzen ez den kontua bat atera nahi nuke hemen, euskal idazlearen heziketa literarioarena. Guri gertatzen zaigu, hizkuntza aldetik eta bai, badugula tradizio

bat eta klasikotzat har ditzakegun zenbait lan ere. Nolabait esateko, hizkuntzaren aldetik begiratuta, badaukagu Literatura Nazionala dei dezakegun zerbait. Hala ere, ez dezagun ahanzi, literatura nazionalak erromantizismoarekin amaitu zirela.

Esan nahi dudana da, hizkuntzaren aldeko kontu horiek horrela izanik ere, gure heziketa literarioan gehiago egon direla kanpoko idazleak eta ni hurbilago egon naitekeela halako idazle italiar batengandik, neure garaiko euskal idazle batengandik baino.

Zentzu horretan, tradizio urrikoak izatea abantaila ere izan daiteke, gurutzaketa komunikatibo handiagoa lortzen baita, horrek guztiak derrigorturik.

Ez zenituen, haatik, bertakoak deskuidatuko.

Ez, ez. Bertakoen ezagutza ere badut, jakina. Baina esan nahi dudana ulertzeko, Jon Etxaiderekin gertatutakoak balio dezake. haren *Joanak joan* irakurri nuenean, bi gauza gertatuz zitzaizkidan. Alde batetik, Etxaideren nobela historikoa baino lehen irakurriak nituela txikitan, atzerriko autoreen nobela historikoak eta, bestetik, hizkuntza aldetik oso jasoa eta aberatsa izan arren erakutsitako prosa, haren ereduak ez zidala balio narratibagintzarako. Egia esan behar bada, berak baino eragin handiagoa izan dezake horretan Walter Scott batek, esaterako.

Alabaina, eta hau ere egia borobila da, nire aurretik Jon Etxaidetik egon izan ez balitz, nik Otto Pette ez nukeen idatziko idatzi nuen bezala. Hari ikusi nizkion akatsak behintzat, ez baintuen berriro egin.

Dena dela, eta Etxaideri buruz dihardugularik, bere lanetik gehiago interesatu zitzaizkidan antzerkirako egin zituen beste lan haiek, *Begia begi truk*, *Alostorrea* eta abar.

Nire ustez, Etxaideren garaiko idazle horiengan Euskal Herriari buruzko kontzepzio jakin bat zegoen, literaturaren bitartez halako herritasun bat lortu nahia dago. Eta hori guztia artifiziala iruditzen zitzaidan niri. Molestatu egiten ninduen nahiz eta gero Koldo Mitxelenari irakurri eta poztu. Garai hartan funtzio bat eman zitzaion idazteari eta horrek literarioki ezin du funtzionatu.

Eta, halako batean, Gabriel Aresti.

Bai, Arestik ekarri zuen modernitatea gurera. Euskararen errealitate klerikal, atzerakoi eta zikiratzaileari aurre egin zion.

Nire belaunaldiko idazleak ordurako badaukagu halako sentipen bitxi bat. Nik elkarriketa batean aipatu nuen, 23-24 nituela eta *Ajea du Urturik* argitaratu berria nuela. Euskaraz idaztea katedral batean sartu eta oihu egitearekin alderatzen nuen nik orduan. Oihu profano bat egitearekin. Eta egiazki halaxe zen hori. Hainbeste apaiz zegoen euskararen munduan!

Oihu obszenoa egin zuen Arestik, zorionez. Hala ere, ez zen bakarra izan, Jon Mirandek zer-nolako kalapitak izan zituen ezagutzea aski da horretarako.

Bai, hori kultur eragile ere izan ziren aldetik, baina beren lan literarioak nola eragin zizun?

Mitxelena ere aipatu duzu lehentxeago.

Bai, Mitxelena ere derrigorrez aipatu behar da. Arantzazun Euskaltzaindiak egindako bilera famatua 68an izan zen. Nik hogeitun urte nituen orduan eta Euskara Batuaren aldeko manifestua sinatu genuen hainbat idazlek. Guk tresna hura behar genuen idatzi ahal izateko.

Beste gauza bat ere esan nahiko nuke honi buruz. Euskararen jabetza patrimonializatzen zutenak, nazionalismoa eta eliza ziren. Bere alde ezer gutxi egiteko, gainera. Patrimonializatze horren aurkako jarrera argi bat ere eduki genuen garai hartan eta horretan guztian, erreferentzia ezinbestekoa da Koldo Mitxelena. Bere ekarria gabe ezin dira ulertu gauza asko eta asko.

Giro nahasia izan zen hura.

Bai. Ni Erroman nengoen garai hartan. Hantxe idazten nuen. Eta bai, egiazki izan ziren garai ikaragarriak. Kuba, Vietnamgo gerra... Oroitzen naiz, 1979garrean ikaragarritzko manifestapena egin zela Erromako kaleetan. Sindikatuek konbokatua zen eta Gobernuaren kontrakoa. Milioi bat pertsona inguru egon ginela han esaten zen. Ikaragarria, benetan.

Erroman ostegunero egoten zinema fakultatean eta hantxe ezagutu nituen, Marco Bloccio, Bertolucci, Zeffireli eta horrelakoen lanak. Garai nahasiak eta ederrak haiek!

Eta gainera italiarrez inguraturik! Kafe oso ona dago Erroman eta ni bi lagunekin joaten nintzen kafeak alde batean eta bestean dastatzera. Lagunetako bat misinoa zen, faszista, alegia. Bestea gure etxeko atezaina zen, komunista.

Ez da harritzekoa izaten zure ahoan idazle italiarren izenak entzutea, Sciascia eta horrelakoak.

Nola bizi zenuen Euskal Herria atzerri hartatik? Hori, liburu honetan agertzen den beste idazle bat oraindik atzerrian bizi delako galdetzen dizut.

Noizean behin itzuliko zinen, hala ere, herrira.

Jakina, eta horietako batean ezagutu nuen Donostian bazela Lur izeneko argitaldaria. Beste batzuk ere baziren baina nik hantxe utzi nuen nire eskuizkribua. san Martin kaleko bulego batean izan zen hori. Berez, soziologo bulego bat zen. Nik hantxe laga nituen nire idatziak eta denbora batera jaso nuen argitaratzeko baietza. Halaxe argitaratu zen *Hunik arrats artean*, nire lehenengo literatura liburua.

Gogoan dugu agertu zenean, harrিতuxe utzi gintuela hango berritasunak. Hori al zuen xede?

Gaurko egunean eutsiko al luke berrargitaralpen bat? Erran nahi baita, garai batean argitaratu ziren lan asko eta asko, gaur egunean argitaratuko ote lituzke inongo editorek?

Liburu honetan agertzen diren gainerako lau idazleekin ezberdintasun biografiko nabari bat ere badaukazu: zu ez bezala, denak dira talde literario zehatzetan ibiliak.

2

Beste hizkuntzen auzotasunaz.

Euskararen ajeak.

Gartziaren ikuspegia.

Saioaren beharraz.

Nola hasten da bat, erdaratik euskarara pasatzen? Nola aldatzen dira ohiturak?

Lehendabizi konstatazio bat egin nahiko nuke: gaur oraindik ere, %80 euskara ez den beste hizkuntzetan irakurtzen dugu, ezinbestean. Horrek hizkuntza egiazki ez dagoela erakusten du, irakurlea ez dagoela maila normal batean eta, beraz, beti gertatzen dela tentsio bat.

Ni ez nago tentsio horretatik kanpora, tentsio hori bizi dut nik ere nik beti horrela ezagutuko dudala uste dut, irakurketaren mekanika erdaraz jaso baitut. Beste kontu bat da, gaurko gazteek ere, ikastoletatik irteten direnek ere, hori horrela bizi behar ote duten. Horixe ez dut ulertzen, nola liteke horiek ere gure ezintasun berberak bizitzea?. Gure belaunaldiarengan ulertzen dut, beti horrelaxe izan baita baina gaur egun hori gertatzea ezin dut ondo ulertu. Zerbaitek porrot egiten du hor.

Larriki, gainera.

Bai, bai, jakina. Nik uste, transmisioa egiteko garaian gertatzen da porrot hori, seguru asko transmititu behar duena ez delako gauza. Badakit ezin dela orokorrean hitz egin, baina askotan irakasle ofizioak ez du sekretu handiegirik edukitzen: hizkuntzaren jabetzarik ez duenak, ezin izango du transmititu eredu jasorik.

Hizkuntzaren transmisioaren auzian benetako defizita ari da gertatzen eta batzuetan esango nuke nire garaiko irakasleak baino ezinduagoak direla gaur egungoak. Irakasle batek pentsa dezake irakasle titulua aterata eta EGA azterketa edo antzekoren bat eginda, aski duela. Hori ez da horrela. Gure hizkuntzak gaur aurrerapen eta garapen handiak bizi ditu eta irakasle hori egon liteke duela hogeituro urteko tituluan oinarriturik eta geldik, batere aurreratu gabe, hizkuntzaren alorrean inolako ahaleginik egin gabe.

Bai, transmisio arazo bat dago eta ez da aski kanpoko faktoreek sortua dela esatea. Nik nahiago izaten dut barnera begiratu, kanpora baino.

Egiazko eredurik gabe gera daiteke biharko euskalduna eta, beraz, idazlea. Hori diozu?

Kanpora eta barnera behatzea aipatu dituzu lehenxeago. Idazleak nola bizi du hizkuntzen arteko tentsio hori?

Kontua ez da beti erraztasunarena edo zailtasunarena soilik izaten. Askotan, idazten ari zarenean, euskaraz ganorazko zerbait aurkitutakoan, plazera handiagoa izaten da. Zergatik? Euskara, oraindik ere, erretorika gehiegirik gorpuztu gabeko hizkuntza delako. Inguruko hizkuntzen aldean, garbiagoa da, nolabait. Ez dauka gauza guztietarako eredu tinkorik, eta horrek aukera ematen dizu idazterakoan. Esan daiteke errazagoa dela euskaraz idaztean plazera hartzea, erdaraz baino. Hizkerari dagokionean, behinik behin.

Beste kontu bat da, ordea, gaia lantzeari bagagozkio. Horretan ez dago alderik eta gaztelaniaz, esaterako, askoz errazagoa da euskaraz baino, juxtu alderantzizko arazoiarengatik. Hots, gaia edozein delarik ere, gaztelaniaz aurrekariak ugariak dituzu eta euskaraz, ordea, ez.

Hizkuntzen arteko interferentziak ekidinezinak izango dira, seguruenez.

Bai. Nik uste, euskaraz idazten aritzen garen idazle guztiok edukitzen dugula alboan beste hizkuntzen erreferentzia. Baina hori gainditu egin behar da, edo hortik ihes egin, behinik behin.

Erdaren erreferentzia hori ezagutu egin behar du idazleak, zehazki zein den jakin behar du. Nire kasuan, superazioz gainditzen dut. Dialektika hori dago erdarekin, gaztelaniarekin, frantsesarekin, ingelesarekin... Niretzat oso garrantzizkoa da kontraste lan hori egitea, hori aztertzea, zeure hizkuntzaren mesedetan badiharduzu, beharrezkoa da hausnarketa hori egitea.

Niri betidanik interesatu zait gai hau, aspaldion bereziki maite dudana gauza da, erretorika propiala duen hizkuntza eraikitzen joatea eta horrek eduki dezala, nolabait, neure marka ere. Beste batek kontatzen dituen istorioak, beste batek kontatzen dituen bezala kontatzea, ez zait batere interesatzen. Norberak topatu behar du bere marka eta horretarako errazagoa da euskaraz, erdaraz baino. Hain zuzen lehen esan dugun hori guztiagatik: txikia delako, garapen gutxiko hizkuntza delako, etc.

Greziako poeta batek esaten zuen “ Ai nire hizkuntza bedeinkatu, handietatik hain urruti dagoena eta haiengandik ihes egiten uzten didana...”. Poeta hark gaur ezin esango luke gauza bera: hauts ugari pilatu baitzuen geroago grekoak bere gainean.

Guri gerta dakigukeen gauzarik txarrena, gogoeta hori guztia egin gabe, erabaki egokienak hartu gabe, telebistak, administraritzak, itzulpengintza administratiboak, irakaskuntzak eta horiek guztiek egin dutena bera egitea. Bere baitako hausnarketa egin ordez, horiek denak espainolaren mimetismoan oinarritu dira.

Hala ere, azken urteetako zure liburuetan behintzat, oso eroso eta aske ikusten zaitugu hizkera literarioaren alde horretatik. Ematen du zeure ahotsez zabiltzala, azkenez.

Baliteke. Hala ere egunen batean hitz egin beharko liutzateke euskal idazlearen tragediaz, egunero eta hainbeste aldiz hiztegiatara joaten ibil behar makur horretaz. Mota guztietako hiztegiak, euskaraz, espainolez, frantsesez... neke izugarria da hori.

Lehen *Diccionario de Autoridades del Euskara* delakoak tomo bakarra zeukan eta ia buruz ikasi nuela uste dut *Otto Pette* egin ahal izateko. Hitz zehatza baino gehiago, beti testuingurua osatzeko balioko zidaten elementuen bila. lan izugarria egin nuen orduan eta baliteke orain etekina ateratzen ibiltzea eta erosoago sentitzea, bai.

Beste kontu bat ere aipatu behar da hemen, krisi une horretan ezagutu bainuen errespetu handia nion gizona, Juan Gartzia, alegia. *Carla* argitaratu nuenean dei egin zidan ia elkarrekin bazkalduko ote genuen eta nik baietz. Nik erabilitako hizkera literarioari buruz, “Has dado en la línea de flotación” esan zidan gaztelaniaz, zentzu txarrean, jakina. Eta egia zen.

Carla idatzi nuen krisi garaian, hori horrela da, baina ni ez nintzen oraindik erabat jabetua zertan nenbilen nobela hura idatzi nuenean. Implizitoki bai, zerbaiten bila banenbilela sumatzen nuen, gauzak azken muturreraino eramane nahi nituela eta abar.

Erlatibozko esaldi faltsuak erabiltzen ditudala eta hori guztia, baina ez nintzen erabat konstzientea hizkera literarioaren bilaketa harena.

Eta Juanek: “*Has dado en la línea de flotación*”. Alegia, urrutiraino eraman nuela Altube, eta orduan, muturreraino eraman nuen neurrian, demostratu nuela bide horrek ez zuela fitxik balio. Beste nonbait aurkitu behar nuela irtenbidea.

Zer gertatu zen harrez gero? hartzen duzu hamar urteotako nire edozein liburu eta berehala ikusiko duzu nirea dela. Horixe lortu dut, espazio eta estilo propioa. Ahotsa eta tonua neureak izatea erabat. Niretzat ezinbestekoa baita tonua: lehen parrafoa idatzi arte, ez dut ezer idazten ahal.

Testuaren musikaz ari zara.

Bai.

Baina hori ezberdina izaten da zuk maiz erabiltzen duzun beste genero batean, saiogintzan.

Bata eta bestea oso ongi bereizten ditudala esango nuke. Idazteko orduan gauza bat da obra literarioa eta beste bat pentsamendua, nahiz eta bigarren hau ere oso hurbil egon daitekeen literaturatik. Nik jorratzen ditudan gaiak gehienetan literaturari, arteari edo hizkuntzari buruzkoak izan ohi dira. Asko interesatzen zaizkit horiek guztiak.

Baina egia, ez ditut nahasten langintza bat eta bestea. Hala ere, *Gogoia zubi* nire azkenaurreko saiakeran, literautasun handia dago egiazki. Ez da liburu akademiko bat, narratiba handia dauka neuk halaxe erabakita, irakurlearengandik idazlearenganako bidaia izan ordez, alderantzizkoa egin nahi izan baitut nik lan horretan: idazlearen bidaia bestelako zereginetara ere.

Gezurra dirudi saiakera euskaraz argitara daitekeenik ere.

Aipatu dugun liburu horrek bere burua ordaindu zuen behintzat. Editoreek hori esaten dutenean, nahiz eta idazlearena inork ordaindu ez, aurrera. *Mentura dugun artean* nire azken saiakera ere, ondo dabil.

Saiakera behar beharrezkoa dugu. Munduaz pentsatu behar da munduak pentsatu ahal izateko. Eta, gainera, sinesten baldin baduzu hizkuntza tresna soila baino zerbait gehiago ere badela, balioa erantsi egiten duela, gauzak era batera edo bestera esanda, ezberdinak direla, bada, ahalegin literarioa egin beharra dago horretan ere. Nik ahalegin bat egiten badut hizkera literarioaren aldetik, idatzirik agertzen den pentsamendua zehatzagoa eta, aldi berean, aberatsagoa izango da. Transmititu nahi dudana, hobekiago islatuko da, eta hori, ezagutza baino, ezagutzari buruzko kezka izaten da, gehienetan.

3

Ez gara belaunaldi berekoak.
Baina baditugu antzekotasunak.
Beste artegintzen eraginaz.
Irakurle kualifikatuarena.
Txikiaren ajeak eta kritika.

Bostoi galdegin dizuet ia belaunaldi berekotzat hartuak izan ote zaitezketen

Nik ezetz esango nuke. Zaila egiten zait gu bostok multzo berean ikustea. Bai kezka literarioen aldetik eta baita ere, bakoitza herri honetan nola kokatzen den ikusita ere.

Adibidez, neu izango naiz zerbitzuko lanetan gehientxo ibiliko zena. Ikastolaren inguruko lanetan, aldizkariren bat sortzen, euskararen inguruko beste zerbait egiten... Bernardo ere izan liteke horretan ere tartekoa.

Eta Izagirre ez?

Nik uste Koldo beste belaunaldi batekoa izateaz gain, beste mundu batean ere kokatzen dela. Gehiago egon dela literaturan zentratua.

Nik ikusten ditut amankomunean dituzuen beste zenbait berezitasun ere.

Pentsatzen jarriz gero, egia da bostok deslotu edo desbinkulatu dugula literaturgintza euskaratik.

Bai, eta hasiera batean militantzia globalago batek eraman zaituztela idaztera, eta bide esperimentalak hautatu dituzuela idazten hasteko, eta...

Agian idatzizko tradizio egokirik ez geneukalako gertatuko zen hori. Gure egoera laburra eta makurra izan da eta han edo hemen bilatu behar izan dugu etxean ez geneukana.

Tradizio oso handia daukanak, zaila du kanpora ateratzea. Eta irteten bada, gainera, aurpegiatu egingo zaio. Ikusi bestela Espainiako Javier Marías-en kasua. Ez zaio barkatzen bere anglozaletasuna, señorito bat dela esaten da... Gurean normalagoa litzateke halako gauza bat eta, hain zuzen ere, horregatixe eman ditu eman dituen etekinak, ez delako tradizioari hain atxikia egon.

Bernardorekin hitz egin dut behin baino gehiago honetaz. Gure gauzaren bat itzultzen dutenean, kazetariak esan ohi digute: “no sabíamos que escribiréis estas cosas”. Eurak erdararen tradizioari atxikiak daudenez, geuk ere hala behar dugula uste izaten dute, gauza kostunbristak eta antzekoak idazten ditugula, alegia.

Beraiek nola beti tradizio bati atxikiak dauden, pentsatzen dute gu gauza kostunbristak egiten idazten ari garela, edo gauza militanteak. Horrelako irudi erabat faltsua daukate gutaz.

Niretzat erabat garrantzitsua da guztiok eraiki behar izan dugula tradizio hori, eta tradizio hori mendebaldean zegoela, ez zegoela ez euskaraz ez espainolez, ez zegoela frantsesez ere. Bakoitzak bere ahaleginak egin behar izan dituela bere tradizioari ondo egokitzen zaion beste nonbaiteko aurkitzen. Hori aberasgarria izan da oso, oso anitza izan baita.

Beste artegintzei buruz mintzatzeko tenore egokia da hau.

Zinearekin izan ditudan loturetan, Jabier Agirresarobe eta, batez ere, Anjel Fernandez argazki zuzendariekin esaterako, “Zein argi nahi duzu?” galdetzen zidaten eta ni harriturik geratzen nintzen. Jakina, nik ordura arte sekula ez nuen halako gogoetarik.

Angel Fernandezek gustatzen zaizkidan pintoreen artean begiratzeko esan zidan, zein koadro maite ditudan esateko eta gero saiatuko zela bera argi hura harrapatzen.

Egun batzuk igaro ostean, Salis pintore irundarraren gauza batzuk erakutsi nizkion, oso gogoko baitut nik haren lana. Kontua da, harrez gero, ez dudala idazten nire baitan ez badaukat erreferentzia plastikoren bat. Ez du derrigorrez pintura izan behar. Izan daiteke baita musika ere, nahiz eta nire ezagutza musikala jazzerraino soilik iristen den eta baita musika modernora ere, hutsune handiekin bada ere.

Musika behar izaten dut giro egoki bat sortzeko, idazten ari naizen horren tonua asmatzen laguntzeko. Makulu plastiko horiek hautatu eta gero abiatzen naiz, batzuetan lasi geratzeko eta beste batzuetan ihes egiteko.

Zinea ere oso presente dago nire lanetan. Hori ezin dut ukatu. Esan nahi dut, nik idazten dudan guztian kontutan hartzen dudala kamara non dagoen. Batzutan kamara ahazteko ere bai, hemen kamara alde batera utziko dut erabakitzeko ere bai. Baina eszena eta mugimenduetan, asko agintzen du kamarak nire idazlanetan, bai. Kamararen arabera pentsatu eta gero saiatzen naiz.

Seguru asko liburu honetan agertzen garen bost idazleoi gertatuko zaigu hori: nahitaez zinea presente dago beti. Eszena bat irudikatzeko garaian, gure formazio bisuala zineak emandakoa da.

Adibide bat.

Zuk zalgurdi bat mugitu nahi baduzu gora eta behera, nik *Azkenaz beste* nobelan bezala, nahitaez ikusiko duzu zeure buruan John Ford-en *Diligentzia*. Horko eszenak etortzen zaizkizu burura eta zeure kontakizuna hori buruan duzula antolatzen duzu ezinbestean. Irakurlea hasera batean ez da ezertaz ohartzen eta berak ere eszena horiek ikusiak dituenek, idazleak ere ez dauka gauza gehiegi esplikatzeko ibili beharrik, ez daukat zertan oso zehatza izan beharrik deskribapenetan. Bi ukitu soilekin errazki segituko dio mugimenduari. Idazleak ez dauka horretan denbora galdu beharrik.

Zure atikulu askotan, arte plastikoaz ari zara, pinturaz eskulturaz. Horiek ere bidelagun dituzu.

Istoriok eta gaiak nola hautatzen dituzu? Zer dago aurretik, mezua ala kontakizua, zer egokitzen zaio zeri, ala dena da bat?

Ni poetikoaren kontua zeri esaten diozun ere zehaztu beharko zenuke apur bat.

Ausartuko zinateke zure ni poetikoa nolakoa den zertzelatzerara?

Nik uste argi ari dela geratzen zein gauza hartzen dituzun kontutan idazteko orduan.

Bat falta da: testuaren musikalitatea. Hori oso garrantzitsua da niretzat, batez ere elkarrizketak direnean. Orduak egon naiteke esaldi bat pentsatzen lau silabako hitz baten lekuan hirukoa behar dudalako eta ez dudalako aurkitzen. Batzuetan bertsolaria banantz bezala ibiltzen naiz, berdin-berdin, batez ere elkarrizketetan. Obsesio hori ere badut.

Irakurlea horretaz guztiaz jabetzen dela uste duzu?

Lehengo batean Eskoriatzako Irakasle eskolan izan nintzen nire lan baten aipamena egiten: *Muxubero mon amour*. han zeudenetako batek esan zidan titulu oso musikala zela hori eta halaxe da egiazki. Titulu horretan kendu “muxu” eta jarri “aurpegi”, esaterako, eta ikusiko duzu ez duela zerikusirik batek bestearekin.

Irakurlearekin zein harreman duzu gogoko?

“Asko gustatu zait”, “zure nobela oso ona da”, “zu ere oso ona zara” eta horrelako guztiak primerakoak izaten dira idazlearen egoa elikatzeko. Oso ondo daude baina egiazki beste kontu bat nahi izaten dut nik irakurlearengandik. “Oso ondo pasatu dut zure liburuarekin baina halako lekuan sekulako hankasartzea egin duzu”. Nahiago ditut honelako gauzak, batez ere, zentzu kritiko batez esaten direnean. Hori idazleak asko eskertzen du.

Irakurketa arretatsua ari zara erreklamatzan.

Bai, hori da. Zuk zeuk planteamendu batzuk egin dituzunean, planteamendu narratibo eta literarioak egin dituzunean, irakurleak ere jarrera literarioa izatea.

Argizariaren egunak nobela irakurri ondoren, deseroso geratu zela esan zidan irakurle batek. Ni ere deseroso nengoen idatzi nuenean! Horixe.

Argitaratzeko ez zenuen arazorik ezagutuko sekula.

Ez, liburu honetako bostok ez dugu, seguru, horretan arazorik eduki.

Zoritxarrez, ez zarete zuek bostok bakarrik arazorik gabeak. Zenbaitek errazegi ere ez ote duen argitaratu...

Profesionalizatzearen auzia dago horren atzean. Profesionalizatu behar ez duen bakarra irakurlea da, aukerako ekintza libre delako irakurtzea. Gainerako estamentu guztiei, idazleei, editoreei eta abarri, erantzukizuna dagokie. Kontuak eskatu behar zaizkie. Ez du balio edozein zabarkeria egiteak. Hori literaturaren aurka itzultzen baita beti.

Industria kulturalak, hala eta guztiz ere, liburu horiek argitaratzen segitzen badu, hor konpon Marianon, euren egitekoa izango da baina jakin dezatela euskal literaturaren kontra etortzen dela gero hori.

Arazo larriagoak ere baditu euskarazko liburuaren merkatuak.

Gauza guztiei buruz dakigu zerbait azken urteetako azterketei esker, baina ez dakigu ezer irakurleez. Eta gainera, gure hezkuntzaren inguruko industria guztia duela hogeitau urte irakurle izan zirenen mekanismoekin jarraitzen du.

Orduan euskaldundu ziren eta orduan eginiko irakurketa haietan geratuak dira, orduko liburuak aholkatzen dituzte euren ikasleek irakur ditzaten, handik hona ezer aurreratu ez bagina bezala. Negargarria da.

Idazterakoan, zertan ukan dituzu trabarik handienak?

Familia izandakoan, ez da idazteko asti handiegirik izaten. Duela gutxi esaten nion Bernardori, bere bi alabatxoak aita, aita etortzen zaizkionean, ezin izango duela lehenago bezala idatzi. Bizitzarako hain ederra den parentesi hori, zaila izaten da idazlearentzat.

Larritasun ekonomikoek ere eragotzi izan didate idaztea. Hala ere, beti konpondu izan naiz. Dirua denbora erosteko behar dudala esaten dut nik beti eta halaxe da. Azken urteotan, hala ere, ezin nahiz kexatu, aldiz, hasieran ez zen oso erraza izan.

Nondik etortzen zaizkio gaurko idazleari diruak?

Nik neuk gidoiak egiten ditut telebista produktora batentzat. Hala ere, lehen aski argitu gabeko kontu batera itzuli nahiko nuke, profesionalizazioaren kontu horretara, alegia.

Idazleak profesionala izan behar duela esan dut lehen eta horrek hala behar du niretzat. Ez dut esan nahi, hala ere, idazleak literaturatik bizi behar duenik. Hori ametsa litzateke. Baina izanak izan eta hortik bi euro aterako ez baditu ere, idazle profesionalak bezala jokatu behar du idazleak.

Askotan hitz egin dugu gure artean ea zer ote den hobe, idaztetik bizitzea (hitzaldiak, gidoiak, kazetaritza, artikulua...) ala idaztearekin zerikusirik ez daukan lanbide batean aritzea. Ez gara sekula zer den hobe erabakitzeraino iritsi.

Norberak hartu behar du bere irtenbidea horretan ere baina kontua da idazle kontsiderazioa ematea bere buruari. Bere diru iturriak dauden lekuan daudela ere, bere burua idazletzat hartzea lehenik. Idazle profesionala balitz bezala jokatzeko.

Nik uste liburu honetan batu gaituzun bostok badugula hori. Zertan egiten dute lan Bernardok, Ramonek edo Koldok? Nola ateratzen du bizia Josebak edo nola neronek? Zer ardura dio horrek inori?

Argi dago idazleak gabela eta horixe dela axola zaiguna. Hortik bizi garen edo ez, bigarren mailakoa da. Non egiten duzun lan bost axola!

Txiki xamarrek izaki, literaturatik bizitzeko.

Txiki izatearen kontu hori, bi momentutan planteatu beharreko kontua da.

Liburua egin bitartean, nobela idatzi bitartean alegia, lehenago aipatu ditugun aukera kreatiboak hor daude baina gureak berezkoak dituen eragozpenekin. Esaterako, idazle espainol batek ez dauka euskal idazleak dituen arazo batzuk. Euskal idazleari behin eta berriz ateratzen zaio “esan zuen” eta “esan zuen” eta “esan zuen”... Eta euskal idazleak borroka bat dauka “esan zuen” berriz ez idazteko, asko ikusten da eta. Traba egiten du. Gehiegi entzuten da. Espainolez ari denak, “dijo” jarriko du mekanikoki, pentsatu beharrik ere gabea eta ez da ezer gertatuko. Nabaritu ere ez da egingo “dijo” hori. Desabantailak ditugu horrelako kasuetan. Eta abantaila bakarra, lehenago esandakoa, kreaziorako aukera handiago eskaintzen duela euskarak, erregistro gehiegirik ez dagoelako finkaturik tradizioan.

Txiki izatearen beste kontu batzuk, liburua amaitutakoan ere ikusi behar dira. Merkatuaren gorabehera horiek guztiak. Jartzen telebista eta ez dakit zein sari irabazi duen idazle espainiar ikusten duzu festa batean eta handik gutxira beste batean. Noiz kristo idazten du horrek? Seguru asko bere merkatuaren presioak behartzen du horrela ibiltzera. Hedabideetan oihartzun hori eduki beharko du bizirik segituko badu. Horrelako gauzak ez zaizkit batere interesatzen.

Duela hogeita hamar urte idazten hasi ginen eta honaino iritsi gara. Egoera hartan hasi ginen eta gaurko errealitate hau amestu ere ezin zitekeen egin, gaurko estandarizazio hau ez zitekeen pentsatu ere egin. Hala ere apustu egin genuen. Geure hizkuntza ere honaino etorri da edo ekarri dugu. Zer nahi duzu? Niri ez zait beste guztia gehiegi interesatzen.

Halako argitaletxe edo editorerekin halako edo bestelako hizkuntzan argitaratzeko aukera daukadala eta kontu horiek guztiak oso nekagarriak egiten zaizkit. Nor bere buruaren promozio lanean ibili beharra, akigarria da. Badakit bide hori ere egin beharrean gaudela, baina gorputzak ez dit uzten askoz haratago joaten. Ez dit uzten halako gauzetan idazten baino denbora gehiago pasatzen.

Hainbesterakoa al da?

Noiz izaten da arrakastatsua liburu bat?

Ez da inoiz deskuidatu behar horrelako gauza bat epaitzerakoan. Kalitatea eta kantitatea edo arrakasta komertziala, bi gauza ezberdin dira baina, hala ere, zenbaitetan aldibereko gerta daitezke. Begi bistakoa da.

Arrakasta kantitatearen arabera denean soilik, oso gutxitan gaintzen du denbora liburu horrek. Hemendik bost urtera inor ez da oroituko. Liburu arrakastatsua zein den? Kalitateak jendearen estimazioarekin koinziditzen dueneko delako esango nuke. Arrakasta, azken finean, oihartzuna baita.

Har ditzagun zuk idatzitako liburuen artean muturreko bi egoera ezagutu dituzten bi lan, Hamaseigarrenean aidanez eta Carla. Bi horietarik zeinek eduki du arrakasta handiagoa zeuretzat?

Idatzitako zein liburuz damutzen zara eta zein falta zaizu idazteko.

Hemendik ehun urtera irakurriko al da zure lanik? Otto Pette agian? Asko ardura al dizu horrek?

Oraintxe da unea kritikaren funtzioari buruz hitz egitekoa.

Txiki izateak sortzen duen arazo handienetako bat horixe da, hain zuzen ere, ezin dela kritika sintzerorik egin, ezin dela irizpide askerik izan. Hain gutxi izan eta denok elkar ezagututa, lotura eta deslotura gehiegi daude elkarren artean.

Gaur behar bezalako kritikarik ez badago, idazleonek erruz ere bada. Ez baitugu kritikarik onartzen. Ez eta zentzuz egindakoak ere: ez zait gustatu honegatik eta horregatik, nire ustez irrist egiten du horretan... Esparru txiki batean bizi garenez ez dugu halakorik jasaten. Seguru asko, gure eremua zabalagoa balitz, errazago irentsiko genituzke.

Beharbada idazleok izango gara kritikak gutxien onartzen ditugunak.

Bai, baina, hala ere, zein kritika mota behar dira eta zein helbururekin?

Idazlek sartu al daiteke kritika lanetan ala, lurralde debekatua du hori?

4

Itzulpena harantz eta honantz.
 Irakasleak zaletu behar dira lehenik.
 Poeta gazteak narratzaileen gainetik.
 Aniztasuna dut aldarrikapen.

Mintza gaitzen itzulpenaren garrantziaz.

Itzulpenarena bi zentzutako kontua izan ohi da: harantzakoa eta honantzakoa.

Mitxelenak beti esaten zuen askozaz ere garrantzizkoagoa zela harantzakoa bidea, itzulpenaren bidez eta aitzakian euskal idazleak kanpora ateratzea, alegia. Garrantzitsuagoa zela hori kontrakoa bidea baino.

Ez nago ziur baina esango nuke Mitxelenari ahortzi egin zitzaioala beste elementu bat kontutan hartzea: euskal idazleak literaturaren erreferente unibertsalak bere hizkuntzan jaso ahal izateak, berebiziko garrantzia dauka. Garrantzitsua da klasikoak, esaterako, norberaren hizkuntzan irakurri ahal izatea.

Egia da, hala ere, euskal idazlearentzat garrantzi handia daukala beste hizkuntza batera itzulita ikusteak. Bere lana hobetzeko aukera ematen dio horrek. Originala eta itzulpenaren artean dialektika bat sortzen da eta hori beti etortzen da hurrengo originalaren mesedetan.

Nik uste dut azken hamar edo hamabost urte hauetako gure hizkera literarioaren eraikuntzan, sekulako garrantzia daukala itzulpenak. Askotan uste duguna baino gehiago.

Nola joan zaizkizu orain arteko esperientziak, zein izan da beste merkatuetan kausitu duzun harrera?

Beste eragile batzuk ere badira euskal literaturaren bidean azken urteetan ibili direnak: idazleen elkarteak, editoreena, itzultzaileena, Durangoko Azoka... Askotan traste gehitxo ez ote den ere..

Horrelako gauzetan beti izan naiz eszeptiko xamarra. Hala ere egokitu zait bai, halakotan ere ibiltzea. Zeure leialtasunak dituzu beti.

Oroitzen naiz Euskal Idazleen Elkarteak sortu behar zela eta, nola etorri zitzaizkidan bost pertsona bila. Frederiko Krutwig eta konpainia.

Neu nintzen halako elkarte batean federik gutxien neukana eta neuri egokitu zitzaidan presidente izatea. Paradoxikoa lirudike baina nik ulertzen dut halako gauzek ere behar dutela funtzionatu.

Arazoa betikoa da hemen ere: zerbait lortzeko asmotan egindako bitartekoa, helburu bihurtzen da. Horretan arazoa dugu.

Ez duzu inoiz pentsatu, euskal kulturaren mundua, sortzaile kulturalen esparrura mugatzen dela? Beste era batean esanda, liburuak irakurtzen dituztenak idazleak direla, erakusketak ikusten dituztenak artistak direla...

Zenbat du egiatik eta gezurretik euskal kulturaren munduak?

Nazionalismoa eta euskara, beti lagunak izan al dira?

Eta nazionalismoa ez den beste horrek, egin al du sekula ezer euskal kulturaren alde?

Aniztasuna darabilzu hitzetik hortzera baina nola egin daitezke zubiak bi komunitateen artean, inork ezer galdu gabe, denok irabaz dezagun?

Zein uste duzu beharko lukeela izan instituzioen papera zeregin honetan eta euskal kulturaren babesean?

Eskola mundua ere ondo ezagutzen duzu. Zer egin liteke irakur zaletasuna bultzatzeko?

Izatekotan ere, irakasleen irakur zaletasuna bultzatzen saiatuko nintzateke. Ikasleak bakean laga eta irakasleen alde horretara bideratuko nuke politikaren bat. Izan ere, irakasleekin zerbait lortu ezkerro, agian zerbait etorriko ikasleen artera ere. Ikasleekin ezin da ezer lortu, irakasleekin lortzen ez bada.

Liburuaren Totem izaera horren kontra egin behar da. Ez irakaskuntzan bakarrik, gainera, mendebaleko gizarteak jainkoturik dauka liburua, sakralizaturik. Zineari, esate baterako, ez zaio halakorik gertatzen.

Liburua jakituriaren depositoa izan da, literaturak prestigioa eduki du beti... Horrek guztiak uste txarrak sortzen ditu eta jokabide eta diskurtso totemikoak eragiten ditu.

Gurasoak irakurtzeko agintzen dio haurrari baina berak ez du irakurtzen. Irakasleak irakurtzeko aholkatzen duen liburua, ikasleak ez dio sekula besapean ikusi. Testu liburuak soilik ikusi dizkio. Horrela zer nahi duzu?

Horregatik esaten dut irakasleekin hasiko nintzatekeela ni. Gauza bitxi bat ere gertatzen da, ni joan izan naizen institutu eta eskola gehienetan, gure irakurleak ez dira hizkuntza eta literaturako irakasleak izan. Irakurle hoberenak beste diziplinetan ikusi ditut nik: matematiketan, biologian, fisikan..

Unibertsitatean ere berdintsu?

Euskal Literaturaren gaurko panorama, nola dakusazu?

Batez ere poesia jarraitzen dut. Sekulako sorpresak hartzen ditut. Oraintxe bertan Jon Benito izeneko poeta gazte baten lana irakurri dut *Aingurak erreketan* izenekoa. Heldutasun handia dagoela konturatzen naiz.

Konturatzen naiz, gainera, urteak ez doazela alferrik aurrera eta zahartzen ere hasiak gaudela. Horregatik pozten naiz hainbeste hogeitau urte inguru norbaiten lana irakurri eta, ni poetikoa erabat definitua ez, baina perfilak ederki nabarmenduak dituela ikusten dudanean. Balio oso garrantzitsuak ditu. Gero irauten duen ala ez ikusi behar.

Irauteak ez du esan nahi, inola ere, liburu asko argitaratzen ibili behar denik. Irautea lehenago aipatu dudan zentzuan ulertzen dut nik: idazle profesionala zarela sinistuta bizitzea, horretatik bizi ala ez bizi.

Harrigarria da poesia idazten ez duen batentzat, poesia izatea lurralderik zelatatuena.

Bai, eta gainera sekulako atseginak hartzen ditut, horretan, poesigintzan, espainolez ikusten ez ditudan gauzak ikusten ditudanean. Pozgarria da hori.

Euskaraz bide ezberdin batzuk ikusten ditut. Gure garaian erreferente oso laburrak genituen orain, ordea, gauzak asko aldatu dira, badaude lehen ez geneuzkan erreferente batzuk. Gauzak asko aldatu dira.

Eta narratiban?

Hor ez nintzateke ausartuko hainbeste esatera. Gazteez ari naiz, jakina. Kasuren bat edo beste kenduta, ez dut gauza handiegirik ikusten. Iruditzen zait literaturaz kanpoko fenomenoak lekutzen ari direla gurean ere. Mimetismoz, Espainiako balio faltsuen puztutzea gertatzen dela gurean ere. Horrek guztiak bere atzetik zerbait ekarriko balu, tira, baina nire ustez espejismo hutsak dira halako fenomenoak eta faktura pasatzen diote gero idazleari berari. Askotan, argitaldaritik bertatik bultzatzen den jokaera horrek kaltea ekartzen dio idazleari.

Zehaztu ezazu apur bat gehiago.

Eta zeuri egokitu zaizun paperaz, zer daukazu esatekorik? Askotan izan zara galdetua huntaz eta hartaz.

Herrigintzaren ikuspegitik kezkatzen nauen gauza da euskal munduak hartzen duen irudia. Ene ustez oso desenfokatua da eta euskara beraren kalterakoa ere bada.

Esan nahi dut, euskal mundua ere anitza den arren, behin eta berriz ibili behar izaten dugula hori aldarrikatzen eta oso nekagarria dela langintza hori. Horixe nozitu beharra egokitu zaigu.

Bigarren irudipen ere badaukat. Frankismoaren amaieran, trantsizioaren lehenengo urteetan, euskararen inguruan sortu zen berebiziko mugimendu bat alferrik galdu genuela uste dut. Gure zabarkeriak ekarri zuen hori.

Lehenagoko garaietan, kostunbrismoa eta antzerakoen topikoak gehitzen zitzazkion beti euskarari. Egia da, hala ere, XIX garren mendean hemen egin zen literatura kostunbrista guztia, gaztelaniaz izan zela egina eta ez euskaraz. Baina topikoa euskarari egotzen zaio. Topikoa euskararen eremuan geratu da, euskarak eta euskaraz sortu balu bezala.

Gaur egun ezagutzen dugun indarkeria ere ez da berez euskararen eremukoa. Ez da euskararen ezer, ez da euskal literatura edo euskal kulturaren ezer, baina topikoa euskararen esparruan geratzen da azkenean.

Ni asko kezkatzen nauen kontua da hori. Eraikuntzaz ari garelarik, -eta ez dut eraikuntza nazionala esan nahi, gizarte baten eraikuntza esan nahi dut, historia ere eraikuntza baita, azken finean-, garrantzi handikoa da aniztasuna balio bezala hartzea. Globalizazioak ezer onik ekarriko badio gure historiari, horixe izango baita: aniztasunaren onarpena.

Globalizazioa uniformizatzailea izango dela diotenenk, ezin diote horri kontra egin txikiaren proposamen uniformizatzaileen bitartez. Borroka hori galdua legoke.

Horrek ez du esan nahi, jakina, zabaltzen denak iraungo duenik. Hori ez dago ziurtatzerik baina, behintzat, mestizaiaren bideetan egingen du aurrera.

Zure papera aniztasun hori aldarrikatzen ikusten duzu?

Horretan pentsatzen ahalegintzea eta hori pentsatzen dudala adieraztea.

Ez al du zeregin hori bera arotz batek, esaterako?

Baliteke baina nik horretarako tresnak eskurago ditut berak baino edo musikari batek edo pintore batek baino. Nik hitzarekin egin dut lan.

Berriro ere artista jendea aipatu duzu.

Hara, nik uste, euskal idazleok askoz gehiago hurbildu garela, orain eta lehen, euskal artistengana eurak guregana baino. Errepublika garaian eta gerra ostean eta beranduago ere, artista plastiko askok, pintore eta eskultoreek bereziki, euren buruak euskalduntzat eta abertzaletzat hartu izan dituzte askotan, baina beti eduki dugu idazleok interes gehiago euren lanarekiko alderantziz baino. Hori horrela izan da, zoritxarrez.

Erretxindu xamarturik zaude.

Amaitzeko, esaizkigu etxean derrigorrez eduki beharreko bost euskal libururen izenak.

Xabier Lizardiren *Biotz begietan*. Besteak beste, liburu hori irakurri ostean, euskaldunak euskal paisaia beste modu batean ikusten delako ere bai.

Saizarbitoriaren Hamaika pauso, Atxagaren Obabakoak eta xxxxxxxx (?), nik ezagutzen dudana idazle narratiboena delako.

Eta euskarazkoak ez diren beste bost?

Danteren *Komedia jainkotiarra*, Stendall-en *Beltz eta gorri*, Shakespeare-ren *Hamlet*, Cervantes-en *Kixotea* eta Thomas Bernard-en *Kontsrukzioa*.

Ramon Saizarbitoria.

1

Familia eta lehenengo irakurketak.
Beste artebideak,
Euskara eta gaztelaniaren arteko hautua.
Saizarbitoriak santu izan nahi du.
Lehenengo militantziak eta pausoak.

Nire haur garaiko inguruaz ezin esan liteke kulturalki oso aberatsa zenik. Aita bertsozalea nuen, bertsoak egiten zituen. Gauza askoz gehiagorik ez, ordea. Beranduago, umetan, Nemesio Etxaniz apaiz euskaltzalea eta idazlea ezagutu nuen. Gure aita gaixo zelarrik, bisitan etortzen zitzaion eta hizketan aritzen ziren biak. Hark ere ez zidan, ordea, ate handiegirik ireki. Oraintxe konturatzen naiz horretaz.

Nikolas Ormaetxea “Orixe”-ren bertsoak eta horrelako gauzak aipatzen zituzten. Ez zitzaizkidan oso erakargarri egiten. Izan ere, Nemesio Etxaniz bera nahikoa gizon katxondoa bazen ere, azken finean sotana luzea erabiltzen zuen goitik behera. Apaiza zen eta niri, egia esan, fraideetan ibilia nintzenez, apaizen mundua ez zitzaidan oso atsegina egiten. Gure kultura apaizekin lotuta zegoela ikusteak ere ez zidan euskal kultura mundu erakargarria izan zitekeenik ikusten uzten.

Nolabait esateko, etxean beti eduki genuen euskal munduarekiko lotura abertzalea, Euskal Herriarekiko harreman agoniko eta triste hori.

Baina irakurri, irakurriko zenuen.

Nire lehenengo irakurketa gogoan dut: eskolan izan zen, Mirentxu****. Haren ondotik Pío Baroja eta ondoren Leon Tolstoi, Fedor Dostoyevski eta horrelakoak.

Neroni ere hasi nintzen zerbait idazten hamahiru urte nituenean. Pío Barojaren tankeran.

Espanieraz idatziko zenuen orduan.

Espanieraz, bai. Eta aldi berean marrazkiak egiten nituen. Nahiko ondo, gainera. Nire inguruak mirestu egiten zuen nire beste lan hori. Aitak bisitatzen gintuenean: “Begira, begira Ramonen dibujoak” esaten zuen pozarren. Esku ona nuen. Baina gauza harrigarria gertatu zitzaidan, eta gerora ulertu dut marraztearekin izan nuela halako momentu erabakigarri eta garrantzizko bat. Ustekabean ikusi nuen gai nintzela edozein gauza erreproduzitzeko, zernahi kopiatzeko baina, hala ere, ez neukala zer eginik marrazkiaren alorrean. Hori ez zela niretzako bidea.

Zenbat urte zenuen horretaz konturatu zinenean?

Hamasei edo hamazazpi edukiko nituen.

Harrigarria da zerbaitetan abila izan eta bertan behera uztea.

Eskolan eta inguruan esaten zidaten “marrastu indio bat”, eta nik indio bat egiten nien ikaskideei. Enkarguz egiten nituen halakoak. Eta mundu guztiari iruditzen zitzaion ondo marrazten nuela. Agian izan nezakeen etorkizun apur bat bide horretatik baina nik oso argi ikusten nuen dibujatzeko ez zela aski esku ona edukitzea, zerbait esan behar zela dibujoaren bitartez, alegia.

Hausnarketa horretara nola iritsi nintzen ez dakit, baina iritsi nintzen. Eta jakin nahi nuke neure buruari, idaztearekin nola ez diodan gauza bera planteatu.

Hain garbi ikusi nuena dibujatze kontuan, ez nuen berdin ikusi idazteari dagokionez. Ez da nahikoa pertsona baten karikatura ondo egitea edo beharrezkoa den teknika hori menderatzea. Zerbait adierazteko edo espresatzeko gai izan behar du marrazkilariak edo pintoreak.

Hori nik, oso ondo susmatu nuen eta seguru asko porrot egingo nuen bide horretatik jarraitu izan banu.

Idatzi, ostera, egiten zenuen.

Garai hartan gauza txikiak idazten nituen eta akordatzan naiz neu izaten nintzela koadrilan filmak kontatzen zituena. Hori ere asko erabiltzen zen kirola genuen gu umeak ginela. Orain ere pentsatzen dut umeek kontatuko dizkiotela pelikulak elkarri. Batzuetan ikusi gabekoak ere kontatzen nizkien nire lagunei.

Eta euskaraz, noiz hasi zinen euskaraz idazten?

Abertzaletasunaren kontzeptua sartu behar da hori ulertzeko. Berriotxoako Balentinek esaten omen zuen “ *Quiero ser santo para que un santo tenga Vizcaya*”. Neu ere halatsu.

Hemezortzi edo hogeitun urte nituenean, euskararen mundua gure etxeko sukaldean amaitzen zen. Gauza aspergarriak eta elizkoiak izaten ziren gehienak.

Nire lehenengo nobelak ere xede horixe du: euskaraz ere egin behar zirela mundu normalean gaztelaniaz edo frantsesez egiten ziren gauzak. Militantzia mota batek bultzatu ninduen, bada, idaztera.

Zenbat euskara zenekien orduan?

Etxekoa. Etxekoa eta kito.

Horretan ere suerte txarra eduki nuen, zeren akordatzan bainaiz Maria Dolores Agirreri, Escuela de Declamación Vascakoari eskatu niola laguntza, baina kale. Antzerkia egiten zuten eurek eta hori ere irtenbideetako bat zen garai hartan. Ni ere han ibili nintzen oholtzara igota.

Hogei urte inguru izango zenuen orduan.

Bai hori da. Han egiten genituen antzerki saioak, orain ez naiz akordatzan tituluez, baina betiko leloak ziren: Ameriketara joaten den euskaldunarena, mutil zahartuta bueltatzen denarena, andregai hil egin zaionarena, aberastuta etortzen denarena... eta bere bariante guztiak.

Toribio Altzaga eta horrelakoen gauzak izaten ziren. Eta esan nion, bada, Maria Dolores Agirreri nire euskara traketsa eta alfabetatu gabea zela. Analfabetoa nintzela, beraz. Ezetz erantzun zidan, nik banekiela nahikoa.

Ordurako hasia izango nintzen, seguru asko, *Zeruko Argiarako* zerbait idazten. Azken finean, nire belaunaldiko askori gertatu zitzaion gauza bera gertatu zitzaidan neuri ere: jaso behar genuen garaian, ematen hasi behar izan genuela.

Txarra eta ona izan liteke hori, aldi berean.

Zaude isilik! Askotan gauez esnatzen naiz oraindik ere amesgaiztoekin. Orduan ematen genituen hitzaldi haiek! Hau lotsa. Jakin nahiko nuke zer esaten genuen herriz-herriko ibilera haietan. Bizi ote da norbait hitzaldi haiez gogoratzen denik? Lotsaz gorritu egiten naiz ikaragarri, pentsatze hutsarekin. Izerdi patsetan jartzen naiz.

Halakoxea zen orduko gure dinamika, ordea: entzun eta ikasi behar genuen garaian, hitz egiten eta idazten hasi behar izan genuen. Bizitza guztian zehar gertatu zait hori.

2

Militantziatik idazle izatera.
 Denok gara idazle baina...
 ...irakurlea ez da beti idazle izaten.
 Inon aurkitzen ez duena idatzi nahi du.

Hala ere, kulturaren militantzia horretatik idazletzara badago saltoa. Ez makala, gainera.

Nire kasuan euskara izan zen horretarako eduki nuen bultzada. Ez nago seguru, hala ere. Beste kontu bat da erdalduna izan banintz, ez dakidala idazten segituko ote nuenentz.

Idazle izatearen kontu hori ez diot nire buruari onartu nahi izan oraintsu arte. Ez dakit, agian nire porrotak nolabait disimulatzeko, edo nire lana ez onartzeko, edo idazlearen lana oso serio ez hartzeko mekanismo bat izan da hori guztia. Edo kritika berari ihes egiteko bidea ez ote den izan ere ez dakit segur.

Nik idatzi egiten dut. Zergatik? Horretan hasi nintzelako eta askorik ez zegoelako.

Gure beste drametako bat baita nazio eraikuntza. Nazioa egiteko dagoen neurrian, idazteak balio sinbolikoa du eta literatura bat beharrezkoa zaigu eta, beraz, gure lanetako bat, eta premia handikoa gainera, literatura bat lortzea da. Ondorioz nire idazteko grinaz, gogoaz edo gaitasunaz aparte hasten naiz idazten. Bai, hori argi daukat, militantzia hutsez hasi nintzen idazten.

Aberrigintzan, beraz.

Bai, bai. Hori halaxe da. Geroago, dudarik gabe, beste zerbait ere badago. Esan bezala hasi nintzen idazten baina geroago zaletu edo egin nintzen. Ez zen aberrigintza soila idazteko kontu hura.

Natalia Gingsburg(?)-ek ederki adierazten du hori: “Idazle xumeenak ere, artista pobreenak ere, azken finean artista handien kezka, gurari eta gogo berdina bizi ditu”. Horrelaxe ulertu nuen nire idazle izaera: ni ez naiz idazle handia baina idazlea naiz hala ere, eta idazleen kezka ditut eta idazle batek bezala bizi dut mundua eta bizi ditut arazoak eta afektuak eta bestelako guztiak.

Gehiago esango dizut: literaturaren galbahetik pasa gabeko esperientzia ez zait interesgarria egiten. Max Frisch-ek ere esaten du hori. Argi daukat bai, bizitzan gertatzen diren gauzak ez dute interesik literatura bidez islatzeko modukoak ez baldin badira. Hori horrela da niretzat. Handia edo txikia izan, perbertsio horixe daukat.

Virginia Wolf-ek kezka edo arazo berbera izan zuen. Azkenean idazle guztiok daukagun gauza da hori. Wolfek, Marcel Proust-en idatziak irakurri zituenean, zera esan omen zuen “Zertarako idatzi behar dut gehiago?”.

Antzeko zerbait gertatzen zaigu guztioi. Zein da nire funtzioa?, galdetzen dugu. Berak ere ulertu zuen beste maila batekoa izanagatik, berak ere bazuela zerbait esatekorik. Eta bai, gizaki guztiok dugu zerbait esateko.

Oso demokratikoa da hori.

Beste gauza bat ere badago, ordea: irakurri ezin dugun lana idazten dugu. Irakurtzeko topatzen ez dugun nobela idazten dugu. Baten batek pentsa dezake handiustekoa dela diodana: “ez duzu aurkitzen zeure gustuko nobelarik eta zerorrek idatz dezakezula uste duzu”. Ez da horregatik idazten baina, nolabait, nobela ona ez izan arren, norberak bizi duena norberak bizi duen moduan irakurtzeagatik idazten da. Beste norbaitek idatzitako zerbait gustatzen zaidanean, nirekiko kointzidentzia hori gertatzen delako izaten da. Kontatzen zaizkidan gauzak neronek bizi ditudan moduekin bat datozelako, alegia. Horrexegatik irakurri ohi da. Nik bai, behinik behin.

Irakurtzeak, ordea, ez dauka derrigorrez zertan idaztera bultzatu beharrik. Bi gauza izan daitezke horiek. Hamaikatxo irakurle ezagutzen dugu, idazteko batere premiarik sekula sentitu ez dutenak.

Bai eta badira beste batzuk, irakurle on-onak izanik, eta asko eta asko irakurtzen dutelarik, eta literaturaz asko dakitelarik, eta idazteko gai direlarik ere, idazteari utzi egiten diotenak. Lan interesgarriak idatzi, eta nobela bakarra baino argitaratzen ez dutenak. Idazteko lanari supituan utzi egiten diotenak. Zenbat halako dago? Arazo psikologikoak egon daitezke horrelako gertaeren azpian.

Horregatik aipatu dizut lehen marrazkiaren eta pinturaren kontu hori. Azkarra izan nintzelakoan nago, berehala ikusi bainuen plastikaren mundu horretan ez nintzela gai ezer berririk esateko.

Askotan arte erakusketetara joaten naizenean, neronek egin ditzakedan gauzak ikusten ditut eta pena apur bat hartzen dut, egia esan. Nik ere egin dezaket hori, pentsatzen dut, baina ez dut inolako interesik halako ezer egiteko, ordea. Azken finean, behar psikologikoekin du zerikusia horrek guztiak.

Hala ere, behin baino gehiagotan entzuna dizut, zeure idazle status hori onartzeko orduan, atzera bota izan zaituen gauzetako bat dela zeuk beste idazleei diezun begiramena eta miresmena. Euren artekoa izateak beldurtzen zaituela.

Bai hori da. Zeure burua, idazle bezala azaltzeak badirudi halako harrokeria eta hantuste kutsua daukala. Niretzat hain da garrantzitsua irakurtzea!

Idazleen Elkartean izena ematea asko kostatu zitzaidan, nolabaiteko ofizialtasun bat ematen baitzion horrek nire buruari: eh, begira iezadazue, ni idazlea naiz, hara, hortxe jartzen du, zerrenda horretan.

Orain ez dut horretan arazorik, hala ere. Lehen esan dudanez, klase guztietako idazleak gaude. Futbolearen ere badira futbolari bikainak eta igandetan lagunaren artean jokatzen dutenak ere bai. Idaztearekin gauza bera gertatzen da. Dibujatzearekin berriz, ez. Zergatik? Ez dakit.

3

Rikardo Arregiren itzala.
 Estudiante tunantea atzerrian.
 Frantzian begiak.
 Marxismoa eta existentzialismoa.
 Lehen bidaideak.
 Abangoardiaren elitismoa.
 Espainian ez zegoen ezer.

Hel diezaiogun lehengo kontuari. Dena pakete berean zegoen: aberrigintza, kulturgintza, euskalgintza, literaturgintza... Nortzuk zenituen kide?

Ni mundu horretan sartu ninduen Rikardo Arregi izan zen. Euzko Gaztedi-n ezagutu genuen elkar. Burukide batek antolatu zigun hitzordu sekretua taberna batean. *Le Monde* egunkaria eraman behar genuen besapean elkar ezagutzeko. Horixe genuen seinalea. Kontraseña ere bagenuen. Hark “ni andoaindarra naiz” esan behar zuen, eta nik “ni donostiarra” erantzun behar nuen.

Tabernan geundelarik ikaragarri nabarmena egin zitzaigun era horretan jokatzera behartuak egotea.

Pena da zuek biok une hartan eta bi gaizkile bezala zeundetela, grabatzeko kamerarik ez egotea.

Bai gizona, berehala esan genizkion izenak elkarri. Hau mundu txikia baita eta garai hartan Rikardo Arregi *Zeruko Argia* bultzatu nahian zebilen. Orduan hasi nintzen ni elkarrizketak eta bestelakoak egiten.

Gero Ibon Sarasola, Jose Ramon Toledo, Mikel eta Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia... sartu ziren. Beti *Zeruko Argiaren* inguruan. *Jarrai* antzerki taldeak ere bere garrantzia eduki zuen, Iñaki Beobide eta konpainiarekin.

Igandetako nire lagunek, ordea, ez zuten zerikusirik honekin guztiarekin. Beste mundu bat zen haiekin neukana: erdaldunak, donostiar petoak... Aipatu dizudan zirkulu horretatik kanpora ez nuen euskararik hitz egiten. Kezka handiegirik ere ez zegoen horregatik.

Bi mundu oso ezberdin bizi izan ditut nik beti: eskolatik eta inguruan ezagututako mundu “normala” eta euskararen ingurukoa.

Ikasketak Donostian, Gasteizen eta Suitzan egin zenituen. Dirurik eza zela kausa edo ohiturarik ez zegoelako, garai hartan ez zen jende asko ateratzen kanpora.

Nik uste dezente ateratzen ginela, batzuk behartuta eta beste batzuk hemen ez zegoelako estudiantzerik. Ez zegoen unibertsitaterik. Euskaldun guztiak, Bartzelonara, Zaragoza eta Madrilera joaten ziren medikuntza ikastera. Edo beste nora edo nora.

Gure garaian ohikoa zen kanpoan ikastea eta, ez hori bakarrik, lanean kanpoan geratzea ere normala zen.

Ni, Jose Ramon Toledok eraman ninduen Friburg-era. Gizon honek Rikardo aregirekin idatzi zuen “*Herriak eta gizonak*” (?).

Han biltzen ginen euskaldunok, beti egin ohi dugun eran, elkarrekin eta elkarren ondoan ibiltzen ginen. Mikel Lasa eta Rafa Egiguren ziren tartean, besteak beste. Beti herriminez, beti Euskal Herriari begira.

Geroago agertu ziren Jose Mari Agirre *Txato* eta Matxain izeneko gaintzar bat. Ihesean etorriak ziren. Matxainek baten batekin topo egiten zuenean beti galdetzen zion “*Tu connais Gaintza?*”.

Zer gertatzen zaio zu bezalako jatorri abertzalea duen mutil bati herriarekin halako distantzia hartzen duenean?

Dudarik gabe handitu egiten da sentimendua, herrimina. Beti gure herriari begira bizi ginen eta “hirurogeita zortzia” han geundela gertatu bazen ere, ezin esan liteke gehiegi enteratu ginenik. Zerbait bai, hori ere egia da. Oroitzen naiz nik orduantxe idatzi nuela *Egunero hasten delako* eleberria.

Distantziarekin herrimina handitu egin zitzaigun eta beste faktore berri bati ere egin behar izan genion lekua: marxismoari. Gero etorriko ziren, abertzaletasuna eta marxismoa, biak lotzeko zailtasunak.

Barojak karlismoari buruz bada ere, kontrakoa esaten zuen. Bidaiatuz sendatzen dela hori. Abertzaletasunari buruz ere esan izan da halakorik.

Bestelako jendea eta bizimodua ezagutzeak emango zigun zerbait, hori ezin izango da ukatu, baina kontua da nik Suitzatik eskualde bakarra ezagutu nuela. Egin nituen lagunak ere txitxinoak (?) ziren, suitzarrak baina Italia partekoak. Gure borrokarekin liluraturik geratzen ziren. Garai hartako lagunak bat ere gordetzen dut oraindik.

Aingeruen antzeko lagun suitzarrak ere egin genituen, *Brigada Rossa*-ri laguntzeagatik kartzelan egondakoak eta horrelakoak. Juxtu guk miresten genuen guztia, ordenua, garbitasuna, gauzen funtzionamendua... gorrotatzen zituzten haiek. Aspertuta zeuden hainbeste txukuntasunez.

Guk geure borrokarako adoktrinatzan genituen eta nolaz eta suitzarrek beti izan duten oso harreman berezia armekin, behin eskaini ere egin zizkidaten: bazekitela non eta nola lapurtu metraileta batzuk. Halako gauzak esaten zizkiguten gure borrokarekin bat egin nahian.

Sartre eta existentzialismoa ere garai hartakoak izanen dituzu. Beti aitortu izan zaizu halako afrantsesamendu bat, Juliette Greco kantaria gustatzen zaizula eta abar.

Bai, hori halaxe zen eta ulertu egin behar da: Paris dekadentzian egongo da baina orduan munduko kapitala zen kultura kontuetan. Munduko hiriburua. Eta muga Donostiatik hain gertu egonik, huraxe genuen erreferentzia. Horregatik Sartre eta Camus. Ez ziren bakarrak izan gainera. Beste batzuk ere miresten nituen, Robbe Grillet (?), Michel Butor eta gainerakoak. *Nouveau Roman* egiten zutenak.

Nire nobelagintzan eredugarri izan dira horiek. Orain *demodé* xamar daudela esan dezake batek baino gehiagok, baina denek onartu beharko dute oso garrantzizkoak

izan zirela. Bideak ireki zizkiotela nobelagintzari eta oraindik ere haien eragina gaurko nobela askoren azpian senti daitekeela.

Eragin horiengatik ala ez, zeure lana eta, batez ere, Egunero hasten delako, jartzen dira euskal nobelagintza berriaren sorreran, Jose Luis Alvarez "Txillardegi"ren Leturiaren egunkari ezkutuarekin batera. Zure nobela hartan, kontatzaile orojakilearen lekua hartzen dute pertsonaien bakarkako gogoetek.

Egia esan ez dakit bide horiek zehazki zergatik hartu nituen. Ez dakit beharrezkoak egiten zitzaizkidalako hartu ote nituen ala, aitzitik, Euskal Herriak modernotasuna behar zuela erabaki eta inposaketa huts ez ote ziren izan.

Lehenago aipatuta dudan Nemesio Etxaniz izan liteke paradigma. Ez dut uste hari gauza modernoak gehiegi gustatuko zitzaizkionik baina, hala ere, Robbe Grillet-en (?) erara idatzi zuen ipuin bat. Nahikoa ondo gainera. Azken finean, beste kulturek bezala, gureak ere berritu beharra zeukala erabakirik egingo zuen hori. Nazioa zen helburu, jakina.

Orain ez nuke jakingo zergatiak zehatz esaten. Nik neure behar literarioak nituen baina Euskal Aberriak ere literatura ere behar zuen. Eta modernoak, gainera.

Horixe daukagu guk ezberdintasuna beste kultura batzuekin alderatzen bagara: eraikuntzaren literatura egiten den herrietan, literatura herrikoia egiten da eta gurean, aldiz, literatura elitista egiten hasi ginen.

Elitista ala abangoardiakoa?

Bai, abangoardiakoa. Hala ere, batek dakar bestea ondotik eta elitista ere izan zen.

Zein zentzutan?

Hara, herriak ez zuen irakurtzen. Oso jende gutxik irakurtzen zuen orduan eta gure lanek balio sinbolikoa zuten batez ere. Gure lanak ez ziren irakurriak izango ziren esperantzan idatzitakoak. Hutsunea bete nahi zen. Irlandan, esaterako, ez zuten hizkuntzaren oztoporik eduki, han ingelesez irakurtzen zen eta herriarentzat egiten zuten literatura, herria kontzientziarazteko. Guk ez.

Gure lanetik ez genuen deus espero eta, beraz, bere balioa ez zen irakurria izatea. Bagenekien euskaraz idatziz ez genuela horrelakorik lortuko. Gure helburua zen: finka dezagun balio sinboliko hori eta egin dezagun abangoardiako literatura bat.

Jakina, berehala esan ziguten baserritarrek ezin zutela guk idatzitakoa ulertu. Guri bost axola. Gauza zen euskararen baitan abangoardia sortzea. Eta lortu genuela esango nuke. Espainiakoa baino, eta Euskal Herrian gaztelaniaz egiten zena baino, aurreratuagoak ibili ginela ere esango nuke.

Nik uste dut euskal idazleok, onak edo txarrak izan, irekiago egon ginela kanpoko gauzetara, esaterako, Donostian edo Bilbon gazteleraz idazten zutenak baino. Hain zuzen horregatik: euskarak ez zuelako fitsik balio.

Argi dago, beraz, konpromiso supraliterario bat egon zela.

Bai hori da. Baina gero gertatzen dena da, eta hauxe da nire buruari denbora askoan ulertu ez diodana, gero benetan metabolizatu egin nuen idazle izate hori. Eginez, idatziaren idatziz, zaletu egin nintzen. Ni, esan dudan bezala, Robbe Grillet zalea

nintzen baina ez dakit Madrilgoa banintz, espainola izan banintz, zaletasun berekoa izango ote nintzen.

Euretako batzuek ere konturatu ziren gure lanaz. Ikusi zuten guk intelektualki gauza jasoak egin nahi genituela eta Frantziarantz begiratzen genuela. Ez genuen Espainiara eta Madrila begiratzen. Bai, hortxe ziren Juan Benet eta beste batzuk baina guri Paris interesatzen zitzaigun. Espainiak patata-tortilla usaina zeukan. Espainolek eurek ere onartuko dizute hori.

Eta artifizialki egiten hasi ginen hura, kanpotik geureganatzen saiatu ginen guztia, benetako bihurtu zitzaigun. Ibon Sarasolari eta niri, esaterako, askoz gehiago interesatzen zitzaigun literatura modu hura, garai hartan egiten zen errealismoa baino.

4

Euskal klasikoak aspergarriak dira. Salbuespenik gabe.

Dorpea naiz hizkuntzetarako.

Ez naiz fido nire buruaz.

Lagunak behar ditut inguruan.

Profesionalen eta zaletuen auzia.

Ustela, Atxaga eta Izagirre.

Borges ez zait fitsik gustatzen.

Euskadiko Ezkerrakoa egiten naiz.

Zure obran historia hurbilak pisu handia daukan bezala, antzinateak ez du batere. Idazle zaharragoen arrastorik ere ez duzu inondik erakusten. Ezagutu al duzu gure idazle zaharrekiko lilularik?

Ez eta batere. Gure tradizioa aspergarria eta astuna egiten zitzaidan. Lizardi irakurtzen saiatu nintzen, Althusser idazle marxista irakurtzen saiatu nintzen bezalaxe. Orduak eta orduak egin nituen lan horretan, baina ez nuen tutik ulertu.

Axularren *Gero* ere irakurri behar omen zen. Nik Axular ezin dut irentsi.

Ez eta darabilen euskara-ereduagatik ere?

Ez eta horregatik ere. ez. Egia da gero eta gehiago sumatzen dudala orain hizkuntzarenganako zaletasun hori irakurleen artean. Nik uler dezaket hortik, hizkuntzaren askatik, plazera ateratzen ibili nahi izatea, hizkuntzarekin gozatzea. Ez da nire kasua, ordea. Agian ez dudalako eduki kapital linguistiko handirik izango da.

Ulertu ulertzen dut auzia, gauza bera gertatzen baita plastikan, musikan eta abarretan ere. Ikasi egin behar da. Landu egin behar da. Joyce-ren *Ulisses* irakurtzeko saiatu beharra dagoela badakit, eta gero sekulako gozamina hartzen dela ere bai. Ulertzen dut bai jendeak bataren edo bestearen idazkera eredia dotorea dela esaten duenean. Niretzat, ordea, erabat akzesorioa da.

Gure idazle zaharren artetik ez da inor libratzen?

Ez. Niretzat ez.

Ez eta Mogel bat ere, esaterako?

Ez zait interesatzen. Gainera, oso dorpea naiz euskararekin baina baita gaztelera, frantsesa eta ingelesarekin ere. Hizkuntzekin norberak dauka bere inteligentzia maila eta hori kontu oso korapilatsua da. Ez dut uste tontoa naizenik, baina jaisten nauzu etxeo atarira, ematen dizkidazu pare bat buelta begiak itxirik eta akabo, ez dakit non nagoen etxe osteko kalean egon arren. Orientazio defizita daukat nik.

Hizkuntzekin ere berdintsu. Arazo gramatikalak ditut hizkuntza guztietan. Horregatik ez didate balio gure idazle zaharren eredu linguistikoek. Gainera, gaur eguneko euskarararen eredura ekartzeaz arduratu behar banu, galduta geundeke.

Pena handia izan zen, gainera, gaur egungo gazteek aukeran dituzten klasiko unibertsal horiek guztiak euskaraz irakurtzeko aukerarik ezagutu ez izana. Hori orduan harrapatu izan banu, akaso bai. Baina egia, niri beste kontu batzuk ere interesatzen zitzaizkidan eta ez nintzen oso adi ibiltzen hizkuntza kontuetan. Ez nuen alde hori serioegi hartzen.

Gezurra dirudi.

Hori halaxe da, bada. Nik uste dut ez dela nire arazoa bakarrik, jende askorena ere bada: ezin idatzi gabe egon, ezin grinari eutsi, euskaraz ezin idatzi, gaztelaniaz ezin idatzi, beste hizkuntza batean ere ezin idatzi eta, hala ere, hor gaude. Ni behintzat hor nago: idazten.

Ezin dut idatzi gabe bizi. Zergatik? Pena da hain berandu konturatu izana honetaz, baina idazten dudanean hobeto bizi naiz. Ez dakit segur zer esan nahi dudan horrekin baina sentitzen dudan zerbait da hori. Idazten dudanean hobeto nago eta gauzek ez dute benetako interesik paperean jarri arte. Hala ere, hori ezin dut ondo egin. Ez euskaraz eta ez erdaraz.

Gabriel Arestik esango zizun, bada, klasikoak irakurri beharrekoak direla.

Bai, esango zidan hori ere, baina popatik hartzera bidaliko nuen agian. Ez, ez horrelakorik ez. Maite genuen elkar baina bakoitza bere lekuan. Elkar errespetatzen genuen. Gainera, norberaren dohainen kontua dago hor. Arestirentzat erraza zen oso: jantzen zituen betaurrekoak, gau batez irakurtzen zuen biblia bat danieraz, esaterako, eta biharamunean bazekien hizkuntza hori ere. Izugarria zen. Nik horrelako zerbait egiteko bost urte beharko nuke. Edo gehiago.

Zuk beste lagun batzuk ere izan dituzu. Talde lana oso gogoko izan duzu beti, nahiz eta azkenean bakardadean idatzi.

Nire kasuan, inguruan talde bat eduki gabe idazteak ez zuen inongo zentzurik. Eta, lehenago esan dizudan bezala, oraintsu arte ez du izan zentzurik. Hain zuzen ere, segurtasuna behar nuen eduki, nire lana herriarentzat onuragarria zela egiaztatu behar nuen, alegia.

Bi bide daude horretarako. Bat, kristoren konfiantza izan behar duzu zeure buruaz, gelako bakardadean zaudenean herriarentzat zerbait egiten ari zarela jakiteko. Hori, nire kasuan, ez da sekula izan horrela. Eta bi, inguruko lagun babesa eta laguntza duzu.

Haiek egin eta zuk ere egin. Guztion artean ari garela zerbait lortzen herriaren mesedetan. Aberriak duen behar sinboliko hori betetzen ari garela. Herriak behar du estatu bat, behar du armada bat, behar du literatura bat.

Horregatik izan da behar beharrezkoa niretzat Koldo Izagirre. Horregatik behar izan ditut *Ustela*, *Zeruko Argia* edo *Oh Euzkadi!*.

Baina gero bakarrik geratu nintzen. Eta ikusten dut literatura berez doala bere bidetik. Ia estableziturik dagoela eta liburu berri bat argitaratzeak ez daukala hainbesterainoko garrantzirik.

Orduan ez nekien literatura hain beharrezkoa zenik niretzat, idazlea naizenik. Beste lan bat daukat, gainera, asko gustatzen zaidana. Horretantxe gelditu zintzen urte askoan.

Nola oroitzen dituzu urte haiek? Atxaga, Izagirre...

Eta Joxean Muñoz, Ramon Etxezarreta eta beste jende asko. Horixe zen idaztearen beste alde garrantzizko bat: lagunartea, afariak, mozkorren bat edo beste... *Ustela eta Oh Euzkadi!*ren inguruko garaiaren oroitzapen oso onak ditut.

Hain ondo pasatu bazenuten, zergatik amaitu ziren denak hain azkar? Eduki zuten nolabaiteko eragina.

Adin krisia edo izango zen. Jendea lanean hasi zen. Denborarik ez geneukan lehenago bezala... Geroago etorriko zitzaizkigun kontraesan politikoak ez zitzaizkigun anartean agertu.

Amateurismoaren aroa ere amaitzen ari zen. Gaur oraindik euskararen alorrean ez daukagu konponduta hori. Nola ezkondu behar dira profesionalen eta zaletuen arteko lanak? Nola eman bakoitzari merezi duen espazioa? Ez literaturan bakarrik, antzerkian, telebistan eta bestelako guztietan ere bai.

Batzuek profesionalak izan nahi dute. Beste batzuek ez dute horretarako modurik, nahirik, beharrik. Arlo batzuetan, profesionalak baztertu egiten dituzte zaletuak, antzerkian esaterako. Era berean, zaletuak ere lekua ken diezaioke profesionalari, geure merkatutxo kulturala bai baitaukagu. Nola konpondu hori? Ez dakit, baina hau guztia garrantzi handikoa izango da datozen urteetan.

Nire lanbidea zerbitzu sozialen arlokoa da eta hor argiago ikusten da. Ezin daiteke sekula egon behar besteko zerbitzu sozialetarako profesionalik. Instituzioetan ez dago horrenbesteko dirurik. Baina bada jendea bere borondatez lan horietan sartzen denik.

Hori onartzen dugunean, ematen du Instituzioek euren ardura alboratzen dutela. Profesionalak kexu dira, zerbitzu sozialak profesionalki erantzun beharreko eskubideak direla aldarrikatuz. Zer egin? Nik uste dut bakoitzari bere papera ematean dagoela kakoa. Bakoitza bereaz arduratzen uztea dela irtenbidea. Instituzio eta profesionalak dagokien lana egin behar dute baina lagundu nahi duenarentzat ere utzi egin behar da leku bat.

Gauza bera egin beharko litzateke kulturgintzan.

Bai, baina lehengoari helduz, nolakoa izan zen Ustela aldizkariaren inguruko zure bizipena? Atxagak nahiko ilun gogoratzen du aldi hura. Hiru ale atera eta kitto. Zu bigarrenerako hurbildu zinela uste dut.

Ez dut oso argi gogoratzen. Ni hara hurbildu nintzenerako *Ene Jesus* idatzita edukiko nuen. Hura amaituta, despistaturik eta bakarrik nengoan. Hala ere, gutxi ibili nintzen ni *Ustelan*.

Oroitzen naiz lehenengo alea ikusi nuenean asko gustatu zitzaidala. Sudurra sartu nahi izango nuela pentsatzen dut. Eta lortu ere lortu nuen sudurra sartzea. Koldo Izagirreren bitartez, seguru.

Ustelak ez al zuen eduki beranduago etorriko zen Oh Euzkadi! baino konpromiso literario handiagoa?

Bai, zalantzarik gabe. Literarioagoa zen hura.

Zu Ustelan sartzeak aldaketa ekarriko zion eta horregatik urrunduko zen Atxaga. Literaturaren gauzak ikusteko bi era, zurea sozialagoa eta harena literarioagoa.

Seguru asko elefantea katxarrerian bezala sartuko nintzen han ere. Izan liteke, baina orduan gertatu zena ez daukat oso argi. Nire ustez Atxagak bere estilora egin nahi izango zuen *Ustela*, edo Koldo Izagirre eta beraren estilora. Ez dakit. Baliteke nik nire ikuspuntuaren aldera tiratu izana. Nire burua eskainiko nuen, orain baino energia gehiagorekin ziur.

Kontua da nik garai hartan ez nuela Atxaga asko ikusi. Ni iritsitakoan, Koldo Izagirre eta biok arduratu ginen bigarren alea egiteaz. Inprenta, lan materiala eta horrelako gauzak. Koldok ekartzen zituen Atxagaren idatziak eta kito. Hori zen gutzia. Hirugarren zenbakia ere gu biok egin genuen eta baliteke hirugarren ale hura nire estiloagokoa izatea aurreko biak baino. Beharbada ez nuen eduki aski sentsibiltate Atxagak sortutako produktua zela ulertzeko eta nire terrenora ekartzen saiatuko nintzen.

Idazteko estilo ezberdinak eta interes literario ezberdinak ere baziren.

Bai, hori ere bada. Nik ez neukan ezer egitekorik beste estilo horretan. Niri Borges ez zait sekula interesatu, eta hori ez da soilik euskaldunok behiak zaintzera bidali gintuelako. Ez zait batere interesatzen.

Joku literario soila baino nahiago izango zenuen oinarri soziologikoa zeukan literaturgintza.

Baliteke. Ni beste mundu batean bizi nintzen. Hirugarren *Ustela* ikusitakoan badirudi Atxagak interesik ez ziola ikusten esan zuela eta horren ondoren etorriko zen *Oh Euzkadi!*. Hori ere ez zitzaion interesatzen.

Zaharrena ere neu izango nintzen orduan, etxea ere neuk izango nuen besteak amarekin bizi ziren bitartean. Bilerak nire etxean egiten ziren. Gero zinegotzi egin ninduten eta oroitzen naiz Donostiako Udaletxeko bulego batean egiten genituela lanak.

Euskadiko Ezkerra alderdikoa zinen.

Hori da, bai. Eta beharbada halako protagonismo bat eduki nuen. Finantzaketa eta diru kontuak nola egiten genituen ez naiz oroitzen baina ez genion, behintzat, inori lapurtu *Oh Euzkadi!* egin ahal izateko.

5

Komunista espainolistak eta LUR.
 Rikardo Arregiren zentzua.
 Koldo Izagirre, osoro maite ezinean.
 Bereizten gaituen marra.

*Zinegotzi garai baino lehen, Lur Argitaldaria eta abar sortzen ere ibilia zinen.
 Nola izan zen hura?*

Bai, garai interesgarriak izan ziren haiek. Lehenbizi Equipo Editorial deitzen zen talde bat zegoen. Partidu Comunistaren ingurukoa. Ondo iruditzen zitzairen tradizionalista ez zen gure nazionalismo hura. Jende berria ikusten zuten gudan, ezkertiarak, modernoak ginela. Gainera PC-ko zenbait militante zahar baskistak ere baziren nolabait.

Camarero Nuñez, Victor Suinaga, Joxean Agirre... hiru ziren haserako talde hartan. Frankismoa eskua apur bat zabaltzen hasia zen. Herrietan ere planak egiten hasi zen jendea eta horretarako ikerketa soziologikoak behar ziren. Hor sartzen naiz ni, gazteena, gainera. Beste komunista zahar bat ere bai, Enrique Villar, Arestiren korrespondentzian ere aipatzen dena. Muebles Pabloko nagusia.

Equipo Editorial sortzen dugu gaztelaniaz argitaratzeko. Lehenengo liburua *Diario del Che* izan zen eta diru pilo bat atera genuen horrekin. Engels-en *Temas militares* ere bai. Eta horrelakoak. Geure ikerketa bat ere argitaratu genuen: *Así está la enseñanza primaria en el País Vasco*.

Ezkerrekoak, hemengoak eta espainolak izan arren, euren bilakaeran nolabait hasten dira ikusten euskara tresna iraultzailea izan litekeela eta euskaraz argitaratu beharko litzatekeela,

Hor kointzidentzia bat gertatzen da: Arestik bere kontura sortzen du Kriselu argitaletxa eta *Harri eta Herri* eta Txillardegiren *Elsa Scheellen* argitaratzen ditu.

Arestiri liburu horiek eta beste batzuk erosi eta Lur sortzea deliberatzen dugu. Enrique Villar delako hori genio bat da eta Le Monde-n artikulu bat irakurri ondoren, *Metodo de lectura rápida* idazten du azkar asko. Postabidez saldu eta diru piloa egiten du Arestiri Kriselu erosteko. Ordaina Victor Suinagaren Seat 850 markako autoa izango da. Horixe izan zen tratua.

Nik orduan auto txikiago bat neukan, Seat 600 haietako bat. Hura etxean laga, Rikardo Arregi alboan hartu eta Bilbora abiatu ginen Arestiri bere ordaina eramatera. Orduan gertatu zen istripua Mendaron eta Rikardo bertan hil zen, ni bolantean nindoala.

Haurra nintzen arren, Mendaroko elizkizun haietan izan nintzen gure aitaren eskutik. Ikaragarria izan zen. Hala ere, zuek Bilboko bidai hartan Euskaltzaindiako bilera baterako asmoa ere bazenuten.

Bai, Rikardo eta biok alfabetatze kontuetan ere bagenbiltzan. Oraingo ikuspegitik zail xamarra da ulertzea baina Euskaltzaindia, erakunde bezala, gauza batzuetan oso zabala izan da. Oso urte gutxirekin egin gintuzten Euskaltzain Urgazle edo nik ez dakit zer. Nahiko meritu gutxirekin, egia esan.

Han joaten ginen, niretzat mundu nahiko berezia izaten ziren hizkuntzaren inguruko bilera haietara. Hatxearen erabilerarena bezalako kezka guztietan, nire taldeko listoenei ematen nien konfiantza. Aresti hatxearen alde bazegoen, ni ere bai. Halaxe. Nik beti ezgai ikusi dut nire burua gauza hauetarako baina beti onartu izan dut etorri zaidana.

Bilera hura zela eta esan zidan Victor Suinagak autoa eramateko Arestiri, eta zoritxar huraxe gertatu zitzaigun.

Rikardo arregi hil eta Aresti kobratu gabe.

Ez. Nire lagunek konpondu zuten auzi hori ni nahastu gabe. Beste era batera konpondu zuten eta oraindik sekula ez didate esan nahi izan nola ordaindu. Kakanahaste handitik atera ninduten, ez baikeneukan geure kaltea ordaintzen zigun autoaren segururik.

Lur-en hasierari dagokionez, gauza bat esatea ahaztu zait. Rikardo horretan ere ibili zela eta berari zor zaiola *Hastapenak* izeneko sailaren asmoa. Saiakera zen. Horixe nahi zuen hark. Literatura ez zitzaion hainbeste interesatzen. Beti Frantziara begira zegoen eta bera hil eta gero atera genuen *Politikaren atarian*. Hark benetakoa zeukan guri falta zitzaigun kultura herrikoa.

Agian idazlea baino, kazetaria zelako.

Eta politikaria zelako. Nik ezagutu dudan lehendabiziko politikaria. Akordatzen naiz Andoaingo plazan, behin esan zuela, “Ni Gipuzkoako Diputatu izango nauzue”. Eta guretzat Diputatu izatea extralurtarren kontua zen. Gu iraultzaileak ginen, politika abstraktuan ikusten genuen beti. Rikardok ez. Politika beste gauza bat zela ikusten zuen. Berak gaurko egoera honetara iritsiko ginela imajinatzen zuen. Ikaragarria zen horretan.

Eta Lur argitaletxea abiatu zen, beraz.

Bai, Arestiri erositako liburu eta esku izkribuekin.

Lehen aipatu dudan Enrique Villar horrek asko babesten gintuen ekonomikoki. Ez kezkatzeko esaten zigun beti, azkar irakurtzeko bere metodoaz ateratako diruari esker eta nik ez dakit nola, guk nahi genuena argitaratzen uzten zigun. Gizon oso dotorea zen. Sekula ez gintuen nahastu diru kontuetan.

Garrantzi handiko liburuak atera zenituzten. Xabier Kintanak itzulitako Kafkaren Metamorfosia gogoan dut, esaterako. Edo Anjel Lertxundiren lehenengoa Hunik arrats artean. Liburu berritzaileak izan ziren zeharo.

Formaren aldetik ere bai. Gogoratzen naiz gaur Espainiako artista handienetakoa den Alberto Corazón-ek egiten zizkigula azalak. Halako batean, Xabier Leteri edo ez dakit nori ez zitzaion zerbait gustatu eta azala aldarazi egin genion. Pentsa ezazu gaurko egunean nola izango litzakeen hori. Gaur zer esango lukeen Alberto Corazón-ek. Orduan horrelaxe ziren gauzak.

Noiz agertu zen Anjel Lertxundi?

Bere lana argitaratu nahian hurbildu zitzaigun. Egia esan, hori baino apur bat lehenago arrimatu zen, Lur-en inguruan mugimendua zegoela ikusi baitzuen. Politikari buruz, zalantzarik ez dut egiten, Ibon Sarasolak eta nik baino argiago edukiko zituela gauzak Anjelek, berehala hasi baitzen Erein argitaletxearen proiektuan.

Guk Arestiren zama generaman gaínean. Asko markatzen zuen horrek: komunistak ginela, espainolistak ginela... Eta hori Rikardo Arregi ere tartean geneukalarik. Honek argi adierazi zigun harremanak zituela Gaur izeneko ikerketa talde batekoekin ere eta libratu egin nahi zuela gure etiketa politikoak kutsatzetik.

Lehen esan dizudan bezala, berak *Hastapenak* izeneko bilduma jarri zuen martxan. Besteak beste hiru egileok gaur lotsarazten gaituen liburu bat idazten jarri gintuen: *Medebaldeko ekonomiaren historia*. Arantxa Urretabizkaiak, Ibon Sarasolak eta hirurok idatzi genuen hura.

Rikardok zubi lana beharrezkoa zela ikusten zuen, harremanak mantendu behar genituela beste jende mota batekin ere. Baina hori guztia isilpean egin nahi izaten zuen.

Baltsamo moduko bat izan zen Rikardo zuentzat.

Bai, egia. Nik oso laguna nuen, gure pentsatzeko eren artean ez zegoen kontraesan handirik. Bera pertsona helduagoa zen, ordea, oso heldua. Ikaragarri heldua. Bazekien zer zen demokrazia bat. Bazekien Europaren auzia etorriko zela. Gaurko egoera ikusten zuen berak, alderdien sistema hau egongo zela aurreikusten zuen eta ez zitzaion batere komeni gure marka politikoaren gelditzea.

Oso markatuak ginen, batez ere Luis Camarero Nuñez atxilotu ondoren, Movimiento Comunista-na sartu zenean, horrek zeukan espainolismo usainarekin. Gerora EMK izango zen hartan sartu zen, bai. Bitxia da baina handik denbora batera denak egin ziren abertzale!

Atzerago Koldo Izagirre aipatu duzu, behar beharrezkoa izan zela zuretzat. Berak, oster, zor dizun guztia ezin izango dizula sekula behar bezala eskertu esan digu. Paradoxikoa da, haserretuta zeundetela uste genuen.

Koldok, nik uste dudanez, gehiago balio du emateko, hartzeko baino. Pertsona batzuk eskuzabalak dira emateko orduan baina kosta egiten zaie ezer jasotzea. Zentzu kritikoan esaten dut hau, zeren eta ez badakizu jasotzen, ematerakoan ere ezin baitzaitezke egiazki izan hain eskuzabala ere.

Nik zerbait eman badizut, har ezazu eta kito. Ez duzu zertan ezer eskertu beharrik, zeu ere niri ematen ari baitzaizkit aldi berean. Berak ez dit ezer zor eta nik ere ez berari. Horrek ez du esan nahi, ordea, ez diogunik elkarri ezer eman. Lagunartea erregalatu egiten da eta puntu. Hartzen jakitea ematen jakitea bezain garrantzizkoa da.

Bai, baina zuen bion arteko harremana...

Hara, nik Koldo izugarri miresten dut baina, ez dakit nola esan beharko ote zaion ere, arazo ideologikoa dugu bion artean. Nik Koldo neure ondoan behar dut oraindik ere. Bakardadean nobelak idazte hau... lehen ere esan dut segurtasuna emango didaten lagunak behar izan ditudala inguruan. Koldo da horietako bat.

Hara, idazle askok antolatu du halako talde bat bere inguruan. Zerbait sortu dute eta jendea bildu egin zaie ingurura. Nik ez dut horrelakorik lortu. Literaturaren alorrean ez dut lagunik, beharrezkoak ditudala dakidan arren.

Baina bai, Koldorekin arazo ideologikoa dago. Nik gauzak beste modu batera ikusten ditut. Berak apustu oso gogorra egiten duela iruditzen zait, oso modu literarioan, gainera. Koldo, besteak beste, oso arrazionala eta argia da. Eta entregatu egiten du bere burua. Poeten era sentimentalean. Traizioak beldurtu egiten du.

Nik, ostera, onartu egin dezaket traizio apur bat, miseria pixka bat. Aberria geure aberria da baina, tira, ez da hainbesterakoa ere. Guri horixe egokitu zaigu eta Koldok erakusten duen grina hori oso literario den arren, gainera kendu beharko lukeela uste dut. Literatura kendu egin beharko luke toki horretatik eta, egia esan, noizbait kendu ere egingo duela uste dut. Ez dakit ondo ulertuko den esaten ari naizena.

Koldo gauza handiak egiteko dago deituta.

Markak haustera.

Bai, horixe. Baina une honetan motxila astun bat darama soinean. Literatura ere hor sartzen zaio eta ez dut uste horrek onik egiten dionik. Horrelaxe ikusten ditu nik gauzak.

6

Biolentziaren lekua eta *Ehun metro*.
Euskara eta nazionalismoa.
Nazionalista ez diren horiek.

Zure lanetan ere biolentziak eduki du, ordea lekuri: Ehun metro, Hamaika pauso... Errealitateak badu bere pisua.

Jakina baietz. Jon Juaristik esandakoa da *Ehun metro* oker interpretatutako nobela izan zela eta egia da. Biolentzia, borroka armatua edo dena delakoa justifikatzen nuen garaian ere, ez zitzaidan bide egokia iruditzen. Esan nahi dut, nik sufritu egiten nuela maite nuen ETako militante hark polizia atzetik zeukanean. Eta ez nuen sufritzen, edo poztu egiten nintzen, polizia hiltzen zutenean. Hori horrela da. Horrelaxe bizi genuen hori askok eta askok. Orain, ordea, ukatu egingo dizute hori euren biografietatik.

Garai haietan, 74-75garrenetan, sekuestratu egin zuten nik idatzitakoa. Franco bizirik zen oraindik baina nik garbi ikusten nuen biolentziaren bidea alferrikako sakrifizioa zela.

Iruditzen zitzaidan, gure nazioaren eraikuntzan ni ere partaide nintzela beharrezkoa zen kolektibo sinbolikoaren eraiketan. Nik literatura egiten nuen eta hori behar zuela gure herriak. Azken finean nazio txikietakook horixe nahi izaten dugu, munduak jakin dezala existitzen garela. Baina horretarako ez zuen merezi kale bazterretan hilda gelditzeak!

Ehun metron agertzen den morroia, Konstituzio Plazan hiltzen dute, zezen plaza lirudikeen batean. Sakrifizioa alferrikakoa da. Jendeak tendidoetatik begiratu eta txaloak jotzen ditu. Hor gelditzen da anaia bat, hor ama bat. Eta kito. Hori horrela da eta kito. Prevert-ek (?) oso garbi esaten du bere poema batean: “Nora doa odol hori guztia?”.

Baina orain ez dut tranparik egingo. Ez dut esango borroka armatuaren aurka nengoenik, etikoki hori gaitzesten nuenik, Euskal Herrian etikoki ez zagok eskubiderik pertsonak hiltzeko, esaten nuenik. Adi, nik hori ez dut esango.

Orain bai. Orain batzuk ari dira iristen ni garai haietan iritsi nintzen lekura. Alferrikakoa dela bide hori, alegia. Kartzelak beteak daudela eta horrela ez goazela inora.

Osagai etikoa garrantzizkoago iruditzen zait gaur. Ez du balio Guardia Civil bat hiltzeak, zinegotzi gaixo bat hiltzeak. Horretan nago eta oroitzen naiz Aresti bera ere, halatsu zebilela orduan. Hiltzeko zorian zegoenean atentatu bat izan zen eta albistearekin etorri zitzaizkion: “*Gabriel se han cargado a un Guardia Civil*”.

Niri ez zitzaidan iruditu hiltzear zegoenari eman behar zitzaion albistea zenik hura. Oso gogoan dut eszena. Arestik, jakina, ez zuen ezer esan, ez zuen ezer erantzun. Beste plano batean zegoen: bere heriotza aurrez-aurre zeukan.

Beste gauza batek ere harritu nau beti: guk ez dugu eduki aktibista suizidarik, beste batzuek bezala. ETaren barruko kasuetan, pertsona bat edo beste gaixorik eta

hiltorian jarri denean, erretiratu egin izan da beti. Isil isilik. Seguru asko beste plano etiko batera ere bai. Ez dute esaten, zoaz popatik hartzera eta nire minbizi eta guzti, leherraraziko ditut lau Guardia Civil. Ez. Ez dute horrelakorik egiten.

Uste dut sekula ez dugula sinetsi egiazki borroka armatuan. Nobelagile modernoaren papera egokitu zait niri. Ni idazlea naiz. Herriak literatura eduki dezan. Beste batek, ordea, eta hau bai dela tragikoa, borroka armatua egiten du. Pistolarekin. Herriak eduki dezan ez dakit zer. Geure borroka armatua izan dezagun, alegia.

Bide hori berotzen dutenak, hori mantentzen laguntzen dutenak gero eta jasangaitzagoak zaizkit. Horregatik eskatu behar zaie idazleei onest izateko. Gauzak diren bezala agertu beharko genituzkeela.

Politikarekin jarraituz, nazionalismoa eta euskara beti izan al dira lagun?

Nik uste baietz. Nazionalista izan gabe euskaltzale hitza erabiltzen ezagutu nuen lehenengo pertsona Juan San Martin izan zen. Gogoeta egin nuen horren harian eta ez nuen garbi ikusten ahal nola izan zitekeen norbait euskaltzale, abertzale izan gabe. Ez dakit benetan sinisgarria ote den lelo hori. Pertsona batek esaten duenean ni euskaltzalea naiz, eta hau eta hori, eta ez naiz nazionalista. Noski, zer da nazionalista izatea eta zer da euskaltzale izatea?

Bada, nire ustez biak beti egon dira loturik. Egia da gainera nazionalismoarekin kritiko direnek ez dutela euskaraz idazten.

Oraingo gazteak ez ditut ezagutzen baina iruditzen zidanez belaunaldi berriek guk baino era naturalagoan jasoko zuten euskara. Nire alabek ere, neuk baino era naturalagoan hartzen dute euskara eta bere egiten dituzte euskal hiztunaren eskubideak.

Sinetsi nahi dut egun batean gauzatuko dela euskara nazionalismotik askatze hori. Halakorik lortu ezean, euskarak ez baitu izango etorkizunik.

Agian nazionalista ez den beste horrek euskararekin daukan harremanaz mintzatu behar ginateke.

Era pasiboan bada ere, euskaldunok uste duguna baino hobeto onartzen dute horiek euskararen auzia. Gertatzen dena da, guk askoz gehiago eskatuko geniekeela. Hala ere, zernolako ahalegina egin dute batzuek euren haurrak D eredura bideratzerakoan! Hori guretzat normala da baina berez ikaragarritzko erabakia da. Ikusi dut, gainera, nazionalista ez den norbait ere halakorik egiten, Jose Ramon Recalde, esaterako.

Euskarak egitasmo nazionalista justifikatu eta sostengatzeko baino gehiago balio duela sinesten duen nazionalistak, lanak hartu behar ditu gizartearentzat duen balioagatik dela garrantzitsua sinesten ere. Hori egiazki egiten denean salbatuko da euskara, eznazionalistari errazagoa izango baitzaio orduan euskara desideologizatua onartzea.

Nazionalistak euskararen alde egin behar du, jakina, baina ez gurea delako, euskaldun egiten gaituelako edo bere bitartez munduak errazago ikusiko gaituelako euskaldun bezala. Ez, hori ez da bidea.

Euskara bera altxor handia dela ikusi behar da. Lotsa apur bat ematen du esateak, baina euskaldunontzat gain, euskara altxorra da mundu osoarentzat. Oso garrantzitsua da. Ez gara hori esateaz lotsatu behar.

Gertatzen da konponketa politikoaren erdi-erdian dagoela euskararen arazoa. Elkarren arteko bizitza antolatzeke ere behar beharrezko azterketa merezi du baina, nire ustez, ez nazionalista askok ez du behar bezala ikusi arazo hori.

Bai baina nazionalismoak eskatzen dituen tresna guztiak eskuratu balitu ere, agian ez ginatekeen urrutirago iritsiko. Autodeterminazioa, zapiak bat eta abar eduki arren, ez dut uste askoz gehiago egiterik zegoenik. Ez dut uste oso ezberdinak izango ginatekeenik eta akaso, gainera, okerrago. Begiratu bestela Irlandara.

Jendeak esango zukeen, tori, iritsi zarete nahi zenuten lekuraino. Hor konpon. Eta euskararekin ikurrinarekin gertatu den arrisku bera gerta zatekeen: duela hogeita hamar urte, bazter guztietan zegoen ikurrina eta orain inon ere ez.

Ezagutzen dut jendea nazionalista ez dena baina prest legokeena herri honetako gehiengo guztiz zabal batek nahiko lituzkeen baliabide eta erakunde politikoak onartzeko prest legokeena. Baina gauden gaudenean, dauzkan tresnak garatzeko bidetik iritsiko litzatekeena horraino. Estatutua, federalismoa edo dena delakoaren bidetik. Ez dut ikusten horrelako jendeak zergatik izan behar duen oztopo euskararentzat.

7

Libre nabil aspaldian.
 Motzak gara, eta zibilizatu gabeak.
 Poesia ez dut atsegin
 Fikzioaren zeregina.
 Onaindiaren memoriak.

Zure narratibagintzan gai batzuk errepikatu egiten dira: gerra, indarkeria, aitaren galera, idazlearen kezka eta bizipenak... baina zure azken lanean, Gorde nazazu lurpean, garbiago ageri dira zure kezka gizakien arteko harremanei buruz. Lasaiago idazten duzula ere badirudi. Kate batzuetatik libratu bazina bezala.

Bai, karga handi batetik libratu naizela uste dut. Nire bidea egiten ari naiz, hauxe da nire emaitza eta, gainera, lagungarri zait nire bizitza norbanakoan ere. Horretaz gain, nire lana irakurri eta disfrutatzen duen irakurle kopuru bat erakartzen badut, horrek aberastu egiten nau. Elkarrizketa moduko hori oso atsegina egiten zait eta horrexetan sakontzea da nire bidea.

Onartua daukat ez naizela idazle ikaragarria izango. Badakit ez naizela Sartre, baina konformatu egiten naiz. Lehen esan dudana bezala, ematen ere ikasi dut.

Testuingurua ere egokia eduki duzu horretarako.

Harremanetarako ez naiz batere trebea. Iruditzen zait Euskal Herrian baditugula gabeziak eta, orain esango dudana abertzale ez den batentzat oso gogorra izango bada ere, hemen nolabaiteko kolonizazioa egon da. Hori hor dago baina ez da gauza bakarra izan. Industrializazio oso azkarra ere ezagutu dugu. Nire aurrekoak mendian bizi ziren, txistua eta danbolina jotzen. Neu naiz lehen belaunaldi urbanokoa. Gero erlijio krisia, marxismoa... Arazo asko eduki ditugula uste dut eta horrek guztiak batere tradizio urbanorik gabe harrapatu gaitu.

Beste gizarte batzuetan, belaunaldiz belaunaldi ezagutu dute hirietako bizitza. Tradizio urbanoa dute harremanetarako. Ia ia genetikoki ere transmititzen den heziketa klase bat dute, guk eduki ez duguna.

Guk oraindik kalean gure *Iepa!* motz horrekin jarraitzen dugu. Ikusi besterik ez dago hemengo jatetxeetako zerbitzarien tratu kaxkarra, manualetan ere agertzen dena, adibidez. Max Weber soziologo ospetsuak Algortako egonaldi batetik idatzi zituen gutunetan esaten zuen, harreman igualitarioak zeudela zerbitzarien eta bezeroen artean.

Nik uste ezintasun handia daukagula harremanetarako. Hemen inork ez dizu onartuko zuzendari bat, txotxoloa eta kalamidadea dela esan gabe. Begiratu hori nola

gertatzen den London batean, esaterako. Han naturaltasunez onartzen dute baten batek izan behar duela zuzendari. Ez dela horregatik ezer txarrik gertatzen. Hemen, ostera... Arazo psikologikoak ere baditugula esango nuke.

Edukazioak asko lagun dezake harremanak egoki eramaten.

Seguru asko bai baina ez dut uste gauza handirik egiten denik bide horretan. Euskaldunok arazo politiko larriak ditugu baina, funtsean, elkarren artean komunikatzeko zailtasunak ere baditugu. Topikoa da zein motzak garen esatea, baina hala da.

Ez gara besteengandik gizarte hain ezberdina ere baina zailtasunak ditugu hitz egiteko. Nire inguruan ikusten dut larritasun hori. Herrietako garapen basatiak eta antzeko gauzek ekarriko ziguten hori. Kontsentsua eta elkarren arteko ulermena ezinezko bihurtu ditugu. Unamunok ere esaten zuen gurea apustua dela: nork du hemen arrazoa? Baietz nik eduki eta zuk ezetz.

Jakina baditugula alde positiboak ere baina zorionaren kakoetako bat da inguruarekin harremanak taxutzen jakitea. Eta bai, horretara joaten zait gehienetan literaturgintza.

Narratiban eta saiakeran ezagutzen zaitugu baina ez poesian.

Garai batean egin nuen poesia apur bat. Mundu guztiak bezala. Arestik nire baimenik gabe argitaratu zituen *Euskal Literatura 72* izeneko liburuan. Oso argi atera nuen handik ni ez nintzela poesiarentzakoa.

Zergatik hori?

Pinturan gertatu zitzaidanaren antzera. Garrantzitsua da hori argiki ikusi izana. Nire bidea hor ez zegoela ikustea. Egunen baten gauza bera ikusiko banu behin betirako nire nobelagintzan ere, a zer nolako bakea! Beste edozer egingo nuke. Footing edo.

Nobelagintzan badirudi ez dudala poesigintzan bezain argi ikusten nire alferrikakotasuna. Gainera beste gauza bat ere badago: ez zait poesia gehiegi gustatzen.

Nobelagintzari heltzen diozu baina nobelaz beti esan ohi da hilda dagoen generoa dela edo, gutxienik, gainbehera datorrela..

Bai, jende askok esaten du, adin batetik aurrera fikzio gutxiago irakurtzen duela. Ez da nire kasua. Baieztapen horiek oso konbentzionalak dira.

Gauzak kontatzeko ez dut besterik behar. Nobelaren bidez esplikatzen dut hobekien neure burua. Krisiak eta abar aipatzen diren bakoitzean, nobelak bide berriren bat aurkituko duela pentsatzen dut.

Pose baten antzekoa da nobelaren heriotza aldarrikatzea. Jainkoaren heriotza, historiaren heriotza, politikaren heriotza... oso potxoloak dira hitz horiek baina nire ustez beti izango da nobelaren antzeko zerbait.

Irakurleak fikzio lan bat hartzen duenean esku artean, aurrez daki han aurkituko duena asmatua dela. Ez dela egia. Hala ere, egiaren bila abiatzen da beti. Fikzioak badu alde magikoa ere.

Eta aurkitu ere, egia aurkitzen du irakurleak. Saiakera eta historia liburuetan ere badago fikziorik aski. Nobela imajinazioa da, eta imajinazioa memoria. *La imaginación es memoria fermentada*.

Oso zaila da fikzio huts-hutsa idaztea. Ezinezkoa da ia. Psiketiko edo zoroa bazara, tira, dena asma dezakezu hutsetik. Gainerakoan errealitateak beti izaten du bere lekua. Baita beste arte mota guztietan ere. Arte abstraktuan beti egoten da zerbait konkretua dena.

Irakurleak badaki kontatzen zaion hori ez dela horrela gertatu. Alabaina, gerta zitekeen benetan. Egia ez den gauza bat izan daiteke, hala ere, egiatia. Horixe da irakurle ere banaizen aldetik ardura didana. Zer axola zait niri nobela batean agertzen den pertsonaietako baten izena asmatutakoa izatea? Edo historiatik istoriogile batek pertsonai bat berreskuratu izana? Hori guztia eta gehiago du zilegi nobelak.

Adibide bat jarriko dizut: nire lagun Mario Onaindiaren memoriarena. Liburu hori argitaratu ostean, Jon Juaristik kritika oso gogorra egin zion: “*Ha perdido el novelista y ha ganado el ensayista*”. Eta nik uste, Mariok kontatu nahi zuena kontatzeko nobelagilea behar zuela izan eta ez saiogilea.

Modu bakarra dago berak kontatu nahi zuena, gertatu zenean bezala kontatzeko: fikzioa. Gertaerak historiagilea edo saiogilea balitz bezala kontatzen hasten denean, bere gaurko pentsamoldetik eta gaurko gorputzetik kontatzen ditu eta, beraz, ez du egia esaten.

Nik ez diot sinesten pistola lehenbiziko aldiz eskuetan eduki zueneko zirrara kontatzen duenean. Ezin diot sinetsi. Hori gaurko Mario Onaindiak kontatzen baitu, saiogileak. Errealitate batera hurbiltzeko modurik bikainena, fikzioa da.

Narratiba erabili izan balu, sinetsiko al zeniokeen?

Horrela bai. Gauzak beste modu batean kontatzera egongo bailitzateke behartua. Egiatik hurbilago. Saiogilearen papera hartuz, distantzia edo muga bat ezarri nahi du gertakizunetik. Alabaina, sinpleegia gertatzen da eta ezin du behar bezala adierazi kontatu nahi duen hori.

8

Ez gara belaunaldi bat.
 Literatur sariak eta desastrea.
 Itzulpena eta kritikaren auzia.
 Idazle indibidualistak.

Liburu honetan bost idazle zaudete bilduak. Sare bereko arrainak zaretela iruditzen al zaizu?

Ezetz esango nuke. Neu naiz guztietan zaharrena. Anjel lertxundi dut adinez hurbilen. Bestela ere bai, kezka bertsuak ditugula iruditzen baitzait. Hala ere, berak beti ikusi ditu gauzak nik baino argiago. Ez gara beti oso hurbileko izan eta damu naiz, denbora azkarregi iragaiten baita.

Koldorekin, ordea, sentimendua bestelakoa da: familiakoa balitz bezala. Atxaga eta Sarrionandiaz ez dakit zer esan. Bi horiek ere belaunaldi urbanokoak dira baina ez nuke jakingo gure arteko lotura bat bilatzen.

Ez, ez dut nire burua ikusten belaunaldi bat osatzen. Hala ere, belaunaldi guztietakoak esan izan ohi dute hori. Kanpotik esan beharko dute.

Idazle zarela onartzearekin batera, sariak etorri zaizkizu. Besteak beste 2001 Euskadi Saria eta Espainiako Kritika saria.

Sariak ondo hartzen saiatu naiz. Pavlov-en konduktistek egingo luketenaren antzera: sari bat eman didate, zein ondo, oso pozik nago eta kito. Ez dago besterik. Hain nerabe eta hain kontestatariora naizen honek, formaltzeko aprobetxatu du hori guztia, nire burua harreman normalduagoak edukitzera behartzeko.

Aldi berean asko kezkatzen nau Eusko Jaurlaritzak, esaterako, urtero-urtero Euskadi Sarien espektakulua antolatzeko daukan behar horrek. Egitekotan seriotasun gehiagorekin egin behar litzateke, epaimahaia irizpide zehatz batzuekin antolatuz eta abar. Izan ere, norbait saritzen den bakoitzean, beste batzuek uzten baitira saririk gabe. Hori oso serioa da eta idazleok bagenuke horretan zer esanik.

Egia esan, ez dakit noizbait galdetu ote zaigun ere. Ez naiz gauza askotaz enteratzen. Baina Euskadi Sariari garrantzia handiegia ematen zaiola iruditzen zait.

Aurten niri egokitu zait irabaztea baina epaimahaian oker izendatutako bat zegoen, editorialak gero eta pisu gehiago daukate... Ez dakit. Haserretu gabe eta pertsonalizazioetan erori gabe, debate hotz eta sakon bat egin beharko genuke. Idazleok bagenuke bai, zer esanik.

Zure lana itzultzen ere hasiak dira.

Erdaraz argitaratzeak ez nau gehiegi kilikatzen. Horretaz ere oraintsu konturatu naiz. Euskaraz argitaratzeak aski asebetetzen nau. Ez dagoela, alegia, gehiagoren

beharrik, aski dudala horrela, beste hizkuntzetan argitaratzeak ez didala ezer berezirik ekartzen.

Harritzekoa da hori entzutea.

Zure lana beste hizkuntzaren batean itzulita ikustea normaltasunaren seinale izan daiteke. Hori ulertzen dut, baina gaur-gaurkoz beste hizkuntzetara egin ohi diren itzulpenak, gaztelaniaren bitartez pasatzen dira. Gure bidea beti izan ohi da gaztelaniara eta gero handik beste norabait.

Hori oso arriskutsua izan liteke literatur sortzailearentzat. Euskaraz eginiko nobelaren bidea ondoren gaztelaniatik pasatzea bada, baldintzatu egin lezake idazlea sortzen ari den unean bertan. Estiloan eragina eduki dezake, sortzetik bertatik eragin dezake.

Nire kasuan, euskaraz idazterakoan oso libre naizela ikusten dut, nire lana onartua dela, nolabait. Gaztelaniazko literaturaren merkatua edukiko banu niregan barneratua, ez dakit zer gertatuko litzatekeen.

Eskoletako beharrizanetatik kanpo irakurtzen gaituen irakurlea oso fidela izaten da normalean, kultura, beste hizkuntzetan ere irakurtzen duen horietarikoa. Nigandik nahi dutena exigentzia eta zintzotasuna da. Bestelako produktuak eta liburuak badituzte nahikoa.

Ez dut izenik emango baina euskal idazle batek onartua du nire aurrean, idazteko orduan, bere pertsonaietako baten joera politikoa gaztelaniazko itzulpenean nola geratuko litzakeen aztertu duela. Hori ez zait batere gustatzen, zera adieraziko bailuke, euskarazko literaturak ez daukala berezko merkaturik. Euskaraz idatzi arren, egiazko merkatua beste bat dela eta ez euskararena. Eta hori ez da horrela, txikia baina badaukagu geure merkatutxoa.

Arrisku handia ikusten duzu horretan, beraz.

Bai, oso peligr osoa da hori. Arinki ari gara jokatzeko itzulpenaren auzian. Gauza ederra da norberaren lana beste hizkuntzetan ikustea, baina ez dakigu horrek zer ekarriko digun.

Hala ere ez da gehiegi beldurtu behar, euskara garatzen ari den seinalea baita. Lehenago ezagutzen ez genituen arazoaren arriskua daukagu, atzean utzitako faseetakoak baino latzagoak izan daitezke agian, baina garapena ezinbestekoa da.

Garapena ezinbestekoa da baina behin baino gehiago entzun dizugu euskal literatura, hain txikia izanik, merkatu handien lege eta eraginetatik libre dagoela. "Literatura egiazkoagoa" egin litekeela. Hori gauza ona bezala ikusten duzu zuk baina ez dago oso argi.

Agian uste baino zailagoa da esan nahi dudana formulatzea. Egia da nik ere merkatu zabalagoa nahiko nukeela, handiagoa, normalagoa. Baina ez gaude hor. Txikiak gara eta horrek baditu bere alde on eta txarrak.

Adibide bat jarriko dizut: poliomeletisarena. Garatu gabeko erresumetan zer gertatzen da polioarekin? Bada, nola haurrak beti zakar eta zikinkeria artean dabiltzan, immunizaturik daude eta ez dago poliorik. Zer gertatzen zen, aldiz, herri garatuetan? Txertoak hartu eta ez zegoela poliorik. Baina zer gertatzen zen erdipurdikoko garapena zuten herrialdeetan, duela urte batzuetako Espainian, esaterako? Aski ez ziren higie

neurri batzuk bazeudela eta behar beste aurreratutako osasun sistemarik ez zegoela. Ondorioa: polio asko zegoen. Herri garatuetan baino gehiago eta herri garatu gabekoetan baino gehiago.

Erdi bideak arriskuak dauzka. Ez dut esan nahi baserrian bizi behar dugunik. Ez da hori baina, aizu, baserrian kutsadurarik ez dago eta baserrian bagaude, goza dezagun aire garbia arnastuz.

Horrela esanda oso polita geratzen da.

Nik ere onartuko dut garatzea eta haztea beharrezkoak direla, nahiz eta aireak pixka bat kutsatu beharko duen. Baina esan nahi dudana da, dauzkagun aukerak aprobetxatu egin behar ditugula uneoro. Askotan geure baliabideak baztertu egiten ditugu, berez ez direlako herri edo kultura normal batenak eta, antza, gainerakoak bezain normalizatuak egon nahi dugulako gertatzen zaigu hori.

Beste adibide bat jarriko dizut. Lur argitaletxean eduki genuen arazoa: harpidetza bitartez, garai hartan, bi mila etxetara iristen ziren guk argitaratzen genituen liburuak. Alberto Corazón eta Madrileko lagunak harrituta geratzen ziren, hau bai gauza ederra esanez. Eta guk erantzuten genien, erosi bai, erosten dituzte, baina ez dituzte irakurtzen. Abertzaleak direlako soilik erosten dituzte gure liburuak.

Baina aukera hori baliagarria bada, zergatik ez dugu aprobetxatuko? Baten batek abertzalea delako soilik erosten badu liburu bat, eros dezala, eta guk baliabide horrekin beste liburu bati lagunduko diogu, merkeago iristen, esaterako. Zergatik alferrik galdu behar ditugu esku artean dauzkagun aukerak?

Hala ere, euskal liburuak beste hizkuntzetara itzultzeak sekulako garrantzia dauka, teorian behintzat.

Esate baterako, nire *Hamaika pauso* gaztelaniara itzuli zutenean, *Los pasos incontables* dauka izena, aireportu bateko kioskoan ikusi nuen. Nik Espainiako zirkuitu unibertsitarioetan ikustea nahiago nuke baina hantxe ikusi nuen, aireportuko kiosko batean. Zer arraio egiten zuen liburu hark leku hartan? Ezer ere ez. Bost mila ale inguru edo salduko ziren, niri ez dit horrek ezer konpontzen, pobre izatetik ere ez nau aterako, profesionalizatzea ez dit bideratuko...

Atxagaren kasua ezberdina da oso. Ez da besteona bezalakoa Atxagak egin dezala bere bidea eta bihur dadila mundiala.

Baina gainerakook? Zer egin behar dugu besteok? Nire ustez, irtenbide naturala gure merkatuari zintzo erantzutea da. Euskaraz idatzi ondoren, eta euskaraz ikasi ez duten euskal herritarrak ere badirenez, etxe barrurako itzuli eta argitalpenak egin behar lirateke. Baita kanpoko elite kulturek gure berri izan dezaten ere. Hortik aurrera baten batek arrakasta badu, merezi baldin badu, oso ederki: egin dezala bere bidea.

Zer nahi duzu esatea, *Bihotz bi* orain alemaneraz jarriko dute baina hori ikustek ez nau emozionatzen. Ez dute itzultzen ona delako. Beti badira literaturaz kanpoko beste faktore batzuk halako gertaeretan. Nire nobelaren kasuan, truke batean joan da. Eta alemaneraz aterako dute. Eta zer? Zenbat idazle alemaniar ibiliko dira *Bihotz bi* baino lan hobek argitaratu ezinean?

Nik horrela ikusten dut.

Txiki izatearen beste ondorioetako bat kritika eza da. Gutxi dago eta txarra ei da. Hala ere, idazleak beharrezkoa du.

Bai noski. Kritika beharrezkoa du literaturak. Areago, kritika literatura modu bat da. Nik miresten ditudan idazle handiek, Samuel Beckett-ek eta Michel Butor-ek esaterako, kritika egin izan dute.

Ezinbestekoa iruditzen zait niri eta optimistegia izan naitekeen arren, iruditzen zait kritika profesional bat ari dela sortzen gurean ere. Idazleok ez gara sekula pozik geratzen jaso ditugun kritikekin baina badirudi literatura Unibertsitatean sartu dela eta kritikalaritza akademiko bat badaukagula. Hortxe daude Jon Kortazar eta konpainia.

Egia da, hala ere, duela urte batzuk ez geneukala batere. Nire ustez idazleok lagundu egin behar diogu kritikari, animatu egin behar ditugu kritikagileak, umilagoak behar dugu izan kritikaren emaitzak onartzerakoan.

Txikia izatearen beste arazoetako bat da, literatura txikiak kritika txikia dakarrela. Mundu akademikotik kanpora, oso zaila dela kritika egitea. Ez dakit nola konpon daitekeen hori.

Unibertsitateak baditu arazo larriagoak baina kritika egiten hasia da behintzat. Azken boladan gorputz kritiko bat badudala iruditzen zait, *Hamaika pauso* baino lehen inondik inora ez neukana.

Nola dinamizatu liteke euskal mundu literarioa? Hortxe dago Euskal Idazleen Elkarteak, esaterako.

Euskararen ekonomiaren zenbakiak argi edukitzea interesgarria litzateke. Gure lanean urtero egiten dugu azterketa eta azken xentimoraino jakiten dugu zertan gastatu den dirua zerbitzu sozialetan. Guztiz interesgarria izaten da nahiz eta gero ez duen inork irakurtzen.

Herritarrek jakingo balute zenbat ordaintzen zaion hileru jende klase bati, agian eskopeta hartu eta jende hori akabatzerira irtengo lirateke.

Euskararen alorrean ere, idazleenean eta, garrantzi handikoa izango litzateke diruen nondik norakoa aztertzea eta jakitea.

Atzo bertan irakurri nuen gure presidentearen, idazle on elkarteko presidentearen, gutun bat. 2001 garren urtean ia 250.000 euro gestionatu ditu Euskal Idazleen Elkarteak. Literatur sariak bezala, halako gauza bat oso serio aztertu beharko genukeen da.

Kontua da idazleok garen bezalakoak garela.

Oraintsu esan digu Quim Monzó kataluniarrak, han ere, idazten ari diren idazleak ez direla gehiegi hurbiltzen idazle on elkartera. Ez dutela astirik halako gauzetarako.

Bai, baten batek esan dezake ez dudala kritikarako eskubiderik, ez baitut minutu bat ere gastatu halako gauzetan. Egia esan behar bada, ez dakit nork zer paper betetzen duen.

9

Durangoko azoka.
 Idazle gazteak eta hedabideak.
 Liburu aholkuak.
 Engainatuta bizi ginen.
 Idazlearen funtzioa eta egiaren bidea.

Gure liburuen industrian mugarri da Durangoko Azoka. Hortxe zentralizatzen da ia guztia.

Durangoko azoka Bilbon egin behar litzateke eta kito. Donostiar batzuek Bilbo ezagutuko lukete horrela. Ez dut esan nahi Durangok merezi ez duenik, ez da hori. Gainera ez dakit zenbateraino maite duten azoka durangarrek. Trastorno handia izaten da, autoak inon aparkatu ezinik, hainbeste jende kaleetan... Nire ustez pare bat feria egin behar lirateke urtean zehar, orain egiten diren bezain luzeak izan gabe.

Datak ere aldatu egin beharko lirateke. Urte amaieran liburu gehienak korrika eta presaka argitaratze hori ez zait bidezkoa iruditzen. Esaterako, Sari Nazionaletara aurkeztuko diren lanen itzulpenak egin ahal izateko ez da denborarik geratzen. Arazo teknikoak ere sortzen ditu, beraz, Durangoko Azokak.

Denboran eta espazioan gaizki kokatuta dagoela esango nuke. Geure neurriragoko zerbait nuke nahiago. Zergatik erabili makilaje hau guztia?

Beti zifrak eta zifrak agertzen dira, baina gurean ez dira urtero milioika liburu argitaratzen. Hala ere, ez beza inork pentsa horregatik gaizki gaudenik. Urtero bizpahiru lan nabarmen ateratzen dira, eta gero gainerako guztiak. Jendeari hori erakutsi behar litzaioke. Hori baita egia.

Idazle gazteenentzat aukera ematen ei du Durangokoak. Nola ikusten duzu panorama gaur?

Idazle gazteek ez daukate erraza. Burua ateratzea, nabarmentzea, oso zaila dute. Gure garaian errazagoa zen bideak zabaltzea, argitaratzea, izen bat egitea.

Hedabideek merkatu handi bat balego bezala jokatzeko dute. Haienentzat beti daude, edo gaude, hiruzpalau idazle bakarrik. Tapoi lana egiten, gainera. Besteena eragozten. Baina, zergatik hiru edo lau bakarrik? Leku guztietan hala izaten delako. Ez beste ezerengatik. Idazle gazteei leku egin behar litzaietxe, ez dakit nola. Kontua da beti gaudela dozena erdi idazle, bidea ixten bezala.

Joan zen egun batean, Mikel Hernandez Abaitua idazlearen liburu bat aurkeztu zen. Dagoeneko oso gaztea ere ez da baina normalean sei edo zazpi hedabide agertzen dira halakoetara.: bi bakarrik egon ziren. Hernandez Abaitua ahaztu egin dute. Zergatik? Auskalo. Agian Euskal Herriak nahikoa santu badituelako.

Asko ekoizten delako gerta liteke hori.

Ez dakit. Baina egia da asko idazten dela. Euskaldunok idazteko joera handia daukagu. Gure borrokak eta borrokatxoak paperean jartzea atsegin dugu.

Agian, lehenago aipatu duzun komunikazio ezintasun horren kariaz izanen da.
Seguru asko hala izango da. Argi dagoena da ez garela agrafoak, esanak esan.

Bost euskal libururen aholkua nahiko genuke orain.

Niri zerbait eman didaten bost liburu aipatuko dizkizut. Lehenengo datorkidana gogora Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* da. Agian lehentxoago aipatu dudalako, edo ez dakit zergatik, Mikel Hernandez Abaituaren *Panpinen erreinua* izeneko. Oparitu ere egin nion lagun bati.

Zalantzarik gabe, Atxagaren *Obabakoak* ere ekarri behar da aipamen hauetara. Eta amaitzeko, hamabosteko bat eta hamaseiko bat: Joxe Austin Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* eta Anjel Lertxundiren *Hamaseigarrean, aidanez*.

Eta beste literaturetatik?

Michel Butor-en *La modification*. Robbe Grillet-ren (?) *xxxx* (?), Max Frisch-en *Tagebuch* (?) eta Samuel Beckett-en *Malone meurt*.

Bat izendatzea falta zaizu.

James Joyce-ren *Ulyses*.

Eta orain, idazten segitu beharko duzu. Idazle izaten jarraitu beharko duzu gure gizarte aldrebes honetan.

Idazleak, arotzak edo kazetariak bezala, pertsona zintzoa izan behar du. Ondratua.

Beste zerbait ere bai, ala ez?

Kontuz. Idazlea memoria eta sentimenduekin ari da lanean. Horixe du materia eta gaia. Bereiztu egin beharko lirake nobelagilea eta intelektuala. Idazlea izan daiteke ezjakina gauza askotan. Idazleak bere buruarekin behar du konpromisoa eta gainetik kendu beharko luke edozertaz hitz egiteko gauza dela pentsatzea. Nik erabakita daukat ez naizela inoren txotxongilo izango. Hala ere, zaila egiten da kazetariak aurrez aurre galdezka daukazunean ez erantzutea. Baina badakit, hala ere, hori ez dela nire lana.

Gaur jakin dakit Sartrearen garaiko konpromisoak guztiz ustelak zirela. Nirekin batera oroituko du jende askok nola Aleksander Solzhenitsin-en *Archipielago Gulag* agertu zenean, denok pentsatu genuen idazle hori traidorea zela. Geroago jakin ahal izan dugu oso zintzoa izan zela benetan eta liburuan esaten zuena egia zela. Bere garaian ezin izan genuen sinetsi, ordea.

Era berean oroitzen dut nola Sartrek izenpetu zuen norbaitek idatzitako hitzurre bat Burgosko epaiketaren ingurukoa. Ikastolek eta abarrek, iraultzailea eta nik ez dakit zer bezala saldu ziguten lan hura. Aukeran, ordea, nahiago nuke Sartrearen hitz zintzoa eta benetakoa. Ez propagandarakoa.

Literaturaren konpromisoaz diharduzu.

Gaur aurkitu dut Cortazar-en 1967garren urteko idatzi hau: (TEXTUA, MESEDEZ)

Etikaren etika, azken finean.

Idazleak, esan bezala, zintzoa izan behar du. Horixe du konpromisoa.

Hemen denok utzi ditugu gauzak esan gabe, egokiera ez zelakoan. Baina Max Weber-ek bereizten duen bezala, gauza bat da politikariaren etika eta beste bat intelektualaren etika. Konbikzioaren etika eta erantzukizunaren etika. Politikariak gezurra esan dezake, erantzukizunari eusteko asmotan. Idazleak, ostera, ez. Inola ere ez. Idazleak ezin du gezurrik esan. Egia esan behar du beti.

Askotan egia ezkutatu egin dugu, etsaiak hortxe baitaude beti eta gure kontra erabiliko dutela uste baitugu. Baina egia beti jakiten da. Guk ezkutaturakoa, hurrengo belaunaldiak argira aterako du eta orduan okerragoa izango da.

Nik uste dudanez, egia azaldu behar dugu. Hori da gure lana baita atzetik *El País* edo beste hedabide bateko putakumeak etorriko badira ere geuk esandako egia geure kontrako gezur bihurtuz. Guk egia esan behar dugu beti. Horixe da idazlearen konpromisoa.

Nahiago nuke bere garaian Solzhenitsin ulertu izan banu. Tragikoa da gizon horri egin geniona. Tragikoa da nik neuk egin niona. Ezin imajina genezakeen berak zioena egia zenik baina egia zen. Egia.

Joseba Sarrionandia.

1)

Nolakoa zen egoera idazten hasi zinenean? Ba al zegoen zure inguruko en artean idazle jenderik?

Nerabezaroa frankismoaren azkenetan bizi izan nuen. Durangon oso gutxi egiten zen euskaraz. Ez nuen ezagutu idazlerik inguruan.

Zerk bultzatu zintuen, bada, idaztera: familiaren eraginak, eskola irakasleek, hizkuntzarekin hartzen den konpromisoak, literaturarenganako berezko zaletasunak...?

Familiaren eraginik ez, umetan etxean ez nuen libururik ezagutu. Neu hasiko nintzen logela literaturaz betetzen, hamalau-hamabost urterekin. Sasoi hartan eskola nahiko gogaikarria zen, baina irakasle onak ere izan genituela uste dut, filosofia, historia, literaturakoak batez ere.

Kasualitatea bada ere, aipatu dituzun irakasle on horiek guztiak "humanitateetakoak" dira. Ez ote zenuen edukiko joera jakin bat, hasiera hasieratik?

60ko hamarkada hartan euskara ez zen, bada, egongo urrealdian.

Durangon erdaraz egiten zen kalean, etxean gurasoek euskaraz baina umeek erdaraz egiten genuen normaltasun guztiarekin. Diglosia asumituta zegoen, euskaraz egitea inkulturarekin edo oso minoritarioa ematen zuen abertzaletasunarekin markatuta zegoen eta, euskara bitxikeriatzat hartzen zen, debekatu beharrik ere ez zegoen jadanik. Debekuaren mehatxua hor zegoen beti gainean hala ere.

Euskara erdara baino lehenago ikasi nuen, baina gero hamalau urterekin ez nuen euskaraz ia egiten eta, orduan, gogoratzen dut momentu larri batzuk bizi izan nituela aittitte eta amamekin, eurek erdaraz apenas egiten ez zutelako. Gurasoei euskaraz entzun arren erdaraz erantzun eta kito, baina aittitte edo amamarekin berba egitea ia ezinezkoa bihurtu zitzaidan, "ondo" eta horrelako laburpenak besterik ez nituen ganorarekin egiten. Inkomunikazio uneok ondo gogoratzen ditut oraindik eta mutiko harentzat orduan larriak izango zirela pentsatzen dut, mundu hartan zeozer oker zegoela pentsarazteko modukoak.

Esaten zutena ulertzen nuen, baina ez nintzen hitz egiteko gauza. Modu oso ederrean hitz egiten zuten gainera, linguistikan *competence* deitzen dena nuen, baina *performance* delakoa ez. Gero, euskara errekuperatzen hasi, alfabetatu eta, hala ere, geroago eta ederragoa irudituko zitzaidan aittitte edo amamaren berbamodu natural analfabeto hura. Beste mundu bateko hizkuntza zekarten eta beste mundu bateko berriak ematen zituzten.

Nola hasi zinen irakurtzen? Nola zeureganatu zenuen aurreko idazleen ezagutza?

Irakurri, uste dut egunkaria irakurtzen nuela asko, orduko Biafrako gerraz, Vietnamgoaz eta abar. Egun batez, liburudendaren eskaparatean lagun batek *“La muerte en Murelaga”* liburua seinalatu zidan eta bertso bat zegoen euskaraz, "Jaio nintzan iltzeko,/ aldi-oro noa iltzen,/ ildakoan erabat/ asiko naiz bizitzen", eta bertsoaren autorea Orixe zen. Ez zen normala euskarazko liburuak ikustea kalean.

“Lagun izoztua” zure nobelan agertzen dena bera.

Besterik ere izango zen.

Bazegoen beste liburu bat erakargarria egiten zitzaidana, Herbert Marcuserena, eta luzaroan aurreztutako diruarekin erosi nuen, filosofia hegeliarioari buruzko saio luze bat zen. Irakurri nituen lehenengo autoreen artean Vladimir Nabokov, Pär Lagerqvist, eta abar zeuden.

Iluntze batzuetan biblioteka munizipalera joaten nintzen, Kalebarrin zegoela uste dut, biblioteka tenebroso bat, *Lecturas* edo *Hola* errebistatik ateratakoa ematen zuen andere errubia dotore bat zen bibliotekaria eta, gehienetan, han ez zen beste inor egoten.

Ikastetxeko bibliotekan bazeuden euskarazko liburuak. Nik Orixerena bilatu nituen, baina William Douglassek aukeratutako bertsoaz aparte, ez nuen ezer estimatzen jakin. Orduan, Gabriel Arestiren poesia topatu nuen, hau ere bi hizkuntzatan, eta horrek bai harrituta utzi ninduela.

Urtean behin Durangon liburuen azoka izaten zen eta han erosten nituen gauzak. Piarres Larzabalen liburu bat ezker aldean lapurteraz eta eskuinaldean gipuzkeraz, ez nuen ez bata ez bestea ulertzen. Euskaraz alfabetatzeko hiru edo lau hizkuntza arrotz ikasi beharko nituela ohartu nintzen. Bestalde, liburu gehienak debekuaren muga zeuden oraindik. Folklorea ez zitzaidan gustatzen, baina liburuen giroko euskal kulturak beste xarma bat zuen, klandestinitate eta modernitate aire bat. Lur editorialeko liburuak gustatzen zitzaizkidan gehien. *Euskal Literatura* 72 gogoratzen dut, "Malgizonen abenturismoa", "Borobila eta puntua", eta abar.

Kontrakultura harekin identifikatu nintzen.

Berezitasun bat dela dirudi horrek gurean. Besteren batek ere aipatu digu lehen pausoetatik abangoardiako literatura egiteko behar hori sentitu zenutela euskal idazleek. Ez da literatura guztietan gauza bera gertatzen. Akaso, irakurle askorik gabeko merkatu anormalak bultzatuko zuen horretara eta nolabaiteko aktibismo intelektualak ere bai.

Erdaraz irakurtzea errazagoa egingo zitzaizun, hala ere. Idaztea ere bai. Esan al daiteke gaur ere errazagoa egiten zaizula erdaraz aritzea?

Ikasketak erdaraz egin nituen eta, alfabetatzen hasi nintzenean, gutxi hitz egiten nuen euskaraz. Erdaraz errazago idatziko nuen, seguru. Eta gero hogeitau urte baino gehiago dira Euskal Herritik kanpora nabilela, ni giro euskaldunean aldi labur batzutan baizik ez naiz bizi izan, eta euskara ez zait erraza egiten.

Baina ez dut uste idazleak erraztasunagatik idazten duenik. Askok uste dute idazleak itzelezko erraztasuna duela idazteko, eta hitz egiteko. Eseri eta barra barra betetzen dituela paperak. Eta ez da horrela. Idazlea, Thomas Mannek esan zuenez, idatzi besteek baino zailtasun gehiagorekin egiten duena da. Idazterakoan besteek baino lan eta neke handiagoak hartzen dituelako da idazlea.

Nire kasuan behintzat hala da, eta nik ezagutu nuen lehenengo idazleak ere horrelako lana hartzen zuen idazten. Bernardo Atxaga ordurako idazlea zen, behia behia den moduan zen bera idazlea, eta itzelezko etorria zuen hizketarako gainera. Baina bizi zen Somerako goiko pisu hartan gaua lo egin gabe pasatzen zuen *Etiopiako* poema laburrak behin eta berriro zirriborratzen

Gero gauzak irakurtzen dituzu eta, lau eguneko lan nekea hiru minututan irakurtzen denez gero, erraz idatzi dela ematen du. Baliteke hortik zehar idazle errazak izatea, iturrikoak, baina nik ezagutu ditudan gehienek modurik "zailenean" idazten dute.

Lehenengo idazkiak noiz izan ziren? Nola gertatu zen hori?

Erdaraz nobela beltz moduko bat idazten saiatu nintzen, lagunek barre egin zezaten. Euskaraz, alfabetatzeko klaseetara gauez joaten hasi nintzenean, irakasleak idazteko esaten zigun. Gogoratzen dut filosofiaz eta idatzi nituela gauzak, eta fenomenologia eta hitz aldrebes haiek gaineratik kentzeko igual, Argiarako zeozer idazteko esan zidan. Horrela hasi nintzen gauza txiki batzuk egiten.

Argia orduan *Zeruko Argia* deitzen zen eta uste dut kaputxinoen aldizkaria zela, legearen aldetik, baina ez zen batere zerutarra. Nik ez nuen han kaputxinorik ezagutu. Elixabete, Pilar eta Lurdes ziren han nagusi. Hiruez aparte Balere Bakaikoa, Txema Larrea, Ermiñe Madariaga, Felix Ibargutxi, Iñigo Lamarka eta halakoak agertzen ziren handik, zeruetatik nahiko apartekoak denak. Sasoi hartan Bizente Ameztoik egiten zituen portadak, bere larre surrealismo barroko harekin.

Argian kolaboratuz hainbat gauza eta jende ezagutu nuen, esate baterako Andoni Arrizabalagari Ondarroan entrebista bat egin nion kartzelatik irten zenean

Eta zine asko ikusi nuen, Argiarako artikuluak idazteko aitzakiarekin.

Artikulu haiei buruz zein inpresio izan zenuen? Zelakoak inguruko iritziak? Ruper Ordorikak esan berri digu, Zeruko Argiako artikulu haiek zirela eta esan ziola Atxagak zuregana hurbildu eta Pott Bandara erakartzeko.

Orduan, eta harrezkero ere bai, idatzitakoa gero argitaratuta ikusteak inpresio arraroa eman dit, erdi lotsa, erdi ez dakit zer. Unibertsitatean eta tesinak idatzi eta gero defenditu egin behar dira jendaurrean, ni ez nintzateke nire liburuak defenditzeko gauza izango. Ingurukoek iritzirik zuten ere ez dakit, alfabetatzeko irakasleak "oso ondo" esaten zidan beti, lana egiten niolako. Lagunek esaten zidaten ez zutela ezer ulertzen, nik pentsatzen nuen hobe zela izenordea erabiltzea.

Idazlea izateko erabakia noizkoa duzu?

Nik ez dut idazlea izateko erabakirik egundo hartu.

Idazten hasi nintzenean, hori ez zen ofiziotzat hartzen, estudiantea nintzen eta idaztea sasoi hartan politika eta kultura alorrean ematen zen militantzia eskuzabal haren formatoko bat zen. Oraingo ikuspegi profesional batzuetatik sasoi hartako militantzia

hura sakrifiziotzat gogoratuko da igual, ia gupidaz, baina pozik bizi ginen orduan dirurik gabeko amoranteen moduan.

Gero kartzelan ere idazten jarraitu nuen, ofizioz presidiarioa nintzen eta derrigorrezko bizibide hori apur bat ahazteko. Eta berriz ere libre, ofizioz iheslaria izateko beste aukerarik ez dut izan, eta bizitzan ez dut idaztea baino ezer presentableagorik egin.

Baina ez nuke esango ofiziozko idazlea naizenik, oraindik behintzat. Thomas Mannek ematen zion beste zentzu horrekin naiz idazlea, izatekotan, idaztea zeregin zaila eta nekeza egiten zaidalako.

Orduan, zertarako idatzi? Zertarako eta zergatik hartu lan nekagarri hori?

2)

Zer irakurketak markatu zaitu?

Badakizu sasoi hartan euskaldunek batxilerrean ere ez genekiela zer ginen. Eskolan FEN, *Formación del Espiritu Nacional*, irakasten ziguten, espainol onak izan gitezen. Guk geure burua euskalduntzat hartzea potentzialki oso subertsiboa zelako. Gure identitate estalia ezagutzeko orduan, Julio Caro Barojaren *Los Vascos* liburua oso inportantea izan zen niretzat, antropologia estatuaren interesetara makurtu gabe, euskaldunak zer ziren eta nondik zetozen datu askorekin eta modu zientifikoa azaltzen zelako.

Baina irakurketek baino, igual orduko giroak markatu ninduen gehiago. Liburu asko aipatu ahal dizkizut, baina lantzean behin lurrean aurkitzen ziren multikopistaz eginiko panfletoak ere gogoratu beharko nituzke. Nire nerabezaroan errepresio handia ikusten zen inguru guztian eta, diktadurak gure identitate nazionala ukatzen zela, zapalketa sozioekonomiko kapitalista gogor bat zegoela, askatasun guztiak falta genituela nabarmena zen. Eta egoera horren aurkako borroka sortzen ziren era batean edo bestean.

Zer irakurketak markatu ninduen galdetu didazu. Liburuez aparte, askatasunaren aldeko borroka haien irakurketak ere markatu ninduela uste dut.

Ezin dut sinetsi panfleto politiko soilak daudenik zure literaturzaletasunaren oinarrian. Zure idatzietako askotan beste literatura batzuetako usainak hartu izan ditugu: Portugalgoak, Txinakoak ere bai sarritan.

Euskal idazleen deskubrimendua. Ezagutu al zenuen nolabaiteko lilurarik?

Euskarazko lehenengo liburu haien artean niretzat oso berezia izan zen Jon Etxaideren *Joanak Joan* nobela irakurtzea, Jon Etxaideren beste narrazioak ez zitzaizkidan hainbeste gustatu baina hori bai. Gauza batek bestera eramaten zaitu eta horrek Pierre Topet Etxahuni buruzko Jean Haritschelarren bi liburu handiak frantsesez irakurtzera bultzatu ninduen.

Gabriel Aresti ni alfabetatzen hastean hil zen eta bere jenioak bazuen lilura bat. Bere poema asko kantatzen ziren, eta bere ipuin bat izan zen euskaraz irakurri nuen lehenengo gauzetako bat, *Olerkaria*, literaturak ematen duen probetxuaren fabula barregarria.

Bestalde, bai Jon Etxaidek eta bai Gabriel Arestik Jon Mirande aipatzen zuten. Jon Mirande ere ordurako hilda zegoen. Xabier Letek idatzi zuen artikulu bat bere umore beltzari buruz, oker ez banago, Argian eta Txomin Peillenek bere idazlanen bilduma bat prestatu zuen. Jon Miranderen heterodoxiak eta perfekzio formalak erakartzen ninduen, heterodoxia kultu eta landu hark. Umore hura, lizuntasun hura, erlijioaren kontrako ausardia hura berriak ziren euskaraz: "gutartera itzul bazinde, gurutzifika zindezaket nik oster" hura bezalakoak.

Orduko beste irakurketa bat gogoratzen dut, Mikel Lasaren bi edo hiru poemena, bestelako leuntasun harekin: "ene elea ez da gurina eta esnea, itsasoa harria eta haizea".

Gero euskarazko liburuetan hiru liburu argitaratu ziren dimentsio berri bat ekarri zutenak. Ordura arte geometria apur bat plano eta urrunekoa egiten zitzaidan literatura hori hiru dimentsiotako eta habitablea iruditu zitzaidan Ramon Saizarbitoriaren *Ehun Metro*, Koldo Izagirrearen *Zergatik bai* eta, apur bat geroago, Bernardo Atxagaren *Etiopia* poema liburuarekin.

Eta klasikoak?

Resurrección Maria Azkueren liburu bat bada klasikotzat har daitekeena: *Euskalerrriaren Jakintza*, ahozko literaturarena. Ez dakit zer esan nahi duen klasiko hitzak gure kasuan, bide batez esanda, aspaldikoa dela, kanonizatuta dagoela, edo klasekoa, eskoletan irakatsiko delako. Dena dela, badira autore batzuk gustura irakurri nituenak: Detxepare, Leizarraga, Axular, Oihenart, Tartas, Etxeberri, Lizarraga, Mogel, Duvoisin, Hiriart-Urruty, Agirre, Kirikiño, Manezaundi, Larreko, Lizardi, Lauaxeta, Iratzeder.

Lilurarekin irakurri nituen, hizkuntza erdi arrotz bat aurkituz denen eta bakoitzaren testuetan. Hizkuntza erdi arrotzaren ideia hau Marcel Proustek erabili zuen, "*les beaux livres sont écrits dans une sorte de langue étrangère*" idatzi zuen, eta euskaraz liburu askok hizkuntza erdi arrotz erdi propioaren inpresio hori eman zidaten. Baina ez zaharrek bakarrik.

Hizkeraren ia arrotzasun hori klasikoetan dialektoagatik eta antigoalekoagatik dela esan daiteke, baina erdi arrotzasun hori testu literarioaren ezaugarri orokorrago bat da. Arrarotasun hori nik *Joanak joan*, *Harri eta herri*, *Haur besoetakoa*, *Ehun metro*, *Zergatik bai*, *Etiopia* liburuetan aurkitu nuen.

Hizkeraren ia arrotzasun horrek bihurtzen du Bilbo Etiopia, hau da guk ikusten genuen baino bilboagoa, beste lengoia horrek errealitatearen beste ikuspegi bat ematen duelako. *Ostranenie* da errusieraz, *depaysement* deitzen dela uste dut frantsesez.

Literatura unibertsaleko erreferentziak.

Sasoi hartan Vladimir Nabokoven *Dekapitazio batera gonbidatua* irakurri nuela gogoratzen dut, apur bat kafkianoa. Pär Lagerkvisten *Enanoa* eta *Borreroa* ere gogoratzen ditut. Poesian Vladimir Holanen irakurtzen nuen.

R.L. Stevenson irakurri eta euskarara itzuli ere egingo nuen ipuin labur bat, *Gau baterako aterpea*. François Villoni buruzkoa zen eta, gauza batek bestera eramaten duenez, ba antigoaleko elur eta testamentuek erdi harora, Johan Huizingarengana, sinbolismora eta abarretara, baina beste aldetik Herman Melville, Joseph Conrad. Edgar Allan Poe ere han zegoen.

Marcel Schowb-en *Haurren gurutzada* ere itzuli nuen frantsesetik, baina *Les vies imaginaires* gogoratzen dut bereziki.

Beste idazle batzuen izenak nahi badituzu: Cesare Pavese eta Italo Calvino, James Joyce eta Samuel Beckett, Alvaro Cunqueiro eta Celso Emilio Ferreiro, Ezra Pound eta T.S.Eliot, Jose Luis Borges eta Julio Cortazar, Gonzalo Suarez eta Fernando Pessoa...

Bestelako arteen eraginik izan al zenuen garai hartan? Rock eta Pop musika anglosaxoia, esaterako, orduantxe hasiak ginen ezagutzen. Oteiza eta bestelako artistak ere, orduantxe muturra apur bat agertzen.

Musikak garrantzi berezia zuen sasoi hartan, Mikel Laboa, Xabier Lete eta guzti haiekin, euskarari leku duina eman zion lehenengo artea izango zen...

Durango Jose Julian Bakedanok zinea egiten zuen, egin ezin zuen zinearen John Houston, eta Jose Enrike Urrutiak pintura, surrealismo barroko bat erreferentzia literarioekin, elefantea milimetroaz maiteminduta dabil esaten zuen. Banuen beste lagun bat erdaraz idatzi, baina batez ere mapa imajinarioak kolekzionatzen zituen, eta mapa arraro bat topatuz gero bidali egiten diot oraindik ere.

Zein idazlerekin eduki zenituen harremanak? Nork eragin zizun, halakorik gertatu bazen, behintzat.?

Xabier Amuriza kartzelatik irten eta ezagutu nuen, bazuen idatzia nobela bat, *Larraungo sendia*. Txema Larrea ere kartzelatik irten berria zen Argian ezagutu nuenean, basauriarra zen arren nafarrera arkaiko umoretsu batez egiten zuen. Jon Casenave ere ezagutu nuen, Lehuntzekoa, bere autoan egun batez kostaldea ezagutu genuen. Gero Pott taldea osatu zen Bilbon Bernardo Atxagaren inguruan eta orduan ezagutu nuen.

Behia behia den moduan, Bernardo idazlea zela esan duzu.

Bai, Bernardo literaturan bizi zen eta, gainera, itzelezko langilea zen. Behiaren lekuan maratoilaria esan daiteke. Maratoian irabazteko maratoia munduko gauzarik inportanteena dela pentsatu behar duzu eta, gainera, dena eman behar duzu horretan, eta Bernardo Abebe Bikila zen. *Ziutateaz* argitaratuta zuen, eta Etiopia ari zen idazten. Nik Ruper Ordorika ezagutzen nuen lehenagotik, Ruper jendaurrean hasi orduko, oso argia zen, eta lotsatia, baina euskal kulturako gauzekin oso atentoa. Apur bat ezkorra, baina euskaldun argia normala da apur bat ezkorra izatea. Manu Ertzilla ere lehenagotik ezagutzen nuen, Durango futbolearen atezain jokatzeko zuenetik, eta ordurako bazuen liburu bat argitaratuta, *Hitzik hainitz idatzi dut*, gehienak oraindik idazteke zituen arren. Jon Juaristi orduan ezagutu nuen, Gabriel Arestiren albazea zen, unamunianoa, eruditua iritzi kontudentekin. Argitaratuta zuen ordurako *Euskararen ideologiak* liburua, bere poesia gustatzen zitzaidan niri. Josemari Iturralde ere orduan ezagutu nuen, Ondarroan ingelesezko irakaslea zen eta elkarrekin egiten genuen sarritan Bilbo eta Durango arteko bidaia, Tolosakoa zen baina F.S. Fitzgerald edo halakoen moduko idazle amerikanoa ematen zuen.

Nik hemeretzi urte izango nituen oraindik eta mundu bat ireki zitzaidan jende horrekin...

Kontrakultura egiten genuen, horrela esaten zen orduan, underground. Euskara erabiltzea kontrakultura zelako oraindik, eta korrontearen kontrako ia dena estimatzen genuen. Kultura ofizial euskaldun bat zetorrela susmatzen zen eta legalitate berrian fundatuko zen euskal literatura ofizialaren aurkako kritika zorrotzen genuen.

Potten, ordura arte nagusi izandako literatura politizatuaren kontrako erreakzio bat proposatu zela uste dut. Sozioerrealismoaren epigonoek literatura oso txarra egiten zuten, abertzaletasunaren aldetik ere ehundaka topiko errepikatzen ziren, eta erlijioak bere medioak zituen oraindik, eta literaturaren kalitatea nahiko eskasa zen.

Pottek egin zuen aportazioa literaturaren autonomiarena izan zela uste dut. Literatura ez dela ideologiaren azalbidea, literaturak berez espazio eta indar propioa duela eta ahalmen espezifiko batzuk mundua kritikoki argitzeko.

Pott ez zen apolitikoa, baina Euskal Herrian ematen ziren jokabide politikoen kritika egiten zen eta ordura arteko topiko eta formen aldaketa proposatzen zen. Orduan nagusi ziren estereotipo abertzaleetatik aparte, alde batetik euskaldun naturala erreibindikatzen zen eta bestetik euskaldun kosmopolita.

Tradizioa esperimentalismoarekin nahasten genuen, gure lokalismoa europeismoarekin eta mundu guztikoekin lotuta ikusten genuen.

Ez dakit zure deserri horretatik nola bizi den hori, baina Pott garaiko zure zenbait lagunek, ederki aldatu du pausoa. Juaristik, esaterako, ez dirudi lehenagokoa bera denik.

3)

Ez da gozoa izan ezagututako egoera soziopolitikoa. Diktadura baten menpean urte luzeetan...

Burgoseko epaiketaren egunetan uste dut 12 urte nituela, gogoratzen dut amak botila bat esne erostera bidali ninduela iluntzean eta, dendatik irteeran, tiroak entzun jendea arineketan eta, bat batean, kalean manifestazio eta istiluen erdian aurkitu nintzela, nire botila esnea bi besoen artean eutsi ezinik.

Harrezkero egoera soziopolitiko eguneroko bizimoduaren parte bihurtu zitzaigun jende askori. Hamabost hamasei urterekin, errepresioaren eta diktaduraren aurkako borroketan ibili nintzen era batean edo bestean. Ze ideologiarekin? Ba, frankismoa espainolista, kapitalista eta katolikoa zen, eta ahalik eta kontrakoena izateko ahalegina egiten genuen: euskaldunak, antikapitalistak eta ondo ateoak.

Lan askotxo ez al zen hori, guztietan koherente izateko? Askotan balirudike ukatu nahi den erlijio gehiegizkoak berak ernarazi zituela gose eta era horiek.

Non ibili zinen ETAn baino lehen?

Orduan ideologia oso esplizituko erakundeak zeuden, maoistak, troskistak eta abar esplizituak. Hainbat ETA zegoen gainera. Niri ez zitzaidan sektarismo hura gustatzen. LAIA deitzen zen erakunde batean ibili nintzen, zatitu zenean LAIA-ez deiturikoan jarraitu nuen, independentismoaren eta halako komunismo libertario baten alde. Mugimendu asanbleario handia zegoen orduan eta horren alde ibiltzen ginen batez ere.

Eta borroka armatua? Nola hartzen da halako erabakia?

Hori geroago izan zen, trantsizioan ez zen eten demokratikorik gertatu eta konstituzio berrian Euskal Herria zatituta geratu zen, autodeterminazioa eta bestelako eskaerak bazterrean geratu ziren, eta aurrerantzean aldaketa sakonik gertatzeko aukerarik gabe. Ez zegoen salto kualitatiborik emateko modurik borroka armaturik gabe. Borroka armatuarekin negoziazio bat eta Euskal Herriarentzat estatus onargarri bat lortzea zaila izango zen, baina aukera politikoak akabatu egin ziren. Errepresioa oso gogorra zen, gainera. Herriko lagun gehienak Iparraldean geratu ziren, Patxi Elkarte preso sartu zuten urte askotarako, eta zer edo ozer egin behar zen...

Nik hemeretzi urte nituen eta adin horretan umetan baino eta adin helduagoan baino beldur gutxiago eta eskuzabaltasun gehiago izaten da.

Bada, Atxagak kontrakoa esan digu liburu honetan bertan. Gazteak kontserbadoreagoak ei dira gehienetan. Literatura kontuetan behintzat.

Zure militantziarekin jarraituz, borroka armatuan parte hartzea erabakitzeke orduan irizpide politikoak edo etikoak baloratzen zenituen?

Guk bizi genuen egoera hartan, borroka armatuan parte hartzeko arrazoi politikoak eta etikoak genituen. Etikaz asko hitz egiten da era abstraktuan, baina

egoerak gero oso konplikatua dira. Orduko errepresio, tortura eta inposizio egoeran beste aldera begiratzea edo egokitzea ere ez zen oso etikoa izango. Politikoki ez zen beste irtenbiderik ikusten, eta beldurragatik etxean geratzea izango zen etikoki okerra. Borroka egiteko eragozpen etikoak izan ditzakezu, edo politikoak, baina borroka egiteko arrazoiak ere etikoak dira, politikoez gainera.

Eta nola lotu zitezkeen alde batetik borroka armatua eta bestetik literatura? Ezpal ezberdineko ekimenak dirudite.

Politikaren frakasoarekin, politika borroka armatuaren bidez ere egiten zen, eta hor bizitza jarri behar zen jokoan. Konpromiso intelektual sartreanoa ez nuen ulertzen, intelektualen deklarazioak eta paper bustia ziren, ez nuen uste egoera politiko hura gainditzeko modu literariorik zegoenik. Literaturak zabalkunde handiagoa balu, eta espainolek euskaraz irakurriko balute, baina euskal literatura euskaldun gutxi batzuek baizik ez genuen irakurtzen.

Beste alde batetik, euskal literatura fase oso fundaziozkoan zegoela iruditzen zitzaidan. Hizkuntza finkatzeko, zabaltzeko, eta literaturaren bideak irekitzeko situazio batean. Literaturaren espazio eta balio espezifikoa euskaraz finkatzea, gure liburuak momentuko politikaz saturatzea baino inportanteagoa iruditzen zitzaidan.

Borroka armatua egoera oker bat gainditzeko eginbide moduan ikusten nuen, Euskal Herriak eskubide demokratikoak lortzeko, eta literatura luzarora begira pentsatzen nuen, herri moduan osatzeko eta zentzu humanoa bilakatzeko. Alde batetik politika eta bestetik literatura, berezi egiten nituela esan zidaten batzuek. Baina biak batera aurrera eramateko modu bat zen, ez hoberena beharbada.

Kartzela, deserria... ohiko errekurtsio eta gaiak dira zure lanean. bai poesian eta bai narratiban ere. Biolentzia, nolabait, present da zure lanean.

Biolentzia politikoa katastrofe bat da, biolentzia politikaren frakasoaren ondorioa da, bai guk egindakoa eta bai estatuak gure kontra egin duena. Ez dut biolentziaren epika edo lirika inoiz egin nahi izan, biolentzia berez desastre humanoa delako sufritzen duen jendearentzat. Biolentziaren aspektu humano hori da niri gehien interesatzen zaidana.

Ez dut biolentziari buruz orokorki idatzi. Ezagutu ditudan biolentzia guneak azaltzen dira, esate baterako kartzela presoaren ikuspegitik, guk sufritutako gune batzuk batez ere. Era batean edo bestean, biolentziaren azpian harrapaturiko jendearen esperientziak dira.

Gero, badakizu gerra hasten denean hiltzen den lehenengoa egia dela. Egia batzuk errekuperatzeko ahalegina ere egin dut testu batzutan, bai fikzioan bai saiakeran. Gezur batzuk baztertu eta egiak errekuperatu beharko ditugu apur-apurka.

Ausartzen al zara gaur egunean biolentzia politikoak eta bereziki ETAk euskal arazoan duen paperaz azterketa egiten? Ala zure egoeran ezinezkoa da hori?

Nola hartzen dira zu zauden lekutik, abertzale askok ETArri egiten dizkion bi kritika politiko gogorrenak: Bat, gaurko ETA dela Euskal Herriak bere burujabetasunerako daukan trabarik handienetakoa, ez baitu elkarretartzen uzten. Eta

bi, askatu uste duen herriak indarkeriaren erabilera geratzeko esaten dion arren, eskaera horri muzin eginez bere bidean jarraitzea.

Garai batean asko hitz egiten zen literatur konpromisoaren mamuaz. Alde batetik, literatura konprometitua egin behar zela esaten zen. eta bestetik konpromiso hori literaturarekin berarekin eduki behar zela.

Literaturaz ari bagara, literatura ona egin behar duzu, hortik aurrera nik ez daukat formularik.

Konpromisoa delako hori ez da nahikoa literatura ona egiteko. Eta horrelako formula bat derrigorrez inposatzen denean literatura esklerotizatu egiten da. Errealismo sozialistak, esate baterako, sozialista izateko gogoia kendu dio jende askori, eta luzarora kaltegarria izan zen bai literaturarentzat eta bai sozialismoarentzat.

Baina ez da egia konpromiso politikoak berez literatura derrigorrez hondatzen duenik. Literatura ingeleseko testu interesgarrienetako bat Jonathan Swiften *Proposamen apal bat*, esate baterako, panfleto politiko bat izan zen bere sasoiaren. Walt Whitmanen obra ere demokrazia amerikanoaren aldeko panfleto bat da. Eta borroka iraultzaileak ere liburu ederrak eman ditu.

Konpromisoarena bezala, beste formula baztertzailerik asko eman dira historian zehar. Debozio eskuliburu bakar bat hartzen baduzu eta, ez zeuretzat bakarrik, hori denei ezartzen badiezu, literatura esklerotikoa, estua eta idiota bihurtuko duzu, berdin da zer hartzen duzun deboziorako.

Batzuentzat literatura egia handi bat zabaltzeko izan da, beste batzuentzat artifizio estetiko bat, beste batzuentzat ezaubide bat, beste batzuen ustez literatura mundua aldatzeko gauza da, beste batzuentzat irakurleari irri eginarazteko baizik ez du balio. Ideia horiek zentzuzkoak izango dira edo guztiz faltsuak, baina literatura orokorki begiratzeko orduan nire ez zait ardura horretan zeinek duen arazoia eta zeinek ez, nik nire axiomak ditut idazterakoan eta onartu behar dut bakoitzak bereak dituela, eta faltsuak izanda ere inori ibiltzeko bidea ematen badiote ba aurrera.

Argi errainuaren gainean ere ibil dadila, nahi duena. Linterna piztu eta argi fokuak teiltatura argitzen duela utzi du lurrean, argi errainuaren gainera igo eta kontu handiarekin doa argi, errainuaren gainetik aldats gora, eta ailegatu denean teiltuan eseri da guri begira. Teiltatu gainera horrela igotzen bada, nik ez nioke linterna mugituko, ez nioke pilak laster gastatuko zaizkiola eta argi gainetik joatea debekatuko, izorratzaileek egiten duten moduan.

Idazlearen deklarazioak eta justifikazioak ez zaizkizula ardura esan nahi duzu, baizik eta idazten duten obra.

Hori da. Idazleak hizkuntzaren eta munduaren argitze kritiko batzuk egingo dituela espero dut. Ez axiomak edo egoera politikoari buruzko deklarazio arruntak. Literaturaren funtzioari buruz idazleak esan dezakeena ere ez zait ardura.

Idazleek susmo metafisiko bat gainditu behar dugu, nire ustez, eta horregatik teorizatzen dugu hainbeste. Oso posible da literaturak ezertarako balio ez izatea, hau da gure beldurra, eta amildegi horren alboan idazten dugu. Herri jakituriak ez dio idazleari estima handirik, jendaurrean "ni poeta naiz" edo "ni ipuingilea naiz" esanez gero arlotetzat hartuko zaituzte. Medioen espektakuloan estimazio publikoa izaten da idazleentzat, baina jakina da estimazio politikoa eta merkatua oso interesatuak eta

koiunturalak direla, eta ez dakit ez ote duen estimazio horretan ere arlotetasunak bere partea.

Inutilate zentzazio hori konpentsatzeko, idazten dugunok egiten dugunaren garrantzia teorizatzeko joera dugu, guardasolgileak bere guardasolen inportantzia argudiatzen duen moduan, euritako dela, eguzkitako dela, edo horniduratako dela. Idazleek gure marjinalitatea ametitzen dugu, guardasolgileek bezala, baina egiten dugunaren garrantzia azpimarratu beharra dugu, egin nahi dugunarena behintzat. Literatura hitza letra handiz idazteko beharra dugu, ezertarako ez duela balio susmo tristea baztertzeko, eta horregatik asmatzen ditugu literaturaren funtzioei buruzko hainbeste teoria.

Utzi koplak, esango nieke nik idazleei, eta emadazue guardasol on bat.

Jakinmina daukat zenbat hizkuntza dakizun ezagutzeko. Zenbat hizkuntzatan irakur dezakezu gaur? Zenbatetan idatzi?

Euskal nazionalismoa eta euskara, elkarren lagunak izan al dira beti bi horiek? Zertan lagundu diote bata besteari, zertan kalte? Andima Ibiñagabeitiak abertzale eta nazionalisten artean bereizten omen zuen.

(Txomin Peillenek kontatu zidan pasarte bat non Pariseko Euskal Etxearen inaugurazioan Ibiñagabeitiak esan zion hori exilioko gorberruko PNVko zenbaiti buruz. batzuk nazionalistak eta besteak abertzaleak zirela, alegia)

Normalitate batean, euskalduna izango zen eta kito, nazionalista izan beharrik gabe. Baina espainolek eta frantsesek euskaldunak apur bat anormalak bihurtu gaituzte.

Hemeretzigarren mendea euskaldunentzat penagarria izan zen politika eta kulturaren alorrean. Foruak erlijioarekin eta errege dinastiekin nahastuta egin ziren gerrak. Herri ikuspegitik, ez zegoen okerrago jokatzetik. Eta hemeretzigarren mendearen amaiera aldera Euskal Herria hiltzorian ailegatu zen. Euskaldunen gehiengoak gerrak eta foruak galduta, ekonomia tradizionala krisian iraultza industrialarekin, inmigrazio espainol handia, eta euskara ere galtzear. Euskal herri tradizionala itolarrian zegoen eta euskaldunek Espainian integratu eta euskara galdu beste erremediorik ez zegoela ematen zuen, historia horretan, euskal oligarkiak erakutsitako bidetik. Darwinismoaren legeek hala ziren, eta hala pentsatzen zuten Unamuno edo Baroja moduko jakintsuek. Itolarri horretan sortu zen Sabino Arana eta bere nazionalismo etniko defentsiboa, eta euskararekin urgentsia eta larritasunez jokatu behar izan zuen. Bizkaitarrismo purista hura euskaldun naturalarentzat eta literaturarentzat inpresentableak ziren, baina orduko egoera eta mentalitateekin esplikatzen dira.

Frankismoaren aurkako borrokan, 60-80 artean batez ere, abertzaletasunaren beste adar bat sortu zen. ezkerrekoa, gauzak beste parametro batzutan jartzen. Arrazakeriak baztertu egin ziren, euskararen errekupeazioari lehentasuna eman zitzaion, eta euskara batu moderno bat osatuz joan zen.

Gaur egun beste epe batean gaude. Euskara minoritarioa da oraindik, baina errekupeazio bidean dago, eta gizartea nahiko plurala eta tolerantzia da gai horretan. Irlandarrekin konparatuz gero, euskal nazionalismoak hizkuntzarekiko atxikimendu handia erakutsi du. Irlandar abertzaleek independentziaren alde apropos sakrifikatu zuten gaelikoa, erresonantzia soziala lortzeko ingelesa eragingarriagoa zelako.

Euskaraz egitea portaera autista dela pentsatuko dute erdaldun batzuek, eta igual irlandarrek baino askozaz beranduago lortuko dugu independentzia, baina euskara gure identitate indibidual eta kolektiboaren ezaugarria da eta autistagoak ginateke nire ustez nortasun horri eutsiko ez bagenio.

Eta "euskal nazionalismoa ez den beste hori" eta euskara, nola konpondu direla iruditzen zaizu?

Nazionalismo hitza oso markatuta dago eta, nazionalismoa zer den jakin nahi nuke. Hitzetan espezializatu garenok lehenengo mania hitzen esanahia arakatzea da eta. Ni ez naiz nazionalista, hau da, nik ez dut ezelako teoria nazionalista orokorretan sinesten. Edozein kolektibitatek politikoki nahi duen moduan antolatzeke eskubidea duela pentsatzen dut bakarrik, kriterio historikoak, kriterio erlijiosoak, ekonomikoak, linguistikoak edo direna direlakoak, euren esku, beraz autodeterminazio eskubidearen aldekoa naiz, eta gizabanakoa autodeterminatzen den bezala, behetik gora edozein komunitatek autodeterminazio eskubidea duela uste dut. Eta gure kasu konkretuan, Espainiari dagokionez, euskaldunen gehiengo batek estatu espainolarekiko dependentzia baino separazioa nahiago bagenu estatu independentea eraikitzeke eskubide demokratikoa genukeela uste dut.

Euskal estatu batean bizitzea nahiago nuke, zentzu horretan naiz euskal nazionalista, ez naiz "nazionalista" orokorki. Baina Espainia barruan jarraitu nahiago duen jendea "espainiar nazionalista" da, eta Iparraldean "frantses nazionalista", eta hori ez zait gaizki iruditzen hori, euskaldunak hainbat molde eta autoidentifikazio desberdinekoak garelako, eta aukerak izatea ona delako. Askatasuna beharrezkoa dugu, baina denok, espainol izateko eragozpen nabarmenak ditugunok ere askatasuna merezi dugulako. Eta estatuen mugak aldaezintzat ematea eta elkarbizitza demokratikoki antolatzeke mekanismoa den autodeterminazioaren ideia ez onartzea ez da "ez nazionalismoa", hori bai dela nazionalismo oso antidemokratikoa.

Zure galderari erantzunez, hoberena hizkuntza gatazka politikoan ez nahastea, bilinguismoa normalizatzea, eta euskara denon patrimonioa izatea litzateke. Baina errealitatea egoskorra da, euskara ez da egundo egon borroka politikotik aparte. Eta abertzaleen aldetik ergelkeria da euskara abertzaleen gauza dela esatea, abertzaleen helburua euskara denon hizkuntza bihurtzea izan behar duelako, baina demagogia edo injenuitate handia da euskara denon gauza dela esatea, askorentzat kontrarioaren identitate ezaugarria delako. Euskara borroka politikoaren erdigunean dago eta gauzak konplexuak dira, eta ez dira sinplifikatu behar, baina argi dagoena da hizkuntza hortxe dagoela gatazkaren erdian, eta gatazkaren soluzioaren parte dela gainera.

Zertan izan duzu idazteko orduan trabarik handiena?

Traba handiak izan nituen kartzelan, egoera batzutan ia ezinezkoa zen idaztea. Funtzionarioek, gauez argia kentzen zuten, paperak ostu egin zizkidaten batzutan, trasladoetan gauzak eramane ezin, desastrea.

Erbestean ere berdin, batzutan idazmakinarik ez, bestetan boligrafarik ez, eta leku batetik bestera aldatzean paperak galtzea, eta idazlan ia amaitua berriz hasi beharra edo, behin dena galduez gero, proiektua abandonatzea.

Boligrafoaz eta paperaz aparte, beste material batzuk behar dira. Biblioteka, esate baterako, eta giro apur bat, idazle oso salbajea ez bazara. Eta idazteko girorik ez dut izan, eta idazteko erabiltzen dudan hizkuntzako girorik ere ez.

Gero, urteak pasatu ditut euskaraz egiten entzun gabe eta, horrela, idazteko orduan hizkera urtu egiten zaizu.

Laugarren maila batean, idazten duzunean ez duzu airearentzat egiten. Interlokutorea behar duzu. Hau da, irakurleak, baina ez irakurle eskultorikoak, edozer berdin zaiona, baizik eta egiten dituzun galderak eraren batean erantzungo dituen interlokutorea. Eta nire kasuan, bueltako komunikazio hori ezinezkoa da.

Eta literaturgintzaren beraren barneko arazorik edo krisialdirik?

Egindakoetatik zer ez zenuke berriz egingo?

Bizitzan aukera bat hartzen duzu eta beste hirulau bazterrean uzten duzu, hartzen duzu bide bat beste posibilitate batzuk alde batera utzirik. Ideia bat dut gogoan, hau da, bazterrean utzitako beste bizitza posible haien bilakaerak gurekin ditugula eraren batean.

Hori literarioki oso ideia emankorra da, gogoak hipotesi hori ametitzen du, baina bizitzak ez du ugaritasun hori, bakarra da eta ez du atzera bueltarik. Ni ez naiz egindakoez damutzen, baina egindako asko ez nituzke egingo eta egin gabeko batzuk egingo nituzke. Gehiago dena, beste bizitza bat bizi ahal balitz –hori literarioki baino ez da posible, baina beste aukera bat banu-- nik ez nuke bizi izandakoa errepikatuko, dena diferente aukeratuko nuke. Ze munduan den tristeena da bizitza pasatzen dela ia ohartu orduko, bi edo hiru bizitza behar genituzke benetan bizi izan garela esan ahal izateko.

Baina egin gabeko libururik geratu zaizu?

Hainbat asmo utzi ditut leku desegokian egoteagatik. Esate baterako, ni alfabetatzen hasi eta aittite amamaren kontuak entzuten nituenetik beti izan dut *Gran Sertao Veredas* estiloko liburu bat idazteko asmoa, baserria eta iraultza industrialak, gerra, eta diktadura, hogeigarren mendeko historia hori, baina dena lengoaia protagonista eginez, lengoaiaren benetako errealizazioak, baina ez ereduak, ez batzuen bizkaiera arauzko dotore hori, baizik eta benetakoa, eta erdara, eta dena delakoa. *Zergatik bai*, baina adin guztietara eta alor guztietara eta mende beteko historia azaltzen. Guk hizkuntzekin izan dugun harremana fikzioaren bidez baizik ezin da azaldu nire ustez, eta hizkuntzari protagonismoa emanez, ez hizkuntza bati, baizik eta hizkerari. Gure berbamodu sarritan eskizofreniko, zatitu, nahastuari.

Lan horrek eskatzen duen ikerketa lana ezin izan dut inoiz egin, nik jaso nahi nituzkeen berbamoduak urrunegiak dira entzuteko.

Euskal idazleari, zure ustez, ez ote zaio egokitu "paper sozial puztuegia" inguruko gizarteekin alderatuta?

Baliteke, ez dakit.

Euskal gizartearen ere espektakulo bat dago, beste gizarteetan bezala. Gaur egun, munduan hiperespektakulo bat dago telebistaren bidez ia denon etxeraino hedatzen dena.

Baina, sarritan, euskal kultura den simulakro txikiari espainiar kulturaren simulakro handiaren ikuspegitik esaten zaio simulakroa dela. Horri buruz zerbait esan nahi dut, espainiar simulakroak euskaldunari ez baitio esaten "zu txikia zara", txikia izatea bekatu txikia delako edo, baizik eta "zu simulakroa zara". Baina hara, Espainiakoa, printzea eta guzti, gurea baino simulakro handiagoa da eta!

Euskal kultura txikia, itxuragabea eta itsusia da eta mito asko ditu seguru asko. Espektakulua, simulakroa eta dena izango da, eta euskaldunek gauzak hobetzeko ahalegina egin beharko genuke. Baina bizitzea tokatu zaigun gizartean espektakuloarena da...

Hala ere autokritika apur batek, ez lioke kalterik egingen inori.

4)

Zu idazle handien arteko zaitugu baina, hala ere, orain arte ez duzu eleberririk argitaratu. Hainbeste lan eman al dizu "Lagun izoztua" k?

Eta Durangoko azokan libururik salduena bera. Anormaltasunaren ezaugarri ere izan liteke ezkutuan dabilen idazle baten lehen nobela, salduena izatea. Azkenean egia izanen da liburuak ez direla literatur kontu hutsegatik saltzen.

Jaso duzu nolabaiteko iritzi edo kritikarik?

Badakizu ikusmin handia zegoela argitaratu aurretik. Horrek ez dio mesederik ekarri ohi irakurketari. Bat baino gehiago ezagutzen dut (neu tartean), kezka dardarka murgildu dena liburu horretan. Bazegoen nolabaiteko beldurra distantziak eta denborak uste baino gehiago eragingo ote zizun hain luzean jarduteko. Hizkuntza bera ere uhertuko zitzaizula pentsatzen zuenik ere ezagutzen dut...

Eta errealismoaren bidea hautatu duzu. Plano ezberdinetan antolatutako kontakizuna. Gaia, oster, ederki baino hobeto ezagutzen duzuna.

Agian usteko duzu zailtasun bereziak eduki dituzula euskarazko dialogoak eta erdarazkoak uztartzeko errealitatean, baina arazo berbera dauka gaur eguneko Euskal Herrian kokatutako errealismoa egin nahi duen idazleak. Poliziek, autobus gidariek, ertzainek eta popularen gehiengoak erdara darabil han ere.

Zure nobelako narratzaile nagusienetako batek honela dio: "...futuroaren arkeologia barregarri hau egiten jarraituko dut". Esaldi borobila izan arren, komeni da apur bat hori argitzea.

Protagonista guztiak dira iheslariak eta azkenerako pentsa liteke konforme bezala geratzen direla eurei egokitu zaienarekin. Atzean utzi duten herria, borrokara bultzatu zituen huraxe, lainopean bezala galdutako erreferentzia urrutiko bat dela eta jada ez dutela sekula berreskuratu ahal izango. Patua onartzen dute nolabait. Aurrean geratzen zaien denborari heltzen diote. Horrelako zerbait ote zeuri ere gertatzen zaizuna?

Lehenago harrapatzen ez bazaituzte, urte gutxi barru preskribatuko dira zure hoben guztiak. Amets egiten duzu egun horrekin? Ez al duzu gogorik sentitzen bizitza zibil arruntera itzultzeko? Noiz eta nola amaitzen da zurea bezalako historia bat?

(Erantzuna baiezkoa bada:) Zertan uste duzu edukiko dituzula ezintasun handienak? Zeri diozu beldurra?

Nobela hau idazteak ez al dizu kolokan jarri poesiarekin zenuen harremana? Balirudike sintesia eskatzen duela batek eta diskurtsoa besteak.

Jakinmin handia daukat idazlearen idatzi bitarteko bizipenak ezagutzeko. Poesia “sentitzeko era goitiar” bat dela esango nuke, errealitatea ero puntu batetik ikustea, alegia. Azkenerrako osasunaren aurkakoa ere izan litekeela begitantzen zait. Nobelak, aldiz, ez du hainbesteko zoramenik eskatzen. Ezinezkoa litzateke hori hain denbora luzean. Nola bizi dituzu bata eta bestea?

Narratibaz ari garenean, irakurleak aurrez daki kontatzen zaiona ez dela egia. Hala ere, irakurlea egia bila abiatzen da irakurketan. Zer magia du narratibak?

Indioen ipuinen amaiera gogoratzen dut. "Zer, ipuina gustatu zaizue?" amaitzen zuen kontalariak, eta entzuleek erantzuten zuten: "Bai, gaua laburragoa egin da".

Gainera, gizakiak badu beti sekretuaren edo misterioaren zentzu bat. Bizitza azken batean oso ulertezina da eta hitzen ostean zerbait ezkutu dagoela ematen du, eta gizakiak, urdaila betetzekoaz gainera, beste gose hori ere badu, misterioa arakatzeko eta mundua miresteko behar hori.

Narratiban kontatzen dena faltsua da, baina ez hainbeste, sekretuaren bilaketa hori dago.

Saiakera ere ezin omen da egin fikziorik gabe.

Horretara jarrita, gehiago esango nuke: ahoa zabaltzen denean gezurra esaten da. Abstrakzioak gezurrak dira gehienetan aspektu askotan.

Hala ere, egiak gezur aproximatioben bidez lortzen dira.

Baina ezin omen da argitaratu saiakerarik, ez omen dago irakurlerik saiakerarentzat.

Ba lastima da, saiakera onak irakurri ditut euskaraz.

Joxe Azurmendiren lanak, gure herri egoerari buruz oso argigarriak dira nire ustez. Txema Larreak *Euskara erroizturik* liburuan gure hizkuntzaren ahultasunak pentsatzeko gai ugari ematen ditu. Eduardo Gil Beraren filosofia saioetan haztamuka doan filosofiak ematen digu eskua.

Zein da zure ekarpen nagusia?

No traje ningún traje.

Modestia faltsua liteke hori.

Esan al liteke liburu honetara ekarri zaituztegun bost idazleok belaunaldi berekoak zaretela?

Belaunaldi berekotzat hartzen gaituzte, ala?

Ez nuke hainbeste esango, baina perspektiba apur batez begiratzen saiatu ezkerro, nik behintzat, Aresti, Etxaide, Mirande, Ugalde eta bakar lanean aritutako antzerako heroien artean eta euskaraz hazi diren egungo irakurle eta idazle “naturalen” arteko zubian ikusten zaituztet. Denak herrigintzak bultzaturik, “zuloa” betetzeko eta abangoardiako literatura egiten hasi zineten, nahiz eta gero bi bidetan

bezala banandu, zuen prozesua euskara batuaren aldi berekoa izan da, badira gauzak amankomunean. Agiak zeuok ikusten dituzuenak baino gehiago. (“naturalizat” dauzkat euskaraz irakurri edo idazteko militantziarik eta esfortzu handirik behar izan ez duten gazteagoak)

5)

Euskararekin zer nolako harreman duzu gaur egunean?

Euskara gutxi egiten dut bizimodu normalean. Orduan, niretzat literatur hizkuntza da batez ere.

Bestalde ni bizkaieran hazia naiz eta badakizu bizkaiera izatez beste hizkuntza bat dela, hurbiltzeko ahalegina egin dugu hala ere.

Euskararen egoerak idazleari trabak eta abantailak ematen dizkio. Trabak, hizkuntza handi batek, ingelesak, espainolak edo frantsesak, sistema oso finkatuta dutelako eta zuk hor tresna ugari aurkitu ahal dituzulako eta tresna horiek erabiltzeko edo apurtzeko orduan.

Guk ez dugu autopista hori, guk estratak ditugu edo geuk egiten ditugu bideak. Askatasun gehiago dugu, eta Patziku Perurenaren euskara, edo Antton Lukurena, edo Xabier Amurizarena, barietate hori oso ona dela uste dut. Batzuei ez zaie gustatzen desberdintasuna, ortodoxia arauemaile bat jarraitu nahi dute. Nire ustez desberdintasunak oso onuragarriak dira.

Hasi zinenetik hona euskarak dezente bilakabidea ezagutu du.

Ni hasi nintzenez, euskara ia hilda zegoen eta hatxea dela eta borrokan ari zen jendea oraindik. Orditik hona euskara aurrera joan da, alde batetik hizkuntzaren galera tendentzia aldatu egin omen da eta euskaraz jende gehiagok egiten omen du, beste alde batetik eredu ortografikoari buruzko borroka haiek ere ahaztu dira eta, euskaraz egiten diren lanei dagokienez, askozaz hobeto gaudela iruditzen zait.

Oraindik konpondu gabeko arazoak ditu, ordea...

Ez dakit, oso urrundik ikusten dudalako gauza, hala ere nire inpresioa emango dizut.

Euskara batuaren eta euskalkien arazoa ez dela erraz konponduko iruditzen zait. Hizkuntza eta literatura mailan Donostia da benetako hiriburua eta dinamika nahiko gipuzkoarrak ezarri dira azkeneko hogeita hamar urteotan. Mapari begiratu eta hori normala dela onar daiteke, baina arazoa hor dago.

Gero, euskarak hizkuntza txiki baztertuaren problemak ditu munduan. Globalizazioarekin eta, hiritar multilingueen gizartea dator. Euskal Herrian hiru hizkuntza hitz egingo dira, eta ingelesa ere ezinbestekoa izango da. Euskara nano bat da beste hiru diganteen aldamenean.

Hizkuntzaren arazoan politika aipatzea batzuei ez zaie politikoki korrektoa irudituko baina, errealista izan eta, arazoa politikoa da. Politika kultural propio bat ez badago, Iparraldean, departamentua edo gutxienez lortzen ez bada, euskara galdu egingo da. Nafarroan ere tranpa ederra dugu zonifikazioarekin. Euskararentzat hoberena, gaur egun ezinezkoa den independentzia izango litzateke, espainolak eta frantsesak, ez denak baina gehienak lagun absorbenteak direlako.

Bestalde, hor dago euskararen paradoxa larria, euskara euskaldun guztien patrimonioa izatea eta, aldi berean, gutxi batzuen hizkuntza.

Eta erdarari, zein leku uzten diozu Euskal Herrian?

Erdara ere euskal hizkuntza da euskaldunek egiten dutenean. Enkartazioetan eta Erriberan gaztelaniaz egin da beti, horko jendeak Ataungoak euskaraz egiteko dituen arrazoi berberak ditu gaztelaniaz egiteko.

Ez nieke nik euskaraz egiteko esango Pablo Antoñana, Pedro Ugarte, Miguel Sanchez Ostizi.

Herri berean bizi garenez bi hizkuntzako erabiltzea urbanitate arazoa iruditzen zait. Badakigu bilinguismo perfekturik ez dagoela, baina bizitza ere letra okerrean idazten da. Globalizazioarekin, hiru edo lau hizkuntza ikasi beharko dira eskolan, eta hori oso onuragarria da pertsonarentzat. Euskal Herria multilinguea izango da.

Zein da orduan hizkuntza eredu egokia?

Nire ustez ez dago eredu finko bat, literatura horixe da, eredu berrien proposamena.

Lehen, idazle klasikoei buruz ari ginenean, Marcel Prousten esaldi apur bat enigmatikoa aipatu dugu, liburu onak hizkuntza arrotz moduko batean idazten direla. Euskal idazleek zer egin dute ba historian zehar, gure hizkuntza ia arrotz hau asmatu baizik. Leizarraga, Axular, Lauaxetak, Aresti, Mirande, Atxaga. Hizkera arrotza, errealitatea ere bestela antzemateko.

Gure kasuan, gainera, gauza bitxiak gertatzen dira. Guri, hitz egiten dugun hizkera ere arrotza egingo litzaiguke benetan idatziko bagenu.

Baina jaso, ulergarria, erdibidekoa... zein erabiliko zenuke narratibagintzan?

Nik ez nuke alde zuzenetik legerik markatuko. Nik irakurri ditut nobela jaso oso ederrak eta fracasoak ere bai.

Estilo ulergarriekin ere gertatzen da batzutan ulertzen dela eta, bestetan, ulertzea merezi duen ezer ez dela ulertzen.

Nobelan, berez, erregistro desberdinak erabiltzeko askatasuna behar duzu.

Eta poesian? Eta beste jeneroetan?

Poesian ere berdin. Zenbat eta erregistro aukera gehiago, hobe. Komunikazio arazoa da, interlokutorearekin tratatu behar da hori.

Euskal idazleak beti ditu alboan, eta indar handiz gainera, erdal hizkuntzak. Inoiz tentaziorik bai?

Erdaraz idaztea euskaraz idaztea bezain duina izan daiteke. Baina ez dut halako asmorik.

Parekoak badira eta zure garaitik hona euskarak ez badu beharrezko zure militantziarik, zergatik hautu bakar hori?

Mintza gaitzen itzulpenaren garrantziaz, oro har.

Hizkuntzarentzat itzulpena oso inportantea da, batez ere erdaretatik euskarara itzultzea, jakintza gehiena ingelesez eta beste hizkuntza batetan argitaratzen da eta hori euskarara itzultzeko arrazoi linguistikoak eta kulturalak nabarmenak dira.

Euskaratik erdaretara itzultzeko beharra ere azaldu beharrik ez dago, pozgarria da euskarazko liburuek ingelesera edo grezierarako itzulpena merezi izatea.

Hala ere, itzulpen gehienak espainolera egiten dira. Ez dakit zergatik itzultzen den hainbeste espainolera, pentsatzen dut itzulpenok euskara ez dakiten euskaldunek erosiko dituztela batez ere. Dena dela, ez dakit ez ote dugun morrontza bat hor. Oker banengo hobe, baina susmatzen dut politikan baino igual gehiago dugula kulturaren alorrean Espainia hor esanez: "Ego te absorvo!".

Euskaldunena literatura espainolaren apendizeta bihurtzeko tendentzia bat dagoela iruditzen zait. Euskarazko kalitateko literatura guztia espainolera itzultzen bada, orduan berez euskarazko biblioteka hori ez dakit hornidurarako edo zertarako izango den.

Herri txikia gara, hizkuntza txikia, luzarora begira jokatu behar dugu eta mundu nahastu honetan euskal literaturaren identitatea babesteko moduan. Izan ere, pertsonaren aberria berak nahi duena izango da, baina literaturaren aberria hizkuntza da. Eta politikan ez dakit herri independentzia lortuko dugun, baina euskal literaturak behintzat uste dut gorputz propio batekin eta beste hizkuntzen artera boz propio batzuekin azaldu beharko lukeela.

6)

Nolakoa izaten da harremana irakurlearekin? Jaso al duzu sekula ezustekorik?

Irakurleekiko harremanik ez dut izan, nire liburuen harrera ez dut ezagutu. Hala ere ezusteko ederrak izan ditut momentu konkretu batzuetan.

Kartzelako azken asteetan, esate baterako, nire liburuak irakurrita zituzten jende askoren bisitak edo goraintziak jaso nituen.

Hnuy illa niha majah yahoo argitaratu zenean, titulua ere apur bat animalia zen eta, ez nuen komentariarik jaso eta liburu hori ia inork ez zuela irakurri inpresioa izan nuen urtetan. *Hau da ene ondasun guztia* prestatzen hasi zirenean, ostera, zintak bidali zizkidaten eta ezusteko ederra izan zen niretzat *Hnuy illa niha majah yahoo* liburu horretatik harturiko poemak musikaturik entzutea.

Irakurle jakin batentzat idazten duzu?

Badira jeneroko literatura batzuk irakurle eman batentzat idatziak, irakurleak jakinaren gainean eta espero duena jasotzen du eta irakurketa erraza da. Hori asko gertatzen da literatura handietan, eta proposamen sortzaileago eta zailagoak literatura minoritarioago batek egiten ditu, autore bakoitzak bere irakurlegoa sortuz. Gurea bezalako literatura txikietan irakurle errazen masa hori eskasagoa dela uste dut, irakurlegoa minoritarioa dela baina aldeberean prestuagoa gauza berriak irakurtzeko.

Nire proposamenak ez dira erraz irakurtzeko eta ikaragarritzko salmentak izateko idatziak, badakit irakurlegoari ahalegin bat eskatzen diodala, nire idatzia idazteko nekeza egin zaidan bezala nekeza egingo zaiola irakurtzea.

Orduan, nik ez dakit irakurle asko dudan edo gutxi, baina estimatzen dut jende hori, idazleei buruzko Thomas Mannen lehengo esaldi hura gogoratu, irakurleak direlako, ez errazaren irakurleak, baizik eta zailtasunetan zehar ibiltzeko gauza direlako.

Argitaratzea, lehen eta orain. Zertan aldatu dira gauzak?

Nire liburuen argitaratzeko prozesuan ez naiz inoiz egon. Liburua bidali eta laster argitaratu dute beti. Elkar, Pamiela, Susa, Txalaparta, Erein, hainbat editorialek atera dituzte, eta ez dut egundo problemarik izan.

Gaurko idazlearen diruak nondik etortzen dira?

Liburuen ehuneko hamarretik, ez?

Agian zuretzako ezinezkoak dira gaur-gaurkoz, baina hitzaldiak, telegidoiak, zutabeak... denetik behar du gaur du idaztetik bizi nahi duenak. Orain oso modako dago "idaztetik bizi naiz" esatea. Hala ere gutxik esan dezake "literaturatik bizi naiz". Betiko arazoa, profesionalizazioa eta amateurrismoa. nola ikusten duzu hori?

Bolo-boloka dabil, kritikagintza hutsaren ondokoa dela gurean. Idazleak behar-beharrezkoa al du tresna hori?

Gero, zer da kritika? Irakurlearen liburuari buruzko iritzia da, formarik sinpleenean, eta hortik gora unibertsitateko azterketa hermetikoeneraino. Idazleak interlokutorearekiko komunikazio bat behar du, eta kulturak elkarrizketa etengabe bat behar du.

Ez dakit kritika dagoen. Dakidana da euskal gizartea hiperideologizatuta dagoela eta aurreiritzien arabera funtzionatzen dela. Erreseinetan hori nahiko argia da, badakit nire liburuak *Egunkarian* laudorioak jasoko dituela eta badakit *El Correon* oso txarra dela esango dutela. Hori badakit argitaratu orduko.

Unibertsitatean eta horrelako leku neoklasikoetan, gero, egiten den gehiena kriptika da, ez?

Literatur sariei buruzko iritzirik bai?

Sariak masoneriaren gauzak dira.

Bekak ez bezala, antza. Zure nobelak beka jaso zuen.

Planeta txikia da gure literaturarena. Baditu hutsuneak eta gabeziak. Onurarik ere bai ote?

Txikia da eta urrun dago. Ilargitik Txinako muraila baizik ez da ikusten, eta hor egoten naiz batzutan hara begira, baina bertakoek nik baino hobeto jakingo dute beste zer dagoen hor.

Baina jarraitu jarraituko duzu, hurbiletik ez bada ere.

7)

Oinarrizko liburutegia osatzen lagun iezaguzu: maitte dituzun bost euskal liburu.

Liburutegia osatzeko bada, zerrenda guztietan agertzen direnak errepikatu ordez, orain bertan mahaian ditudanak aipatuko dizkizut:

"Leitzako errege erreginak", "Zoperna jenerala", "Charles Bukowskiren poema antologia", "Errekarteko koadernoak", eta "Sprako tranbia".

Erdarazko beste bost.

Egunkariaren suplemento literarioetan gutxitan agertzen diren bost izen aipatuko dizkizut: Jorge de Sena, Brendan Behan, Xose Luis Mendez Ferrin, Margaret Atwood, eta Salvador Salazar Arrue.

Nola ikusten duzu gaurko egoera?

Ez dakit, baina euskal literatura Euskal Herria baino hobeto dabilela ematen du.

Gazteagoen ekarriagatik izanen da hori. Hala ere, izango dute gazteagoek ere eginkizunik.

Gazteagoak euskara eskuan etorri dira, alfabetoa euskaraz ikasi dute gutxienez. Abantaila hori dute eta idatzi ere guk baino hobeto egingo dute.

Eginkizuna, guk ere izan dugun eginkizuna izango dute, humanitate zati txiki honi hizkuntza honen bidezko boza ematea...

Idazleek, oro har, zein paper behar lukete euskal gizartearen baitan?

Baina papera Euskal Herrian ez da idazleena bakarrik, analfabetoei ere emango nieke nik papera, denona den paper urgentea dugulako gaur egun. Eta dugun papera dinamika banderizo eta sektarioetatik irten eta, batak bestearen paperak ez busti gabe, herri honentzat fundamentuzko proiektua antolatzea da.

Idazleak ere antimanikeoa izan beharko luke eta errealtateari argi apur bat eman, kendu beharrean. Gerora, idazleak nahi duen papera egin dezala, jaso dugun hizkuntza emendatuz eta bizimoduaren lekukotzat emanez, den moduko erdi epikoa, erdi komikoa eta erdi tristea.

Ametsek huts egin dute?

Ametsek huts egiten dute, ametsak lotan egiten direnean. Insomnioa errebindikatu behar da.

Zer lortzeko eta nola?